APIRILA

IÑIGO ARANBARRI

IÑIGO ARANBARRI

Apirila

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2014 Iñigo Aranbarri
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2014ko apirila
Edizio hau: 2014ko apirila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Bat

Esteban Alberdi hondoratzen ari zen.

Ez zen aurrena, ezta azkena izango ere zuloan egotea zer zen probatzen, hori esanda lasaitu nahi izaten zuen bere burua argialdietan, batez ere hasieran. Kontua zen denborak aurrera egin arau etsiak gero eta estuago lotua zuela, gero eta argiago jabetzen zela ez zuela hondoa zeharo jo, erorikoak jarraitu egingo zuela, tartea zeukala artean jausten segitzeko. Irudira ekarrita, halaxe ikusten zuen inoiz, itzal bat, fisikoa ez zen minak tropoiloan bildua, gero eta beherago istilean, eta ugaramararen bestaldean, sakonean, basatza zain, gainera zetorkion fardel indarge hura irensteko gertu.

Dudarik gabe, are egun okerragoak zituen zain.

Larritu egin zen pentsatze hutsarekin. Kolpetik jaiki eta kamapean galdutako galtzerdiak jantzi zituen. Izarak desegin gabe atondu zuen ohea, tapakiak zabalduta gainetik. Pertsianak igo zituen. Kanpoan ez zuen aldaketa zantzu txikienik sumatu. Bezperako goiz bera zirudien. Behelaino sare batek estaltzen zuen dena. Umetan sasoiko ezagutu zituen bi emaku-

me edadetu zeuden hizketan bebarru aurrean. Banaketan zebilen kamioi bat igaro zen haien ondotik, astiro. Apirila zen baina hotz egiten zuen goizetan. Bezperan ohe ondoko mahaitxoan utzitako edontzia eraman zuen harraskara. Ura berotu eta bi egunerako kafea egin zuen.

Hondoratze kolektiboarena ez zen berak asmatua, kalean zegoen. Ezin esan benetako egoera ekonomikoari zegokiona baino puztuago, baina lehen ez bezala, giroan zegoen, lagun arteko elkarrizketetan, familia otorduetan, pasieran zindoazela nahi gabe entzundako hitzetan. Bailarako egoera inoizko larriena zen gerra ondoren metalaren industria pixkanaka sortzen hasi zenetik. Egurrarena ere zeharo jota zegoen. Nork behar zituen altzariak etxerik egiten ez bazen. Egun seinalatuetan izan ezik, apaldua zen ez aspaldira arte kanpoko jendea harritzen zuen Azkoiti-Azpeitietako erakustaldi-patsa. Apalduak ziren arropak, apalduak kale ibilerak, dendetako eta ostatuetako kontsumoa, jatetxeetakoa, ibilgailuak eta etxebizitzen eroaldia.

Kafea edan lau gailetarekin, dutxa geroko utzi, jantzi, kirol oinetakoak lotu eta Loiolarako bidea hartu ohi zuen. Azpeitiraino iristen zen gehienetan. Edo bestaldera, ibaian gora, eguraldiak epeltzen zuenean Uro-

lako trenbide zaharrean gaitutako bidegorritik jotzen zuen, zuhaitz handien eta tunel umelen freskuran, Aizpurutxoraino. Diziplina. Eutsi nahi zion horri behintzat. Bestela akabo. Garai batean, amaren etxe hutsean sartu berri, telebistari begira ematen zuen goiza, barruan aztarka zebilkion mamorroa lerdokeriaz estalita nekezago agertuko zitzaiolakoan. Hedabideek ere, ez zuten gutxi laguntzen. Datu makroekonomikoak. Kanpo zorra. Deslokalizazioak. Langabeen protestak. Bankuek engainatutakoenak. Kartelak. Oihuak. Salaketak. Gazteak atzerrirako nasetan. Etxe-husteak. Dolaretik igarotako jendea geletatik, bebarruetatik, atari aurretatik arrastaka ateratzen polizia. Aspaldi ikasi zuen kanalez aldatzen ekonomiaren gaineko berriak ematen hasten zirenean.

– Ezkutatuta ez duk ezer konpontzen, Esteban.

– Ezkutatzea duk kaka hau guztia ez ikusi nahi izatea?

Hilabeteak ziren lanik gabe zegoela, lehenbizikoz bere bizitzan. Lehen, Teresarekin eta umeekin bizi zenean, eta albiste kezkagarriak inguru gero eta gertuagoa zikintzen hasi zirelarik, gauza ikusten zuen bere burua, bietako edozeini edozer gertatuta ere, egoerari aurre egiteko. Kanpora joateaz ere aritzen ziren.

Ikasteko aprobetxa zitekeela denbora. Batak eutsiko zion besteari eta biek etxeari garai hobeak etorri arte. Hala ibiltzen ziren beste etxean, bikiak oheratu eta geroko elkarrizketa luzeetan. Etorkizuna ez zen buru egin beharreko galdera zehaztugabea soilik.

Bestaldetik begiratzea ere, badaukak. Ez hago hain gaizki. Hitz horiekintxe lasaitu nahi izan zuten artean tarteka ikusten zituen lagun bakanek. Ez da erraza. Ez da erraza lehengoari eustea adin batetik atzera. Denborarekin beste batzuk dira egin beharrak, zer esanik ez haurrak badaude tartean. Eta horretan ere, iraganeko unerik ederrenek ere ez dute nahikoa indar datorkionari eusteko. Zorionez, ez zituen harreman guztiak galdu, nahiz eta zaila gertatzen zen inorekin geratzeko modua egitea. Bera zen bakarrik zegoena, ez besteak.

Baina bai, bestaldetik begiratzea ere bazeukan. Amaren etxe hutsa zuen behintzat. Teresak ezin zuela ilusiorik gabeko gizon batekin bizi eta banatzea nahi zuela esan zionean izan zuen non sartu. Etxe hark gauzak are okerrago ez jartzen lagundu zuen. Epaileen beharrik gabe konpondu zuten bien artekoa eta haurren zaintza. Momentuz, behintzat. Teresa eta bikiak bizi ziren etxearen hipoteka ordaindu beharra ze-

goen, baina Teresa lanean ari zen, eta hil eta gero amak utzitako diru pixka bat ere bazuen berak, izuak aginduta ondo begiratuta gastatzen zuena.

– Gehienak hi baino okerrago zaudek.

Begiratzen zuen tokira begiratzen zuela, ordea, bera baino zoriontsuagoa zirudien jendea ikusten zuen nonahi. Oinez ateratzen zenean bidean gurutzatzean agurtzen zuten bikote haiek guztiak, esaterako. Aspaldiko ezagunak gehienak, berdin jantzita biak sarritan, merkea ez zen kirol-arropa kolore bizikoz, umeak bizikleta txikietan zituztela atzetik.

– Garbi zagok bizitzea pixkana-pixkana hondoratzea dela.

– Hori ez duk hirea. Nondik atera duk hori, Esteban?

– Liburutegian hartutako liburu batetik.

Bi

Saihetsez ageri zen gizona argazkian harrotzen hasitako galipot gainean eseria.

Lasaiegi, itxuraz. Espaloi ertzaren kontra agondua, zoruan bermatuta zituen esku ahurrak. Maratoia amaitu berri duen korrikalari leher egina dirudi. Ez sinistekoa da buruak nola lan egiten duen, pentsatu zuen Estebanek. Maratoilari bat, otutzea ere. Hori eta begiratu batera ez zuela nahiko sufrimendu erakusten horren trantze larrian egoteko.

Begirada zen. Haren begiek ez zuten izu arrastorik. Ez zioten ezeri begiratzen hutsari ez bazen. Seguru ez zirela ordurako argia ilunetik bereizteko gauza, betazalek ezin babesik eman, bero kiskalgarriak egosia humore beirakara. Ahoak ere ez zuen laborririk erakutsi nahi. Itxita zeukan kamerak ehizatu zuenean. Ez min orrorik, ez aldarri deiadarrik. Ezer ez, argazki mutu bat besterik.

Irudi garbiaren indarrak harritu zuen Esteban, ia osoro beltzez bereizten zen silueta perfektua garraren erdian. Lotsatu egin zen bere buruarekin eder iritzi ziolako. Ezin uka estetikoki argazki ederra ez zenik.

Soinean zeramatzan guztiak erreak zizkion suak orduraako, ikusi egiten zen, beso batetik zintzilik zeuzkan tarratak gorabehera, osoro biluztuta gar-isatsek denen begietara. Zakarrontzi bat zuen bi metrora. Azala gardostua zuen zuhaitz ihartu bat haren ondoan. Leun nabarmentzen zitzaion buru aldea, kaskezurraren dirdira iluna kostaldeko muino bat bezain gozo arratsaldean, ile arrastorik gabe. Barruak nahasteko moduko usaina aditu uste izan zuen. Jendea gonbitoari eutsi ezinik. Ez baitzegoen bakarrik, hiruzpalau lagun ageri ziren argazkiaren ezker aldean, geldi baina presatu, praka motxetan denak, sandalia galduta zuen oin bat. Ur botilak zituzten eskuetan, eta han zeuden, parrasta gar zirristen gainera isurtzen. Turista zen haietako bat, zintzilik zeraman kameran eta itxuran zuen ezagun.

– Karmen, ikusi dun hau?

Toalla zikin baten antzera zabaldu zuen Estebanek egunkaria barra gainean.

– Ikusi hau?

Makurtuta jarraitu zuen emakumeak, zirkinik egin gabe baina marmarrean. Bezero guztiek entzuteko moduko biraoa biribildu zuen.

– Zer dun bekozko hori? Orain ere muturtuta?

Karmenek lipar batez harrotu zuen burua. Orduan erreparatu zuen kikaren gainean utzitako egunkariak kafe arrastoz zikinduta zituela ertzak.

– Esteban, zazpietatik nagok zulo honetan.

Argazkiaren azpiko letretara bildu zen ostera, Karmeni galdera errepikatu gabe. Albistea aletzen hasi eta berehala ematen ziren gizonaren izen-abizenak. Berriro irakurri eta ahalik zuzenen gordetzen ahalegindu zen: Nikos Kokkinias.

Kronikak esatera, astebete eman zuen Kokkiniasek Atenasko ospitale batean erredura larriekin, Sintagma plazan Legebiltzarraren atarian bere buruari su eman eta gero. Bezperan hil zen, berrogeita hamabi urte zituela. Taxista zen eta hiru seme-alabaren aita.

Berdin da zein auzotan egiten zuen lan, zer jenderen tristurak eta pozak garraiatzen zituen egunero batetik bestera seguru asko ordaindu ezin izan zuen taxi batean. Berarekin eraman ditu bolantea zeramala entzundakoak, kazetariak ez du halakorik jaso. Taxista zen eta zor handiak zituen, itxura. Hor amaitzen zen ikusgarritasunarengatik hautatu zen kasuaren ikerketa. Horra mende erdi pasako bizitza baten laburpena mundu osora morbo hutsez zabaldua.

Heriotza ez da, ordea, pentsatu zuen Estebanek, gauzarik okerrena kontu honetan. Okerrena erreak izan behar du, haragi kiskaliaren mina suak laztantzen zaituen artean. Minutu amaiezin bat, bi agian, hirurik ez, auskalo zenbat irauten duen erokeria horrek oinazeak ondoeza eragin eta erabat lokartzen zaren arte.

Leitzen jarraitu zuen. Kontakizunak aurrera egin arau Nikos Kokkinias huts bihurtua zen, errauts zikin letra arte hartan. Euroaren noraeza, batez ere Europa hegoaldea astintzen zuen krisi ekonomikoa eta beren burua botatzea erabakitzen ari ziren greziarren albistea apaintzeko izen bat baino ez zen Kokkinias. Zurgarria iruditu zitzaion kazeta arduradunen logika. Arrastaka bizitzea baino erreta hiltzea ikusgarriagoa delako erabaki zuen norbaitek erredakzioren batean hura izatea greziar sufrituen irudia.

Maskurian presioa sentitu eta komuneko atea zabaldu zuenerako, erabakia zuen. Egin zezala nahi zuena Karmenek. Eskua paparrera kakotu eta boligrafoa atera zuen alkandorako poltsikotik. Beti aldean, ikaragarri laguntzen zion denbora erretzen. Erretzen. Otu orduko konturatu zen. Hitz horixe etorri zitzaion, erretzen, ez beste bat. Lortu ere lortua zuen sudokuak

eta gurutzegramak egiten laga ziezaioten kafe orduan.

Zakila astintzen ari zela askatu zion ahoaz boligrafoari kaputxoia. Txanpon makinaren hotsa heldu zitzaion sari handiren bat libratzen. Bozkario oihurik ez. Ohikoren bat, pentsatu zuen bere bostean.

Kisketaz itxi zuen atea.

Nikos Kokkinias. Letra larriz idatzi zuen egunkariko gizonaren izena ate zuriz lakatuaren atze aldean. Nabarmen irakurtzeko moduan, margotu berria baitzegoen ez hainbestera arte faxistaz, putaz, gora hau eta akabatu bestea eta asmaizu benetakoak ziren telefono zenbakiz zikin egoten zena. Atzamarra gainetik pasatu, eta nahi izatera errazegi ezaba zitekeela ohartu zen. Maratilari gora eta behera eragiten ari zen baten bat kanpotik. Itxarotea erabaki zuen. Urratsak urruntzen sentitu zituenean idatzi zuen atzera idatziaren gainean, indarra eginez zurean barrura: Nikos Kokkinias.

Zer infernutan bizi behar du pertsonak erabaki hori hartzeko. Zergatik ez hion Legebiltzarrari eman su, Nikos, gobernu eta oposizioko, denak barruan zirela. Diputatuak, kazetariak, atezainak, prentsa, gonbidatuak. Denak hire aurretik, Nikos. Laster genitian le-

rroburuak: “Greziar tragedia”. Edo banku bati bestela. Foto ikusgarria zukean bulego bat sutan, paperak hegaztiak bezain eder, ehun, berrehun, bostehun eurokoak suzko txori bihurtuta “demokraziaren sorrera den lurralde” izorratu horren zeru gainean hegan libre.

Atzamarra pasa zuen atzera ere izenaren gainetik. Ez zen ezabatzen. Ondo.

Boligrafoari txanoa jarri, alkandora poltsikoan ez erortzeko katigatu eta beste ezer erantsi gabe atera zen komunetik Esteban.

Hiru

Egunak egin zituen Estebanek Nikos Kokkiniasen itzal kiskaliak berotuta.

Itzarririk ematen zituen gauak, oraintxe ohean, oraintxe telebista aurrean nekeak noiz ehoko. Ez argazki hark ostu ziolako loa, ezta lastargi bilakatutako gizonak bakean uzten zuelako ere, ordea. Leher eginda harrapatzen zuen goiz-albak maiz, besaulkian bilbil eginda mantapean. Etxeko gastuak murrizteko erabakia hartu zuenetik, udal liburutegira jo ohi zuen berogailua erraz antzean pizten zutelako. Hala hasi zen ordenagailuekin. Ordutegira, ohitu zen. Langileen aldartera, beharko. Azken aldian herrira heldutako etorkinez inguratuta irakurtzen zuen prentsa goizetan. Nahi aldean zaratatsuak zitzaizkion ikasleen artean zabaltzen zituen webguneak arratsaldeetan, lan aukeren bila ez ezik, zernahiren atzetik iritsita.

Hala sartu zen Kokkiniasen bizitzan. Arian, batetik eta bestetik lortutako txatalez, beraren oso bestelakoa ez zen gizonaren noiz-nola zabalagoa osatzea lortu zuen heriotzaren oihartzunak iraun zuen artean. Hasieratik erakutsi zuen Estebanek gertaerak inarrosi-

tako jendeak Legebiltzar atariko arbola ihartuan lagatzen zituen oharrekiko ardura. Hizkuntza ez, baina bederik zirilikoa irakurtzen ikasi behar zuela ebatzi zuen. Amorratzen heltzen zen transkripzioei berehalaxe ekiteko. Herdoila kendu behar izan zion zekien ingeles motzari. Foroetan sartzen hasi zen, eta laguntza eskatuta, paperetako batzuk itzultzea lortu zuen.

Min-minean hunkitu zuen egunetik egunera aldare bihurtzen ikusi zuen Sintagma plazako enbor kiskaliak zioenak.

– Negarrez, Esteban?

Luze gabe, eta Interneten aurkitu zituen mapei esker, Atenasko gibel-erraietan barrena mugitzen ikasi zuen. Antzinako oihartzunak zekarzkioten etorbideak ziren, antigoaleko izenak zeuzkaten kale eta plazak, izan turistikoenak zein aldirietakoak. A3 formatuan inprima ziezazkioten lortu zuen, zuri-beltzean ezinbestean. Heriotza-tokiak nabarmentzeko sistema bat zerabilen buruan, eta asmatu zuela esango zukeen. Errotuladoreen koloreak hasi ziren hizketan orduan.

Ibilian, dezente Kokkinias gehiago azaleratu zitzaion Atenasen bertan, amuarrain tripazgorakoz bete zen arte erreskatez, arrisku sariz eta murrizketaz po-

zoitutako erreka. Nolatan ez dakiela, hildakoen errolda zeraman webgune batera heldu zen. Ikaragarri egin zuen aurrera egun hartan. Ordura arteko mapa zikina kolore biziz jantzi zen.

Inor bakarrik ez uztea zen kontua. Hala adoretzen zen irakurlea zerrendari sarrera ematen zion aldarrian, ez zegoen zertan lotsaturik. Ez ziren suizidioak. Lexikoa bera zen moldatu beharra zegoena. Hilketa sozialak ziren azken hilabeteetan Grezia mankatzen ari zirenak. Hunkitu egin zuten hitzok. Heriotza haiek guztiek arduradunak zituztelako ziren hilketak, eta zertan lotsatu ez zuten pertsonak zirela biktimak gardosten hasi zen bera ere bere artean.

Bat zetorren webguneko sarrera gehienetan esaten zenarekin. Hiltzaile garbia zegoelako ziren krimenak. Keak salatzen duen bezala pospoloa piztu duen eskua, hala salatzen zuen Sintagma plazako Nikos Kokkiniasen gorpu kiskaliak azken urteetan nagusitu zen logika ekonomikoa. Sarean pentsatu zuen. Sistemak huts eginda, gizarte tradizionalaren abantailetan, izan familia zein lagun taldeak, langabe gelditzen denak onenean izan lezakeen sostenguan. Noiz galdu zuen ingurukoen babesa Nikos Kokkiniasek? Noiz heldu zen ondorio horretara, sarerik ez zuela? Eta

berak egin bazion uko beragatik errukirik senti ez zezaten?

Hitz horiexekin irten zen liburutegitik egun hartan. Eta asteetan nahi izan ez zuena topatu zuen atarian. Denboratxoa zen lagunak ikusten ez zituela. Ez zuen horretarako asmorik, berek behartu zuten nola zebilen galdetu ziotenean. Hala azaldu behar izan zien zertan ematen zuen eguna lanik gabe gelditu zenez geroztik. Eta halaxe aitortu zuen, disimulurik gabeko garraztasunez, gertuago sentitzen zela greziarrengandik herritar askorengandik baino.

– Enpatia deitzen zaiok horri.

Sakelako telefonoa atera zuen, deiak jasotzeko bestetarako erabiltzen ez zuena, eta hots egin ziezaiotela eskatu zuen, bertatik bertara. Egoteko lasai, ez zuela deia hartuko.

Jakinarazpen sintonia.

Berehala jo zuen. Mikis Theodorakis. Imaste Dio.

– Kantuan jakingo banu, ez nindukek isilduko.

– Hiri burutik egin zaik.

Berehala aldatu zuten solasa, batera joango ziren plazaraino. Ez zuela ezertarako presarik erantzun zien. Trenbide zaharreko aldetik jo zuten, elkarren ondoan kimu berritzen hasitako platanopean, Esteban

erdian. Errepide bestaldean, musika-eskolako parkean, ume batzuk egunkari orriaz eginiko kapela bat paratua zioten Peñafloridako kondeari. Brontzezko buru handi bat kareharri tente handiago baten gainean. Errepidea zeharkatu zuten, ibai ertzetik segitzeko gero. Arratsalde ederra atera zuen. Halaxe asmatu zuten berriz ere zertaz hitz egin. Barandan bermatuta, ibai agortuan agerian gelditzen ziren haitz argietan erreparatu zuten, ezkailuen jolasa ur berdetuan. Barre egin zuten ahateei buruzko txorakeria batekin. Itzulia zuen umorea Estebanek. Berdura plazan zeudenek saltzaileetako batekin mintzatzen gogoratuko dute.

– Nik plazatik goraxeago utzi nituen.

Hala aitortuko zuen gerora bi lagunetako batek.

Ez zen berandu, baina basamortua zirudien udaletxe inguruak. Urteak ziren ohiturak aldatuak zirela. Ez zebilen umerik kontzejupean pilotan. Orain pakistandar helduak ibiltzen ziren denbora pasa, palaz beti. Solasak ekarri zuen gaia, eta soziedadera joatea erabaki zuten. Mokadu erraz bat, astegun buruzuria izanik inor egongo ez zelakoan. Arrautzak erosi zituzten bidean ixtera zihoan azoka plazako azken dendan, eta txorizoa, mutur bana ateratzeko lain.

Gauari ostutako bi orduko aterpea izango zen, pentsatu zuen bere bostean Estebanek. Nikos Kokkiniasek auskalo noiz galdua zuen sarea.

– Baina agudo etxera, aditu?

Ez zebiltzan oker, ez zegoen beste inor. Argiak hots mehe batez piztu ziren, ia denak batera. Joanak ziren garai bateko sartu-irtenak lanetik etxerakoan. Hiru baja azken batzarrean, non eta herrian sartzeko zerrendarik luzeena izan duen soziedadean. Bodega ondoko mahaia hartu zuten. Estebanek berak atondu zuen lagunak zartaginak atera eta sua pizten zuen artean.

– Urtekoa?

Merketik jo zutela, Bastidako lagun bati esker txukuna lortzen zutelako. Hala erantzun zien ertzainei, galdezka etorri zitzaizkionean. Hormaren kontrako aulki luzean eseri omen zen Esteban, telebista aldagailua aiztoaren alboan zuela. Ogia zatitu zuen. Basoak ardoz bete. Ez zuen isiotu, nazkatua zegoela albisteekin. Nahiago izan zuen baten batek ahaztutako egunkariari begiratu pasada eman.

– Zuek lanean ondo?

– Egon hadi pixka batean. Oraintxe nauk.

Sukaldetik mahaira eseri orduko eman ziola Estebani lantegiko gorabeheren berri akordatzen da laguna, pikillo batzuk prestatu zituela baratxuriarekin hasteko, arrautzei gutxi iritzita. Iranera ari zirela tornuak saltzen azaldu omen zion, abila zutela komertziala, horri esker eusten ziotela.

– Txaplanean.

– Eta kobratzen?

Iranerako ari ziren tornuak egiten, Egiptorako, Israelerako.

– Nagusiek ez ditek hainbeste albistegi sekula ikusi.

Zenbat edan zuten. Botila bat. Kafea gainetik, eta pattarrik ez berak. Estebanek patxaran bat, bizpahiru jela kozkor botata kopara.

– Besterik ez?

– Nahikoa da astegun buruzuri baterako.

Ezin seguru esan bigarren bat hartu zuen. Botila mahai gainean zen, zer ardura ote dio. Hamaiketarako kalean ziren, hori badaki. Inor ere ez zebilen kalean. Garagardo bana eskatu zuten Mikelenean. Hori seguru zekien, ilargiaren adinako erlojua du-eta barra atzean. Barran nortzuk zeuden ere, esango luke.

– Eta Esteban?

– Han laga nuen. Etxera nindoala esan nion, lana nuela hurrengo egunean.

Ulertu ezin izan zuen zerbait zirriborratu zuen ertzainak mahai ertzean utzia zuen karpeta gaineko paperean.

Ezin izan zien besterik esan gau hartaz. Bera etxera joan zenean kalean utzi zuela Esteban Alberdi.

Lau

Beherakoan agertu zitzaion Estebani.

Gizon bat zen garabitik zintzilik, soka lepazamarretik askatzeko aukerarik gabe, apirileko haize maskala gauza ez gorputz ale hura kulunkatzeko. Bere burua botata baino, baten batek botarazia zirudien han goian, katiuska beltz handiegiak airean. Ingurura begira aritu zen. Inor ez. Ahots batzuen ibilia oso apartean, etxe artean erabat isildu zen arte. Txaleko bizi bat zioten jantzia, autoan nahitaez eraman beharreko horietako bat, ilunpetan ere ikusgarri ager zedin. Eta maskara zatar hura, festetako barrakaren batetik, auskalo nondik inguratua.

Orduan akordatu zen Esteban, ez zela ikusten zuen aurreneko aldia. Ez zuen nekerik hartu beharrik izan non jakiteko. Autobusean Donostiara joan zenean karneta berritzera, Azpeitian izan zen, Eskuztako errebuelta parean. Bera ez bazen, antzeko panpina, andere, andrako bat antzeko soka, bilur, korda-lasterretik zintzilik baselizaren aldameneko postean, hain dira elkarren antzekoak bateko eta besteko urkatuak.

Hiru hilabete zeramatzaten greban fundizioan. Lanuzle zein eskirol, lagunak zituen Estebanek saltsan. Denetik probatuak ziren arreta deitzeko. Herritarren babes eskeko manifestazioak egin zituzten, Bilbora joanak ziren krediduz estututa zituen bankuaren egoitzara haginak kendutako motozerrekin, itxialdiarekin nahi izan zuten behartu zuzendaritza negoziatzera.

Antza, buzo eta guztiko langilea irudikatzen zuen andereari zitzaion heldua txanda. Grebalariak haraino goraino igoak ziren, txotxongiloa lepoan hartuta, garabi-besoan aurrera, bi oinak hutsa zapaltzen laga zuten arte. Kartelik gabe. Pintadarik ez.

Bere soinez mintzo zen obreroz jantzitako panpina garabi muturretik.

Hutsa zapaltzen, etorkizun garbirik ezaren metafora zen ulertu behar zena.

Txorimalo urbano bat, begira zertara behartzen gaituzuenka ariko balitz bezala.

Horretan ere galanki aldatu gara, pentsatu zuen Estebanek bere artean, begiak gora. Oraindik orain, trajea janzten zitzaion panpinari buzoa beharrean, urdin iluna aukeran. Edozeinen etxetik ekartzen zen aitari kendutako korbata zaharren bat, ospatuago zenbat eta ikusgarriago, eta algaraka lotzen ttattarra

panpinaren sama bueltan. Atzora arte, “langilea kalera, nagusia sokara” egiten zen orro manifestazioetan. Subjektuak erabat kanbiatuak ageri dira orain. Orain ez da bidegabekeria soziala gezurretako biktimaz berdindu nahi. Erruki nahiak hartu dio tokia justizia poetikoari. Irudiaren indarra nagusitu delarik, gauza handia da jendea beratzea lortzea.

Ezin uka, errukarria da urkamendira daramaten gizona.

Horretarako hobe geu sokan.

Ez zen hori izan Nikos Kokkiniasen aukera?

Garabiko panpina ikusi eta egun gutxira aparkatu zuen ertzainen auto ilunak taberna aurrean. Galderak ezustean harrapatu zuen Karmen. Begiurdina zen euskaraz egiten zuen bakarra.

– Putzu izoztuak bezalako bi begi.

Tortilla atera berrien usainak piztutako irribarrez sumatu zituen elkarri sinuka emakumeak. Uniformerik gabe, jaseko mutilak iruditu zitzaizkion hirurak. Igarri zer ziren, berriz, atetik sartu orduko.

– Esteban Alberdi ezagutzen duzu, ezta? Hemen egon al zen lehengo astearte gauean?

Txanpon-makinen ondoko mahaia erakutsi zuen Karmenen atzamarrak. Txukun zegoen ertzean, lau

aulki inguruan zituela. Aurpegi ezaguna egin zitzaion. Beste bietako bat ere, kalean ikusia zuen, uniformerik gabe, oraintxe bezala.

– Hementxe.

Eta aulkietako bat atera zuen emakumeak. Ordura arteko simetria hautsita, handiagotu egin zen mahai bueltan bildutako lauren arteko hutsunea.

– Ez zen hemendik mugitu.

Ezer esan ez bazuten ere, guztiak Esteban bertan eserita ikustera jolastu zirela iruditu zitzaion Karmeni.

Ez dagoelako klarionarekin pertsonaren irudia eserita marrazterik bestela...

Pasatu, pasatu zitzaion burutik: badakizue zertan eman zuen hemen egon zen tartea? Baina ez zuen mutik atera. Zertarako. Ez duzue sinetsiko, ez zenukete egundo asmatuko Interpolekoei deituta ere, alferrik dituzue telesail orotako polizia zientifikoak. Hautsontzia eskatu zidan aurrena. Loratuta zituen begiak, baina aldea dago, atxurtuta ere ez zegoen. Eta badakit zer diodan, ez da jendea barra atzetik baino hobeto inondik ezagutzen. Afaltzetik zetorrela esan zidan, elkartetik. Hautsontzi bat, edozein, ez ziola ardurarik. Garagardoa eskatu zuen gero. Ez dagoela erretzerik, nik. Ergeltzat ote neukan. Zertarako behar duk, Este-

ban. Hik emadan, ez dinat mahaia hondatu nahi-eta. Eta hala eman nion, erre orbanak kendu ezin izan dizkiodan metalezko zapal bat, hor atzean gordeta ditudanetako bat. Bakarrik heldu zen, bakarrik egon zen, bakarrik joan zen, hiru zerbeza edanda. Eta bere buruarekin bakarrean, zigarro papera atera zuen alkandorako poltsikotik. Senarra eta biok telebistari begira geunden, baina muturren aurrean nuen, nola ez nintzen fijatuko. Munduko txera handienarekin atera zuen bat multzotik, ezta zetazkoa balitz ere paper hori, eta hautsontziaren erdian jarrita, kiskeroaz su nola ematen zion ikusi nuen. Kasik garrik gabeko ke hari mehe bat. Luzaro egon zitzaion begira, berehala hauts bihurtutako paperari begirik kentzeke gizona. Beste bat atera zuen ondoren, eta berdin egin zuen. Aldatzen zen bakarra sua emateko era zen. Ertz batetik bati, beste ertzetik besteari, erditik hari. Halaxe amaitu zuen paper-multzoa, hitzik egiteke.

Sakelako telefonoak jo zion burua zirudienari. Noren deia zen begiratu eta isilarazi egin zuen.

Galdera zuzena berriz ere:

– Borrokarik edo izan zuen?

Ezetz.

– Xextrarik ere ez inorekin?

Komuna non zegoen galdetu zuen. Kafe-makinara itzulia zen Karmen, bezeroak artatzera. Bueltan, Estebanek erretzen zuen galdetu zion, zigarroak, beste edozer. Emakumeak ertzainari begiratu gabe erantzun zuen, barra gaineko pintxoak estaltzen zituzten plastiko meheak atontzeari utzi gabe.

Soziedadean aurkitu zuen paper multzoa Estebanek, baten bati aulkipera eroria. Gazteren batena, pentsatu zuen markagatik. Paperak suari deituta, Kokkinias etorri zitzaion, halaxe joango dela saretzen, zuzitzen, desegiten egunez egun haren oroimena lagunen artean ere. Herriko lantegien egoeraz aritu ziren, krisiari eusten ari ziren tailerren zerrenda osatu zuten. Esku bakarrarekin konta zitezkeen ondo zebiltzanak.

– Hemen gauza seguru bakarra duk denok hil behar dugula.

Zabaldutako leihotik, ilargia labainka zihoan teilatu gainetan. Aurreko etxeko sukaldeetako fluoreszenteak itzalekin zebiltzan jolasean. Azken solasaldiak oheratu aurretik. Motor baten burrunba hurreratzen, urruntzen gero.

Begiurdinak azken galdera bat zuen Karmeni egiteko.

– Zer ordutan alde egin zuen hemendik?

– Itxi baino lehentxeago. Goizeko ordu bata inguru izango zen.

Eliza atariko zabaldi hutsera heldu baino lehen, eta umetan eskolatik irtenda hamaika aldiz egin ohi zuen bezala, Etxebeltzeko txingak joz hartu zuen etxerako bidea Estebanek. Garai batean jauntxoek zaldiak lotzeko erabiltzen zituzten horman sartutako uztai haiek. Noiztik ez zituen jo. Zabalik utzitako leihoren batetik zurrungak heldu zitzaizkion. Barre egin zuen bere kolkorako. Ez zuen iritsi nahi. Etxe hutsa gainera erortzen zaio maite izan den jendearekin bizitzen ohitu denari. Ia segurua zen taberna guztiak giltzatuta egotea. Etsi egin beharko zuen.

Ertzain-etxean goizeko bostak hamabi minutu gutxian jaso zuten deia. Hala gelditu zen erregistratuta, lanerakoan auzoko batek automobila hartzera joandakoan emanda abisua. Anbulantzia eskatu zuen, medikua. Gizonezko bat zegoela auto artean, odoletan eta konorterik gabe, itxuraz norbaitek edo zerbaitek buruan jota.

Bost

Amets batean esnatu zen. Ulertzen ez zuen denbora batean zegoen Esteban Alberdi.

Ametsera itzartzea galipot arin batean igeri egitea da, begiak doi bat zabaldu orduko besoei atzera-aurrera eragitea, udatiarrik gabeko itsasoan trumoipean bakarrik gelditu izan zarenean bezala. Astunagoa da dena. Odol garbiaren usaina datorkizu, eta poliki zoaz, ezin astiroago zoaz likido likatsuan barrena, edo hori uste duzu behintzat, nahi aldean makal zoazela oso, zeure arnasaren sartu-irtena duzula hots-lagun bakar. Eta konparazioetara ez jotzera, ezin azaldu zer den egoera hitzetara ekarriezin hau, itsaso hondo iluna edo hodei arte zikina. Edonola iparrik eta hegorik gabeko batetik besterako atsedenik gabea, hasierarik eta amaierarik gabeko ziega, lo zauden artean gatibu zauzkan hau. Hala da, ertzik, kontinenterik, itsasargirik gabeko ozeanoan hondora zoaz betiko.

Orain amets garbi baten barruan zegoen itzarririk, ulertzen ez zuen denbora batean.

Ezin izan zituen ondo jaso Peñafloridako kondeak Toulouseko jesuiten kolegiotik ekarritako medikuaren

hitzak, baina entzundakoa bere erara berregiten ikasi du loaren mugalde gozoan dabilela. Gorde duena da arratsalde hartan azken momentuan deitutakoei esker bete zela Intsausti jauregiko aretoa. Bergaratik Azkoitira behar zuten zalgurdiak ez aurrera ez atzera gelditu ziren hasierako malkarretan, esan zenez, erauntsiak bide gainera gaztainondo bat eraitsita. Gertuagoko batzuek ere atzera jo beharra izan zuten, beldurrak eraginda. Ibaia hazita zetorren egunetan, eta zeruak bitan zatitua zirudien, hainbestekoa zen jarioa. Eguraldi txakurraren erdian, kondearen morroia heldu zitzaion abisuarekin etxera bila Esteban Alberdiri, janzteko zituen onenak eta agertzeko Intsausti jauregira, itsusia litzatekeela Saint Colombe jaunak aulki hutsak ikustea aretoan.

Ondo ulertu ez zuen zerbait esan zion emazteak jaka lotzen ari zela.

Erantzun bakarra bururatu zitzaion.

– Gizona handik honaino ekarrita, hurreratu beharko dugu.

Atzean eserarazi zuten, horma kontra. Erdi frantsesez erdi gazteleraz aritu zen hizlaria, hortz handiak nabarmen erakutsiz, ondo ulertuko ez zen beldurrez, irribarrez eta imintzioz laguntzerik balego bezala. Bu-

ruarekin baietz egiten ikusi zituen kondea, Narrosko markesa eta enparauak aurreko ilaretan. Ostean, etxeko mirabeak ganbera nagusiko kandelak itzaltzen hasiak zirela, Peñafloridako kondeak ez zuen Esteban Alberdi aurkezteko ahaleginik egin inguruan zituen kanpotarrei, are gutxiago Saint Colombe jaun medikuari. Gogo txartuta etxeratu zen. Estebanek eskailburuan zuen zain Teresa.

– Ez zara inoiz beretakoa izango, zer uste zenuen.

Likido lijerretik ametsera astiro datorrela, eguzki izpien laztana sentitu du Estebanek masailean. Hauxe epelaren ederra, baina ez du zirkinik egin ezpainak batu eta hitzik ebakitzeko. Begiak ireki dituenerako, amorrarazi egin du egunak txirrist eginda ikusteak. Izara muturrarekin estali du betartea. Berak bi ordu daramatzala jaikita, agurtu du Teresak logelako atetxoriari helduta.

– Isildu gabe ibili zara gau osoan.

– Sukarra izango da.

Bezeroren baten etxean lapurretan harrapatu eta makilaka hartu izan balute ez zuen mankazio handiagorik edukiko. Ezkerreko zangoa atera du izara gainera. Minberatuak ditu hezurrak. Betazalak bildu eta lo

segitu nahi du, gizaldiz gizaldi lo, eta hala egongo zen beharrak gogoa hartu izan ez balio.

– Geratu zaitez ohean. Zertarako duzu presa?

Teresak jaikitzen sentitu du senarra. Oinen krakatekoa hautsitako ohola zapaldu duenean. Atorra aldatzen ikusi du, musuari eta galtzarbeei garbitualdi azkarra ematen goizeko ur bildu berrian. Eskua pasatu du kokots laztutik. Min sinuak eginez jantzi ditu oinetakoak.

– Almortzua hartu beharko duzu behintzat.

– Gero –esan dio, tipula-zopa hotzari begiratu azkarra emanda.

Ez da aurrenekoa, Teresari elkarrizketa lehen ere bizitakoa begitandu zaio.

– Ez dugu izainik.

– Bakar bat ere ez?

– Zer egingo dut erdi hilik dauzkadan horiekin?

Etxean direnak beteta daude, erre beharko ditu horretarako tartea hartuta. Erabili gabeen beharrean da, edozer datorrela ere.

– Zu ez zaude errekara joateko moduan.

Alferrik aritu zaio Teresa hizketan ateraino. Egurrezko mailak urrats nekatuz jaitsi eta pausoan aldentzen ikusi du, kalean behera datozen mandazainekin

hizketan gelditu gabe. Lehortzeko painurik hartu duen, hori da ez dakiena. Urruti dago oihu egiteko orain; Esteban Alberdi ohitura jakineko gizona da. Kristalezko botilarekin batera darama oihala morralean, sorbaldatik zintzilik. Artzubitik hartuko du Amurketarakoa, erreka bazterreko bidezidorrean aurrera egiteko. Ibiliko den tokietan ez du sasirik baztertu behar izango, garbia da arrasto soildua belarretan. Eta hala ere, beti eraman ohi du hurritz makila aldean izainetara doanean, estropezu egin edo labainduz gero uretara ez erortzeko.

Berehala hartu du ausiabarrak. Antaparatik gorako ur lasterra ez dator pentsatu bezain garbi. Lohiturik daude bazter nareak, lokatz geruza mehe batek zikindu ditu harri zapalak. Putzuak ez direla garbiago egongo esan du bere artean. Oinetakoak erantzi, ziskuan sartu eta erreka erditik jotzea erabaki du orduan, aratzago egongo delakoan pixka bat gorago. Harri artean ibiltzen hasterako, makila bermatu du hondoan. Hara. Sastadak. Hotzaren orratzarenak baina. Bekokira eraman du libre duen esku ahurra. Erretzen dago. Pixka bat gorago igoko dela erabaki du, han batu beharko ditu batzekotan.

Deiadarrak entzun ditu makalen osteko munaren bestaldean, ez bertan ere. Isildu egin dira gero.

Gorago ez dago alerik. Igelik ere, ez du kanturik sentitu atera denetik, eta hori ez duzu seinale ona izainak aurkitu nahi izatera. Haize-itzaletan astunagoak dirudite makalen hosto berriek. Oin zuriei begiratu die, berna hezurtsuei orkatiletatik ia arrabete gora uretan, elurra bezain garbi. Hala harrapatu izan ditu beti, eskuz baino gusturago, zangoak erabilita butroi gisa. Halaxe ikasi zion aitari. Hi lasai, beraiek hurreratuko zaizkik, toki egokia aurkitzea duk kontua. Halaxe irakatsi nahi lieke eginahalak eginagatik ez datozen seme-alabei. Amore eman behar izan du azkenik. Garbi dago ez duela egunik onena aukeratu izainetarako.

Erreka ertzean eserita dago oinak lehortzen oihuak heldu zaizkionean berriro, gertuago oraingoan. Bigarren oinetakoa sartu orduko sentitu du txakurraren arnasa-hots lasterra. Lurrundua da ordurako goizeko ihintza belar epeletan.

– Zatoz gurekin, Esteban.

Ataun da, Garagorri erementariaren ofiziala. Astamakila dakar dantzan. Zoruetako lokatza astintzen ikusi du harekin.

– Ezagutzen nauzu, ezta?

Errekan sartua da ordurako txakurra. Lasai dago bi gizonei begira, berehala helduko ez den agindu baten esperoan legez. Elgoibarren bizi delakoan dago, hori du aditzera Estebanek, baina ezagutzen du, ezagutzen duenez. Ezponda barrenetik bota du Ataunek txakurraren ondora ia hotsik gabe erori den harri-txintxorra.

– Tira, goazen.

Garrotea eskuan duela, ukiturik egin gabe gidatu du Esteban muna atzeko zelaian aurrera. Udaberriko sastrakak ez du bidezidorra erabat ito. Kamiora irten direnean, San Sebastianeko aldapari ekin diote. Atzetik doakio Ataun, txakurrarekin jolasean. Saiatzea erabaki du.

– Ez nabil santu, kalentura dut. Etxera behar nuke.

– Santu nahikoa badago bestela ere. Zaude lasai, laster joango gara denok.

Gailurrean den baselizara iristen, andre-gizon multzoa doa bi asto zamaturekin. Oihuak areagotu egin dira, jende gehiago bildu zaio samaldari, beraren moduan erdi behartuak bat baino gehiago.

Elkarren arteko agurrak laburrak izan dira atarian batu direnean. Kanpai joka hasi dira barrutik. Dindan

azkar, bizkor, artega. Herrikoak ez diren bi emakume izan ezik, denak ditu ezagunak Estebanek. Eskopeta bakarra ikusi du, hiruzpalau haga. Urduritasuna sumatzen da hitzetan. Lasai antzean asto biak bakarrik daudela ematen du. Eta bera orain, buru nork egiten duen ikusi duenean.

– Jakinaren gainean zaudek honezkero –esan du Mateo Garatek ermita atarian agertu denean.

Azken zalantza arrastoa galdu du Estebanek. Olaskoaga erretorearen bezperako sermoia heldu zaio gomutara atoan. Zurrumurrua, asteetan zebilen ahoz aho.

– Zer dugu, Esteban –agurtu du Mateok keinua eginez.

Maldan behera abiatu da taldea, Garate bera buru dela, esku huts. Honen semeak darama asto zaharrena sokatik. Kanpoko emakumeetako batek bigarrena, banasta beteenekin doana.

Atzera eskua bekoki gainean jarri duenean, epelagoa igarri du.

Ataunen txakurra hankapean duela sartu dira herrian.

Sei

Mundua eta honen itzala dago bildua plazan araldea bertan sartu denerako.

Ez da ageriko hierarkiarik, baina Esteban lasaiago dabil Mateo Garate aurretik doala ikusita. Asto kiratsak hartu du aurrena. Gernuarenak ondoren. Eta izerdiarenak elkarren kontra pilarazi dituztenean harresi ondoan. Leihoetan haurren musu zikinak baino ez ditu ikusi. Ilobenak kale barrenean. Laster da eguerdia, atera du kontua. Muxurka heldua da eguzkia teilatu arteko zeru txatalean. Kontzejupean sartzen ari direla ikusi du Teresa, eta harengana egin du pausoa. Taldetik ateratzen laga dio Ataunek, bestaldera begira biratu da, txakurra hanka-festa hartan jauzika.

Astagorotza oinpean.

Kexa batean datoz erdi bultzaka kalean behera ekarri dituztenak. Bazkaltzen ari direla atera omen dituzte etxetik, era txarrean atera ere. Zakar mintzatu zaizkiela armatuak salatu diote Mateo Garateri. Hara behar dutela, mundua behar dela plazan zamadunak heltzen direnerako.

– Zer zabiltza hemen?

Nola litekeen Teresaren begiek gogorretik dutena samurretik izatea dio bere artean Estebanek, eta damu da, ez du beti asmatu izan ondo ulertzen.

– Zu etxera eramatera etorri naiz.

Burutik beherakoaren astuna. Legartua du ahoa. Errekara joan banaiz nola espero ninduzun hemen?, baina ez diotso ezer. Sinistu planta egin du, ondo dakien arren ez dela egia osoa, ezta gezur hutsa ere. Biak batean. Dena nahi. Ez da akaso indar horien arteko orekarekin asmatzea bizitzaren zeregina? Biak nahi. Oheratu nahi du behingoz, baina ez ikusi gabe noraino iristen den talde haren ausardia.

San Sebastianetik plazarako bidean entzun duena azalduko dio Estebanek Teresari. Mendaroko bi emakume direla, nola geldiarazi dituzten Garate aita-semeek, Ataunek eta beste pare batek Egurbideko ola parean, eta zeramatena itzultzeko agindu, herritik ez dutela ez garirik ez artorik aterako esanda.

– Egoteko moduan zaude?

Garitik gozoa dator. Artotik egonarria.

Munduaren heldulekua iritzi dio emakumearen eskuari gerri atzean pausatu zaionean.

Zu hemen bazara, bai, esatekotan egon da. Atzamarrak luzatuta erantzun dio, asteak dira ez diola es-

kutik heldu. Bultza egiten du jendeak, baina. Batetik bestera astintzen ditu jakin-minaren oldeak, atzamar kateatuak eten eta erabat banatzen dituen arte.

Burua itzulia du Estebanek.

Ukondoak dira, mokorrak, eskuak saihetsetan indarka. Bat-batean, buruen artean nabarmentzen den bat, Olaskoaga erretorearena, zekor batena bezainbat, soiltzen gazterik hasia. Itsaso Gorria bezala zabaltzen ikusi du Estebanek jende multzoa hari bidea ematen, hitz horiexekin gogoratuko du gertatua gerora. Itsasoa erdibitzen esango du, ganibeta txerriaren sabelean nola. Deiadar batean dator, eta bultzada olatuek bertaratua, aurrez aurre du konturatu denerako Estebanek.

– Laga hemen! Laga asto hauek hementxe!

Dena baino zaharragoa ematen du Carlos Olaskoagak. Ahotsagatik da, ez du uste berak kristauak beldurtzeko trumoia ez denik.

– Lagatzeko hemen!

Narrosko markesaren etxetik omen dator.

– Arren eta arren eskatu diot markesari esateko Leturiondoko andreari...

Eten egin behar izan du. Plazan ez dago elizako isiltasunik.

– Esateko Leturiondoko andreari ez saltzeko berriz garirik kanpora, herrian dagoela-eta beharrik handiena.

Ataun du ondoan berriz ere, garroteak putzak emanda jo plantak egiten. Gutxik bezalako gangarra du Olaskoaga erretoreak:

– Hala agindu diot, itzuliko dugula bi astoen karga. Baina ez saltzeko, ez saltzeko gehiago kanpora, gauzak okertuko ez badira.

Poz-ikaraz mintzo zaie saldutako belarriei, Narrosko markesaren erantzuna kolkoan. Esan bezalaxe egingo omen du, agindu diolako fio da, egoteko lasai, seguru dagoela Leturiondoko alargunak onartuko duela tratua.

Gero, atzeratzeko keinua egin du, esku handiak dantzan. Oihuak lehertu egin dira, sakaka hasi da atzera ere jende aldra kontzejupetik irteteko.

Merioari deitu dio Olaskoagak. Udaletxepean bilduta direnentzat alkatea bera baino gehiago den Carlos Olaskoaga erretoreak.

– Tira, bueltatu banastetakoa.

Merioak ere ez du uste Olaskoaga alkatea bera baino gutxiago denik.

Sokatik tiraka ekin orduko, astoen apatxak lanean hasi dira aguazilaren orpotik. Haiekin batera hasi da mundua ere oinez.

– Atzera! Atzera!

Eutsi ezin zaion oldea da abadeari atzetik doakiona. Halako marmar bat, erlauntza aztoratu batek jarraitzen dio Leturiondo jauregiraino. Trankatuak dituzte ateak. Ukabilen indarra egur sendoaren kontra. Oihu betean jakinarazi dute zarratuta daudela aurrenak iritsi direnek.

– Eraitsiko al ditugu?

Zabalduko dituzte. Irtengo dira morroiak, bihurtuko dute biltegira alea, hartuko dute berriz ere astoek Mendarorakoa, bi andreak dituztela bide erakusle. Geroago ordea, Teresa eta Esteban etxean sartzen ari direla.

– Oraintxe nator.

Haurren ahotsak inoiz eri ikusi ez duten osabarengatik galdezka. Txikienek ez dute gogoan ohean, eta buru motzak erakusten dituzte ate zangoz bestalde oherako eranzten ari dela. Izara artean, leihoa zabal diezaioten eskatu du Estebanek. Jendea entzun nahi du kalean, ez aldendu erabat esna den mundutik. Ur

freskotan bustitako oihalekin itzuli denean Teresa, begiak bilduta aurkitu du.

– Berandu zabiltzate, bukatu da plazakoa!

Teresak burua atera du leihotik oihuaren jabea ezagutu nahian. Hiruzpalau gazte ikusi ditu kalean behera antxintxika, eta orduantxe ordu bata jo du erloju berriak. Zapi bustia ezarri dio senarrari kopetan. Bezperan Olaskoaga erretoreak pulpitutik botatakoak etorri zaizkio trumilka. Domekako mezan ez bada noiz izango zituen Narrosko markesa-eta entzule huts? Eta berregin ditu erretorearen hitzak bata bestearen ondotik. Denok dakigula zer uzta izan dugun azkenekoa, eta pagatu ezinezkoak direla prezioak eta handia askoren gosea. Horregatik, aukeratzen dena aukeratzen dela, lege guztien kontrakoa dela garia zein artoa kanpoan saltzeko erabakia, noiz eta herritarrak daudenean ale horren premian.

Halaxe kontatu zion etxeratu orduko orain ondoan lo daukan Estebani.

– Eta?

– Han ikusten dituzu aurreko ilaretan peluka guztiak, elkarri begiratzeko kemenik gabe. Halako isiltasun bat, Esteban. Hildakoen hezurrak entzuteko modukoa.

Peñafloridako kondea ez nahi beste, baina inoiz hagin kontuak direla-eta ezagutzen dute Narrosko markesa pitin bat Estebanek eta biek. Ez da jarkitzen zaizun gizona, zuriagoa da hori baino, gero atzetik sartuko badizu ere. Asto bahitzaileek deituta agertu da. Besteek zer egingo duten ez da erraza jakiten, baina badaki Narrosko markesak behintzat prezioak jaitsiko dituela. Bakeagatik bada ere, uda amaitu artean behintzat.

Ohe ertzean ohartu da honetaz Teresa, sukarrak epeldutako zapia eskuan, lokartzen hasia den Estebani begira dagoela. Sorbaldatik leunkiro astindu eta galdetzea erabaki du, ea utzi dioten izainik harrapatzen edo etxekorik bidali beharra dagoen errekara. Hala egin du, baina berandu da.

– Lo zaude, Esteban?

Ilobei agindua emanda atera da kalera Teresa, osaba esnatzen bada irten dadila bila, plazan egongo dela. Ia lehen adina jende dago arkupeetan, nahiz eta hurreratu orduko esan dioten etxeratzeko agindua emana duela Olaskoaga erretoreak. Inork gutxik egin dio kasurik, itxura. Arrazoietako bat lepo gainean daramate kontzejupera, batek daki nondik aterata.

Bildotsa balitz bezala ari dira besoz beso doan zahagia laztantzen.

Ardo zetakaz zikinduko dira ohartu orduko lauzak.

Olaskoaga non den galdetu duenean ez dela joan zahar erantzun diote, denekin haserre. Teresak ezin izan dio barre-antzari eutsi. Jendea ez dela berehalakoan etxeratuko, ezagun du. Kontzejupeko horma nagusian bilduta dagoen taldean erreparatu orduko ekin dio hariak lotzeari.

Garate, Ataun eta gainerakoekin batera, bart gauean Txaldako Zaharraren etxean bildu diren guztiak daude, isil-hizketan, zahagitik aparte.

Zazpi

– Ez zara inoiz beretakoa izango.

Ez dio txarrean bota Teresak, sinistuta dago, ezin izan du isildu. Inozoegi ikusten du senarra. Baina betartea ilundu zaio Estebani, zakar erantzutekotan egon da.

Badaki, zer behar dago baina gogorarazteko.

– Nor gonbidatu zuten, hala ere, Bergarara?

– Zer esan nahi duzu horrekin?

– Niri esan zidatela ea joan nahi nuen, ez beste inori.

Irailean beteko dira bi urte. Festa izan zen aitzakia, San Martin Agirreren omenezkoa, Aita Santuaren bulda eta guzti, eta beren-beregi bertan jokatzeko idatzia zuen Peñafloridako kondeak antzezlana.

– Bergarara zuekin?

Hilabeteak zeramatzaten entsaioetan Intsausti jauregian. Latz estutu zuten ekaineko azken hamabostaldian. Dena zegoen hankaz gora areto nagusian zein gonbidatuen geletan. Biolinen akordeak nahi aldean sarritan eteten ziren. Eztia nahasten zitzaien arrautza gorringoei. Ez zegoen inor Peñafloridako kon-

dearen alabak urduri zebiltzala ez zekienik. Zer lantegi hartu ziren, jakitun zen Esteban bera. Parte-hartzaile guztiak ezin elkartu eta kondea bera izan zen batzuetan Bergarara eta besteetan Markinara jotzen zuena, aktoreen lana ez ezik musikariena ere zuzentzeko. Kasik egunero deitu izan zuten sasoi hartan Esteban, bizarra-eta egiteko, ez baitziren gutxi kanpotik etorrita, kondearen jauregian bertan hartzen zutenak ostatu. Mugartegiz akordatzen da ondo, Marcos Rekalde organistaz, Bilbotik kondearen adiskidetasunak ekarriak biak, eskupeko emaile onak. Uztailaren hasiera arte geratu ziren herrian. Esteban Alberdi egun haietaz gogoratzen den aldiro, antzezpenerako prestatzen ikusten ditu orain askok sokatik zintzilik nahi lituzketen haiek. Jolasean ibiltzen ziren, emakume arropaz jantzita ikusi zituen gizonezkoak, edozein estakuru zela medio zirika elkarri. Narrosko markesak itzuli zuen Pietro Metastasioren *La clemencia de Tito* zen tragedia, osterantzean gogokoago zutela libertimendua esango luke. Akordatzen da. Bi komedia estreinatu baitzituzten ekain hartan Intsaustin, batez ere kondeak berak musikatutako opera komiko bi, *El mariscal en su fragua* eta *El borracho burlado*.

Gonbidatuak joanak ziren Estebani Intsausti jauregira itzultzeko agindu zitzaionean.

Kilkerrak uda betean jauregiko soroetan.

– Zer iruditu obrak, Esteban?

Eskaileretan aurkitu zuen Peñaflorida. Gizon mardoa izanagatik, ahalegintzen zen batetik besterakoan arinagoa ematen. Azken boladan argalduta zebilela iruditu zitzaion Estebani, ez zituen hain guriak masailak teilatutik sartzen zen hexagono formako argi laruaren azpian.

– Ezin izan nuen bakar bat ikusi, jauna.

– Hainbeste jakin banu gonbidatuko zintuzkedan ba, gizona.

Bere aldetik ez zen konplimendua, nahi zuen jakin. Kondea ere zintzo aritu zitzaiolakoan etxeratu zen egun hartan Esteban. Bergarara gonbidatu zuen. Idatziko zion esku-ohar bat, formala. Leiho-tapak zabaldu zituen barberia aireberritzeko. Begiratu bat eman zien izainei, oihala aldatu zien beirazko flaskoei. Urez bere zuen terreina txikia. Haginak ateratzeko eta odolusteak egiteko tresneria guztia garbitu zuen gero. Inuntzia pasatzen zebilen Teresa jaitsi zenean.

– Ez zara inoiz beretakoa izango.

Azkoitikoa galduta, Bergarako ekitaldia geratzen zen, udaletxeko areto nagusian emango zena. Bost egunez luzatu ziren San Martin Agirreren omenezko jaiak. Zezenketak izan ziren, Gaztelako abereekin bi eta Nafarroakoekin bat. Suzko erroberak bota zituzten, masta puntan ibili ziren, argi ikusgarriak piztu ziren, dantza izan zuten, orga apainduak, bikoteen pasierak. Eta nola ez, Peñafloridako kondeak idatzi eta musikatutako zarzuela eskaini zen, Txanton mozkorrarena, aldaketa bakarrarekin aktoreen artean. Jauregira egindako aurrera-atzeretatik ezagutzen ez zuen Gertrudis Ozaetak hartu zuen Mari Peparen tokia.

Kondeak eta lagunek egunak zeramatzaten Bergaran Esteban heldu zenerako. Bakarrik iritsi zen, Elosun barrena oinez. Udako osti-zaparrada batek harrapatu zuen Gorlatik beherakoan. Gorritzen hasiak ziren pagopean babestu zen erabat atertu zuen arte. Burdinazko iltzeak zeramatzaten arabar mandazain batzuekin jarraitu zuen herriraino.

Ikusleak aztoratuta irten ziren funtziotik, algara batean bildu ziren udaletxe aurrean Txanton Garroteri gertatutakoak imitatzen. Ez zizkion Peñafloridako kondeari barruan zerabiltzan guztiak esango, ezta ezagutzen dituela benetan, badakiela nondik atera di-

tuen gizajo mozkorraren kontura obra osoa barre eragin nahian eman duten Don Diego, Don Pedro eta Don Antonio ere, ez zaldun baina bai zaldunahi lotsagabeak.

Egia hori baitzen: herri xeheari burla egiteko ez da jauntxorik behar antzeztokian, nahikoa da arlote irrigarri bat.

Baina ez zion horrelakorik aipatuko. Peñafloridak arrazoi sendoak zituen pozik egoteko. Gustatu zen *El borracho burlado* Bergaran ere, eta txalo-hots luzez, bibaka hartu zuten kondea antzezlana amaituta aktoreen berora oholtza gainera igo zenean.

– Nik azaldu nahi dudana zera da, nolako kaltea egiten duen edanak gure artean, nola hondatzen dituen familiak ezer egin gabe egote horrek.

Eten egin zuen jarduna Peñafloridak Esteban haren ondotik pasatzean. Obra goratzen zuen jendez inguratuta egonagatik, argi egin zion diosala ordukoan, eskuak sorbalda gainean jarrita.

– Hauxe da nire bizargile-zirujaua.

Giro zegoen. Zaparradak arindua zuen iraileko arratsalde astuna.

– Eta zuri, zer iruditu zaizu, Esteban?

Hamaika begi zituen zain.

– Pozik egoteko motibo franko duzula.

Kondearen jakako oihal berriaren usaina ere berdea zen. Barre-antzean erantzun zioten inguruan zituenek. Gerora jakingo zuen gau hartan bertan hil zela haietako jaun bat, Oñatira bidean bihotzekoak jota.

Iluntzean bertan ekin zioten etxerako bideari, hiru zalgurditan. Peñafloridako kondeak aurrez hitz emanda bezala, atzekoan egin zioten tokia Estebani, Narrosko markesaren mirabe baten eta antzezlaneko arropak gordetzen zituen baul baten artean. Jauzi zakarra egiten zuen orgak bideko zulo bakoitzean.

Kantu ezagun bat heldu zitzaion ilunpetan. Aurreko orgetatik, jaun-andreen aireak zekartzan gauak:

Ai, niri zer egin ote zat!
Oinez ibilten ahaztu zat.
Burua jaso ezin det,
Iurra ediro ezin det.

Burua beste baul txikiago baten gainean etzanda zihoan otseina.

Triste det bihotza guztiz.
Edan dezadan ea berriz.

Goratu eta opil zati bat eskaini zion Estebani.

– Hutsa berek ez balute edango...

Zuhaitzen gerizek hartu zizkioten begiak, erregebidea bi aldeetatik zedarritzen. Teresa oheratuta egongo zen, sabaiko gapirioetan galdua soa:

– Ez zara inoiz beretakoa izango.

Orain, akorduaren poderioz iluntze hura oilaritea bezala argitzen datorkiola, ez daki esaten non izan zen, zer paretan sentitu zituen aho-uhalen hotsak, zaldi-behorren irrintziak eta gurdien krakatekoak, loeroa erabat hautsi ziotenak. Atea zabaldu zuenerako kanpoan ziren beste orga bietakoak. Narrosko markesaren ahotsa ezagutu zuen fardel gainera igoak ziren itzalei aginduak ematen. Itsumustuan hurreratu zen, begiak ilunpera egin zitzaizkion arte. Oskarbi zegoen, hiruzpalau egun falta ziren artean ilargi beterako.

Arin erori ziren fardelak behegainera.

Kriseiluak ziren, hegan egiteko pentsatutako argiak.

Harritu egin zuen egiturak, lau beso zotzezko uztai batek inguratuak. Makilatxo batzuk lotu zitzaizkien gero, goraka, oinarrian bezalako beste uztai batez zarratzeko goitik. Inoiz ikusi gabea zen paper mehe

batez bildu zuten dena, behetik libre uzteko. Orduan entzun zuen.

– Txinatik ekarria da gero!

– Baina hauek veneziarrak dira. Ez da han festarik hauerik gabe.

Beheko uztaiaren erdian goata lotzen zutela ikusi zuen, alkohola izan zitekeen likido batean bustitako mataza bat. Begi bistakoa zen, ez zuten aurreneko aldia. Bigarrena eta hirugarrena, azkarrago muntatu zituzten. Laugarrena egiteko zotzak, ez ziren inon ageri, eta hala gelditu zen, asmo huts.

Peñafloridako kondea izan zen isiltasuna eskatu zuena.

– Orain denok eskatu desio bana.

Larrearen erdian, biribilean zeuden denak, izarpean. Basa-belarren usaina alkoholarekin nahasi zen. Uda bazihoan eta Estebanek Teresa ez zebilela zeharo oker pentsatu zuen lipar batez.

Narrosko markesa makurtu zen, su txikia eskuan.

– Gugatik!

Portzelanazkoak balira bezala hartu zituzten eta besoak luzatuta igo. Astiro, hiru faroltxoek goraka ekin zioten, haizeak doi bat ezpondarantz bultzatuta.

Hasperen egin zuen kondearen alaba nagusiak hirugarrenak zuhaitz gandorrak gainditu zituenean.

Azalean ia nabaritzen ez zen pirrinta.

Desio bat. Pentsatzeko gai izan ez zena.

Hiru argi dardarati gero eta gorago, begiek, jakizu non, betiko galdu zituzten arte.

Zortzi

Argiak ez zeuden geldian, ez ziren hiru. Eta ez zihoazen zeru bidean.

Oskarbiak irentsi zituen txinatar faroltxoak baino, erabateko argitasuna zen Esteban Alberdi betazal itxiez bestalde sumatzen hasi zena. Norbaitek begiak ezin asma zezakeen zerbaitez igurtzi izan balizkio bezala. Ukendua. Edo gelen bat. Zuri garbia ez zena. Aldika urdinkara egiten zena, elektrikoa, gas tankerakoa, azken aldian tabernetan kopa handi zabaletara isurtzen ikusi izan zuen gin horien antzeko zerbait, biziagoa agian. Izen arrotzak ekartzen ahalegindu zen ahanzturaren apalategitik: Bombay Sapphire, Southport, The London number 1.

Non arraio nago. Ezaguna zitzaion egoera hura. Gauetako autobusak. Begiak bilduta zoazela, dena da ia perfektoa itzarririk zaudela ere, salbu eta ezinegona, tarteka azterka sentitzen duzuna. Autobus guztian zeu bakarrik baitzoaz esna, eta hasieran ez, baina ibilia atzean utzi arau, ezinegona handitzen doakizu. Baina ondo zoaz artean, antifazik gabe, ilunari neurria hartuta. Isildu dira azken bidaiariak, amatatu du txo-

ferrak irratia. Eta bazoaz, bazoazte, gauari takada handia kendu diozula ustez. Halako batean abiadura moteldu du nabarmen, suspentsioak ibilgailuaren hezurdura nola moldatzen duen sentitzen da. Gurpilak astabizkar baten gainetik igaro dira, franko ugaritu dira azkenaldian errepideetan galipotezko konkorrok. Erabakia duzu begiak ez zabaltzea, etsitzea litzateke. Badakizu zer datorren orain, herri bat, geldialdi bat beharbada, ateak zabaltzea eta jendearen sartu-irtena auskalo norako bidean, gora batzuk, behera beste batzuk, jakizu zer bebarru zabaltzeko gauerdian, zer etxetan lo egiteko noren ondoan. Baina ordurako, argia. Ateen hotsak baino lehenago argiak iratzartzen zaitu beti gaueko autobusa hartzen duzun aldiro, kaleko farolak dira, umerik gabeko plaza beti goibel batekoak, gau osoan piztuta uztea erabaki duen denda bat, edozerk du argia argirik behar ez denean.

Autobus batean zihoan? Nora baina?

Argi hori sumatu zuen Estebanek betazalen bestaldean, edo antzekoa. Ate bat ere zabaldu zen, ia seguru zegoen, ez zen maleta garraiorik baina inguruko aulkietan. Kolpetik, esku bat besaurrearen gainean. Masailean gero. Epela, erpuru gozokoa, Estebanek ulertzen ez zuen zerbait zioena betazalak zabaltzen

zizkion artean. Gero, isiltasun erabatekoa, argitasunik gabeko isiltasun luze bat, autobusaren ibili gozoa errepide lasaian aurrera, nekeak mankatua, berak ere azkenean lo hartu izan zuenean bezala.

– Esteban, entzuten didazu?

Aditu orduko ezagutu zuen usaina. Ustez jabea jarria zion ahotsa, bere izenez galdezka. Bakarrik ez zegoen ahotsa. Aginduak ematen zituena. Hiruzpalau ahots, gizon zein emakumeenak gurditxoen garraioan, metalezko objektuekin batetik besterakoan zetozenak, bazihoazenak, kontu handiz heldu eta erosoago jartzen zutenak, tenperatura egokia. Ez nago eserita, ohe batean nago, pentsatu zuen Estebanek. Arnasa garbiagoa zuen. Eta usain hori, irail gauerdi batean Bergara eta Azkoitia arteko zelai batekoa ez dena. Antigoalekoa ez dena.

Non nago.

– Zu lasai, Esteban.

Atzera hitz horiek, kontratua etetea erabaki zuela jakinarazi zitzaionean enpresak esan zizkion hiru hitz horiexek. Zu lasai, Esteban, inor behar badugu zu izango zara deituko dugun aurrena. Hiru urte pasa. Eta jo zuten. Berea ez zen telefono batera.

Ametsa izan da orduan dena. Bergarakoa, Peñafloridarena, zelaietan aireratutako hiru faroltxoena.

– Zu lasai, Esteban. Aterako zaitugu hemendik.

Ospitale usaina. Seguru zegoen, aldetik ezin ken daitekeen horietakoa baita ospitaletakoa. Zaborrarena bezala. Ozalearena bezala. Arratoi hatsarena beren atzetik zabiltzala bila, ile eta guztiko urrina sudur mintzetatik erraietaraino, eztarrian barrena. Eta orain bazekien, usainak deituta zekien non zegoen, itzulia zela, deitu ziotela berriro, zergatik ez bazekien ere.

Nik ere, ez da hainbeste, hemen lan egiten nuen, diotso betazalen bestaldean astiro mugitzen zen itzalari, hona etortzen nintzen egunero ospitaleak sortzen duen zaborra eramatera. Eta ez naiz bulegoetako paper zaharrez ari, ez ditut gogoan bisitariek zakarrontzietara botatzen dituzten ogitarteko hondarrak, platano maskalduak, patata frijitu koipetsuen zorro hutsak. Ni nintzen kirofanoetako hondarrak hartu, sailkatu eta bakoitza bere ontzian ospitaletik kanpora ateratzen zituena.

Ostera ere begiak zarratu zizkion gizonaren ahotsa.

Ez, garbitzaileak behegaina pasatzen du, erratza, lanbasa, komunak. Karrajoak garbitzen ditu, ohe az-

piak, telebista gainak. Oinen artean dabil makurtuta, barkamen eske ematen du eguna goragokoek eman dioten lana bete ahal izateko. Gaixoak erakusten duena baino estimu handiagoan duen lanbidea du, eta honek ezin badu, gaua egin dion senideak eskertuko dio, edo bisitan joan zaion lagunak, nik dakit ba. Ikusten den lana da garbitzailearena. Dezente hobetu da osasun publikoa azken urteetan, hori entzungo duzu nonahi. Hori dioena ez da hainbeste medikuen profesionaltasunaz ari, gaixoa nola artatzen den du gogoan. Orain artean eriak tratuari behar baino gehiago erreparatu izan baitio. Babesik eza da, galduta dago ezagutzen ez duen esku batzuen mendean. Babesgabe dagoelako eskertzen du neurriz kanpo erizainen irribarrea, garbitzailearen galdera lehen argi printzak leihotik sartzen direnean: zer, gau ona pasa duzu?

Dena dago puztua salduta dagoenarentzat, txarra bezalaxe ona.

Salduta. Bakarrik. Oraintxe datorkio irudia, bertatik.

Beste gizonezko baten ahotsa ondo dagoen galdetzen. Lo egin nahi du. Ertzainen autoen sirena. Argi urdinak, beroagoak gero. Masaila espaloi zikinaren kon-

tra. Zerbait jarri diote buru azpian. Jertse bat. Odol hariaren beroa belarri ertzetik ezpainetara.

– Edanda al dago?

Horregatik diot, segitu zuen, ez nintzela garbitzailea. Esker on handirik gabeko urteak izan dira hemen edo antzeko toki batean eman ditudanak. Ez zegozkidanak ere egin behar izan ditut, zaborra ez duzuelako ondo sailkatua uzten beti, presaka zabiltzatelako, kostatu egiten delako minbiziak jandako gibel bat eta gasa odoldu bat bereiztea, kontainerrak behartzea ez delako hain zaila. Guk ikasi behar izan genuen, lana izango bazen. Hondakin ebakitzaileak edo zorrotzak, behin bakarrik erabili beharreko ontzi zurrunera. Zenbat aldiz. Gainontzekoa, bakoitzari dagokion kolorekora, ondo itxitako poltsetan. Toki onean. Horira gasak, bendak, konpresa erabiliak, igeltsuak, gorotzak, isuriak, arropak. Berdera ikerketako hondarrak, txertoak, erabili gabeko odol ontziak, dialisi hondarrak. Gorrira hondakin kimikoak, zitostatikoak, botika iraungiak. Fotokimikoak, urdinera zuzenean. Giza hondakinak, aparte. Erradioaktiboak, aparte. Zenbat aldiz. Beltzerakoa izan ohi zen erosoena, bazkari kondarrak, kafetegikoak, garbiena azken beltzean.

– Koman dago?

Galdetzen entzun zion denen buru zirudien medikuari, ikaragarria dela buruan duen kolpea, miraria dela bizirik egotea.

– Entzun, ez dut uste ezer entzuten duenik. Hala ere, ez da komeni bere aurrean hitz egiterik.

Betazalen bestaldean irudiak ahultzen zihoazen. Ume zenean bezala, titiritero familia hura heltzen zenean herrira. Itzalen joan-etorria argiak itzalitako plaza betean alderik alde eskegitako izararen atzean.

– Etxekoak deituta al daude?

– Bakarrik bizi da, antza.

Izara irudirik gabe geratzen zen arte. Erabateko isiltasuna. Eta ginebra urdina, izotz artean igeri.

Bederatzi

Mando-loa izan da Estebanena.

Behar dena harri bat uretara botatzeko eta ikusteko nola hondoratzen den aingira-belarrezko ore nardagarrian. Begiak zabaldu dituenean ez du Teresarik ikusi. Izarak baztertu eta ohetik altxatu gabe deitu dio. Berehala entzun du pauso txikien hotsa hurreratzen. Eta grazia egiten dio oraindik ere emaztearen irribarrea ikustea ilobaren aurpegian. Zer den odolaren indarra.

– Plazan dela esateko esan dit izebak.

Jaitsi zaio sukarra. Presarik gabe kalerako jantzi eta prestatua utzia dioten platerkada baba jan du leihoaren argitan. Egur errearen usaina dakar haizeak. Badatoz enarak teilatu gainetan zirriborroak egitera. Platera uretan utzi eta kamamila-ura edan du gainetik. Bi ogi erreguta ditu mahai gainean, Teresak moztuak.

Kaletik heltzen zaion zaratarengatik, apaldu da itxura batean eguerdiko giroa.

Etorri behar zuen, eta hemen da, esan du bere bostean.

Ez dabil oker. Alez zamatutako astoen bahikuntza ez da hasiera besterik izan.

Narrosko markesa aztoratuta dabil ordurako. Ez du ahaztua ordu batzuk lehenago Olaskoaga erretoreari agindu diona, pasatuko dela Leturiondoko andrearekin hitz egitera, baina ez hurrengo eguna arte. Lasaitzeko dena den giroa. Denbora behar du. Beste zerbait baitarabil gogoan markesak. Nola erabat itzali itxura batera errauts artean lo dagoen garra. Eta horretarako, jabetzen da egoeraz, bera bakarrik ez da nahikoa.

Areitzagaren etxera jo du lehenbizi. Ez alferrik. Kalera irtenda dabilela jakinarazi diote atarira hurreratu orduko. Azpeitira jotzea pasatu zaio burutik, korrejidorea etxean izango da bera iristerako. Gaitz erdi. Dudarik gabe, han dago behar duen laguntza. Seguru dago korrejidorea eta Diputazioaren txanda Azpeitian suertatzeak lagundu egingo duela aztoratzaileekikoa zelaitzen.

Zerua zikintzen hasia da mendebaldetik Errebaleko bidea hartu duenean Narrosek. Zumarren gerizpetan egin du azken etxeetatik aurrerakoa. Bidea zedarritzen duen hormaren bestaldean, sagarrondo nekatuak agertu zaizkio. Hazita dator ibaia azken zaparra-

dekin. Eskerrak presa indartu zuten iazko udan, Aranagako harrobitik ekarritako harri berriak erantsita antaparan. Ura urari bide ematen arroan behera egiteko. Gauzen neurrian pentsatu du, ez dela erraza beti asmatzea. Plazako gertaerari ere, ez dagokion itzala eman dio beharbada bere baitan. Hanpatu egin du akaso, baliteke buruan darabilen erdiaren laurdenik ere ez izatea benetan gertatu dena. Olaskoaga erretoreak igandeko mezatan berotutako lau txoro, zer da ba hori. Edonola ere, badu konfiantza Enparan diputatuarengan proposamena egiteko.

– Eguerdi on.

Ezustean agertu zaizkio bi gizonak bidera, uztartu gabeko idi parea dutela atzetik, itxura batera karga burdinolan utzita. Diosala egin die markesak, ez lasaiegi ere. Ez diote agurrik itzuli paretik igaro zaizkionean.

Begirasuna izan da, halarik ere, ezinegona eragin diona. Ugarteko zubira heldu denean, taldetxo handiago batekin errepikatu zaio bi gizonena.

– Bakar batek ez du kapela erantzi agurtzeko –esan dio Areitzagari aurkitu orduko.

Orduantxe hartu omen du egindako bidea desibiltzeko erabakia. Narrosko markesaren hitzak dira,

beren solasarekin urrun daitezen itxaron du. Ez du aurrerantz segitzeko adorerik batu. Sasi artean txiza egin eta herrirantz jo du berriz ere.

Hiru iturrietan du zain Areitzaga, petril batean bermatua.

– Aranarenean daude.

Hitz egiteko moduko aldra aurkitu du Narrosko markesak Isidro Aranaren etxean. Denek agurtu dute atetik, Areitzaga eta biak sartu direnean. Espero dituenak daude bertan, Mendarorako zama atzerarazi duten guztiak tartean. Harritu da Olaskoaga erretorea ez ikusita. Sartu orduko eskaini diote aulkia. Ez du hartu. Luzaro ez egoteko erabakiarekin joana da Narros. Nahiago tente.

– Ea azkar konpontzen dugun, estu nabil denboraz.

– Estu zu?

Mateo Garate izan da aurrena hitza hartzen. Dardara arin bat du ezpainetan:

– Horrela ezin bizi gaitezke. Irabazten dugunarekin ezin diegu seme-alabei jaten eman.

Hasperen egin du markesak. Zergatik ez dituzten leihoak zabaltzen, itoa dago giroa. Sartu aurretik jakin du zer eskatuko dioten, hala jakinarazi dio Areitzagari

hau topatu orduko. Mukertuta dabiltza. Erantzuna pentsatzeko astia izan du, eta halarik ere, nahiago izan du isilunea ahalik eta gehien luzatu, ia eten den arte.

– Merkatu behar duzue alea. Ondo dakizue hori.

Hizketan hasi denean ezagutu du Migel Pepelloko. Umetatik izan da beroa gizajoa. Gainera, kaletik dakar erabakia hartuta: Garateren begiei hitz egingo die.

– Ondo da. Jarri zeuek prezioa.

Untxia lakioan bezala harrapatu dituela sentitu du. Ez Garatek ez inork ez ditu hitzok espero izan. Orain-txe du aurrea hartzeko aukera.

– Gauza bat egingo dugu. Abuztu arte, 30 erreale-ra jaitsiko dugu gari anega, eta 26ra artoa. Ondo?

Baietz egin du buruaz Garatek.

Neurria, dena da neurri kontua, errepikatu du bere artean Narrosek.

Atalasean daude Areitzaga eta bera, ordu arte isi-lik egon den ahotsa entzun dutenean. Ahots zilarra du Juan Bautista Urretak.

– Kontu gero. Azkenengo odol tanta eman behar bada, hemen bat.

Urrats azarriz irten dira gelatik. Zertara datoz es-pantuzko erronka horiek. Zatartzen ari da dena, aitor-

tu dio Areitzagari elkar agurtu aurretik. Gose da, bazkaldu gabe dago oraindik.

Bazkaria liburutegira eramateko eskatu du sukaldean Narrosko markesak, han aurkituko dute Diputaziora gutuna idazten. Azaldu behar dio gauzak nola dauden Azkoitian, zer gertatu den Leturiondoko zamaren bahiketarekin, Azpeitian jakin behar dute zer akordiotara heldu den bera Garaterekin. Ahal bezain labur kontatu dizkio eguerdi osterakoak Enparan diputatuari, bai berak eta bai Barreda korrejidoreak erabaki dezaten zer egin. Morroia bidali du eskutitzarekin zaldi azkarrena hartzeko aginduta.

Ez dira hiru ordu pasatu bila etorri zaizkionean berriz. Baraila dabil atzera ere Aranaren etxean, hala diote ate ondoan pilaturik azaldu zaizkion Olaskoaga erretoreak, Areitzagak eta Hurtadok, oihuak entzuten direla barrenean, kaletik ere aditzen diren beldurtzeko zaratak. Hango gorri hotsa, danbateko festa eta aulkien batetik besterakoa tatarrez, zer ez. Itzul dadila eskatu diote arrenka, lasaitu beharra dauzkala piztia haiek. Irteten ari direla Lertsundi elkartu zaie atarian. Egibar-etxean zegoen markesaren aitarekin, Ignacia Michaela Corral Conde de Gendulain eta beste

batzuekin Azkoitiko gertaeren berri izan duenean. Albait arinen heldua dela, edozertan laguntzeko.

Aranaren etxerantz doazela aurkitu ditu guztiak Teresak.

– Markes jauna...

Bila zebilkion.

– Zeure etxetik nator. Ez didate garia 38an baino merkeago ematen.

Nabarmenkiro zimurtu du bekokia Narrosek, emakumearen soinean utzi du labaintzen begirada, etxean egon dela oraintxe arte, nola litekeen, ez diotela ezer esan morroiek.

– Hori jendeari zipotza sartzea da.

– Ez, Teresa, ez...

Estu plantak egin ditu, zain ditu beste jaunak aurreraxeago, eskuarekin mugitzeko esaka, presa duela Aranaren etxekoak.

– Hori da erabaki duguna ez delako oraindik jende aurrera atera.

– Nik zer egin behar dut orain?

Anega bategatik gogor jarrita dena errekara botatzeko arriskua dagoela atera du kontua lipar batez. Garaiz dago oraindik auzia bideratzeko. Hori da Aranaren etxean egingo duena, Barreda korrejidorearen eta

Enparan diputatuaren erantzuna Azpeititik iritsi bitartean. Bideratu, piztia haiek pixka bat gozatu eta, ahal duela, terreina bete ur bota errauts arteko gar gero eta biziago hari.

– Gauza bat egingo dugu, Teresa. Zoaz atzera gure etxera eta esan nirekin egon zarela, saltzeko prezio berrian.

Zalantzan, zer esan ez dakiela gelditu da emakumea. Zain dituen lagunengana abiatua da Narrosko markesa, giltza egin eta aurrea hartu dionean:

– Begira, Teresa, doan ere bai nahi baduzu, zeu zarelako.

Ez du euririk egingo. Hodeiak zeru-gaina urratuz doaz.

Hamar

Narrosko markesaren eskutitza irakurtzen ari dela, hiru egun lehenago jasotako anonimoa etorri zaio gogora Joseph Joaquin Enparan Gipuzkoako diputatu nagusiari.

Altunaneko karreran agertu zen, eta hasieratik hartu zion usaina. Bertan esaten direnengatik ez ezik, esateko eragatik eta sinadura ere falta duelako. Liburutegiko mahaian du, *Testament politique du Cardinal Jules Alberoni*-ren ale baten orri artean sartua.

Narrosena utzi eta silaba bakoitza astiro murtxukatuz leitu du Enparanek berriro ere izenpetu gabeko izkribua, hartutako lanari gerora emendioa aterako diola sinistuta.

Hobeto aditzera emateko eskribitzen dut euskaraz.

Azpeitiko jaun guztiek adi ezazue hau ondo, baina egin bezate honek dioena, bestela galduak gara-eta. Bilatzen dituzten kaballero edo jaunak ere, bi falta dira, zergatik txit kontrarioa zen jendea ere hil omen dute gizon edo matxino horiek, eta neu ere larri egon

naiz. Dozena bat gizonek hartu naute erdian, erabili naute joka estokadaka. Azkenean nabajarekin belarria ere ia kendu zidaten. Ditudanak ere agertu eta nabaja batez puska bat kendu zidaten, eta oraindik ere ezin txiza egin dudala nago. Medikuek kuratzen didatela eta esan zidaten. Hemendik dozena bat eta erdi egun baino lehenago pasako zela beste pesta hori Azpeitian eta Ziudade honetan jende hau mudatzen ez bazen, edo gauzak honela behar badu, honela esan zidaten. Eta hemen dabiltza asko txit berriak jakiten zein diren kontrarioak. Orain da bulizioa hemen. Txit agiz, hiru mila gizon omen daude plantaturik, eta Azpeitirako ere, mila ete berrehun omen daude. Eta dabiltza eskean balebiltza bezala berriak jakiten, baita hor ere. Bidaldu nuen mutil bat hor ote zen buliziorik, eta zioen mutilak edo pajeak haiek jo zituzten bi, hantxe zebiltzala, berriak jakiten. Jaunak, arren, garia eta artoa merketu behar dituzte, 24 ogia fanega, eta artoa 16 erreal fanega. Agur jauna, ez ditut esan nahi guztiak. Para todos los Señores de Azpeitia, a 9 de abril de 1766.

Gutuna tolestu, eta Alberoniren liburuan gorde du atzera ere.

Hamaika

– Jai ederra zaukatek beldurtuko gaituztelakoan badaude.

Anonimoak errezelo zaharrak aireratu zituen. Umetatik ezagutu izan duten geriza da, gurasoei halaxe ikasia, gertatuko zela egunen batean matxinoak zarata batean hastea. Lerroetan kontatzen denak ezer gutxi du egiatik, ordea; eta batzuek nahi aldean asko berotik. Hazita dabiltza, izutu egin nahi dituzte. Zer da labanen kontu hori belarri ertzak eta zakil azalak ebakitzen. Halako itsuskeriarik. Probintzia osoan ez da ordu arte gutunean kontatzen den beldurgarrikeriarik gertatu, hori badakite. Eta eskatzen diren salneurri berriek gehiago dute txakur-ametsetik beste ezeretik baino.

Bila hasi eta ez zaie nekeza egin egilea topatzea. Nahikoa izan da norbait Bikuñarenean idazkari ikasten zebilen gazteaz akordatzea. Mutila bera ez da gauza, hori garbi dute, bere kasa halakorik idazteko. Bitartekoa besterik ez da izan: ezinikusiaren esku hutsa paper gainean. Nork diktatu dion da oraindik atera ez diotena.

– Erakutsiek, gero horrela ordaintzeko.

Ez da hori, baina, apirilaren 14ko bazkaloste apalean Enparan diputatuaren gogoa nahastu duena. Azkoitikoa zabaltzera, amenazu-gutunean aipatzen diren hamar-hamabi egunak atarian dituzte. Ez dira hiru egun besterik igaro jaso dutenetik. Denak dabiltza pentsatu aldean azkar. Azkarrago ibili beharra dago gaitza etengo bada.

Korrejidorearen etxetik pasatu eta Narrosko markesaren morroiari erantzuna eman orduko abiatu dira kontzejurantz. Basazabal alkatearen giltzak zabaldu du morroiloa emandako atea. Eskopetak eskuz esku doaz. Balak, perdigoiak eta bolbora bilkura-aretoko mahai gainean. Gaztaina-egurraren urrina.

Enparan diputatuaren ahotsak beso presatuen gainetik eman du agindua.

– Abisua eman beharra dago jendeari!

Deitu izan da baten baten lehen ere. Kaletarrek ez dutela gehiegi lagunduko, jakinekoa zen. Errezelo hori dute lehendik ere. Maiorazkoetako baserrietara jotzea erabaki da. Hor daukate jendea, maiztertzak dakarren kate motxa. Berehala antolatu da Urrestillara joango den saila.

– Loiolara!

Kolegioa eraikitzen ari diren harginak, arotzak, teilagileak, errementariak, morterogileak, horra inon bada jende prestua herriaren defentsarako, lanak zaildua, beldurrik gabea. Aho batez erabaki da: joan beharra dago Loiolako obretara ere. Kanpotarraren mamua erabiliko da izua zabaltzeko. Berehala bildu beharra dagoela esango zaie, azkoitiarrak datozela herriari erasotzera. Lupua ohean dutela. Su emango omen diete etxeei, zer ez ote dute egingo emakumeekin, gorrotoz hordi, xakel zaharrok.

Fusila uhaletik zintzilik, Nicolas Altuna izan da Bikuñaneko idazkarigaiaren letrei probetxu atera diena:

– Labanak? Etortzea daukate zorroztera!

Areto nagusian, algara lehertu da urduritasunaren erdian.

Begira egon gabe antolatu dira partida biak. Txikiena, Altunarena eta Basazabal alkatearena, kontzeju azpiko arkupeetan gelditu da, zer gertatuko. Urrestillako maizterren zain, ardoa atera da herriko etxeko sototik, animoak pizteko eta defendatzaileak erosteko. Atoan bete da Goikokalea ume jakin-gosez Azkoitirantz abantatu direnak ikusteko. Txirringak isildu egin dira. Ama bat alabari deika, igotzeko etxera. Diputatu nagusia, honen ondoko Iturriaga bi semerekin,

Garmendia idazkaria, Enparango peoiak, denak doaz tropelean. Zerura begira daramatzaten eskopetek are ikusgarriagoa egiten dute aldra. Morroietako batek arma sorbaldan bermatu eta erreteilatik hegaldatu den usapaletako bati tiro egiteko planta egin du.

Enparanek begirasuna: gorde ezak hori.

Ferra-hotsa etxe atarietako lauza jarri berrietan.

Artzubian agurtu dituzte Loiolarakoak.

– Ea mordotxo bat ekartzen duzuen.

Egibar etxera heldu aurretixe gelditu dira, intxaurrondoen itzalean.

Arratsaldeak jana dio egunari zatia. Zaparrada oparoak neurrian eta argialdiak, udaberri ederra ari zuen. Atsegina egiten da bidea behorren trosta sosegatuan. Azkazal ukaldien artean, ttirritten erasoa ezpondetako ezkutalekuetatik. Soroetan, nekazariak baba-landareak mozten ari dira, lehenbiziko lorea gal ez dezaten. Basazabal alkatearen agindua garbia da. Loiolako erretoreari eskatu behar zaizkio gizonak, ez beraiei zuzenean. Horrela lortuko da lortzekotan nahi dena, ez bestela.

Bi gizon bidali dira aurretik, Agote zinegotzia eta Basazabal alkatearen morroietako bat. Heldu direnean, egunen batean jesuiten kolegioko sabaia eder-

tuko duten habeetako batean lotuko ditu morroiak bien zamariak.

Esan bezalaxe bete da agindua.

Itxaroteko kanpoan.

Izarraitz gorritua eguzki etzanaren argitan.

– Zer uste duzu esango dutela?

– Asmaizu.

Basilikak lortutako ospearen argitan, abiada bizian ari dira jasotzen ibai aldeko hegala. Eraikin handia da, jesuitagai franko hartzeko modukoa. Baina kare haitzak lana du, ekarri beharra dago menditik, astuna da, denbora behar da pikatzeko, ez da buztina, ez da kostaldeko hareharri biguna erabili dutena Erroma txiki bat sortzeko mendi arte honetan.

Jakako botoi urrekarak lotu ditu Agote zinegotziak.

Luze gabe atera da aita Mendizabal mailadira obrako ofizialekin. Plazan pikaketan ari diren harginak isilarazi ditu. Morroia izan da, eta ez zinegotzia, aurrez hitz eginda zuten bezala, Basazabal alkatearen izenean eskaera egin diona.

Ahapeka hitz egin du ofizial beltzaranak:

– Azkoitiarrek bakarrik ez, denok nahi dugu alea merkeago.

Agotek, kukulumuxu, urduri astindu du bidean jasotako belar izpia hortz artean.

– Besteok?

Isiltasunak hego haizearen zama du. Jardun betean baino gehiago kostatzen da hitza hartzea.

– Zer irabazten dugu Azpeitira joanda?

– Bakea.

Zinegotziaren zizpa zaharra da oso. Ez du oilagorretarako balio, pentsatu du beltzaranak.

– Baketik osatuta gaude lehen ere. Alea behar dugu, erosteko moduan.

Irrintzi egin du morroiaren zaldiak.

– Orduan zer?

Zutitu egin da, den bezain luze. Taketa da gizona.

– Ezin dela garbiago hitz egin iruditzen zait. Ez espero hemengo inork zuek defenditzerik.

Eta tu egin du Agotek ondoan duen harri landuaren gainera. Txistu berdexka bat, harri-hautsarekin berehala nahastu dena. Ernegatzen hasita dago aita Mendizabalen isiltasunarekin.

– Ez zatozte orduan?

Ez entzunarena egin du beltzaranak. Hauek ofizialak badira nolakoak ote dira peoiak, pasatu zaio buru-

tik Agoteri. Ni behintzat ahalegindu naiz esaten moduan harrotu ditu sorbaldak aita Mendizabalek.

– Negarrik ez gero burutik egindako horiek etxeak erretzen badizkizuete.

Zinegotziaren behor zuria askatu du morroiak habetik. Eskura eman dizkio uhalak.

Beltzaranak ez, elkarrekin egon diren tartean aldamenetik begirik kendu gabe izan duen ezkelak bota du agurrekoa:

– Eta esaiozu Basazabali, gauzak honela badaude, Azpeitiaren alde ez, Azpeitiaren kontra joango garela.

Hamabi

– Hori dauka txarra ehizak, piezarik ezean aspertu beharra dagoela.

Enparan diputatuak denbora darama laguntza-eskearen kontuari bueltaka. Ez daki garbi zergatik, baina susmoak hartuta dabil alferrik atera dituztela zizpak udal armategitik. Kontuak egin ditu, berak eman beharko du aurpegia Loiolako harginen aurrean Agote agertzen denean. Ez zaio gozoa egiten aitortu beharra ez dutela zer defenditu, esan beharra urduritasunak eragin duela nahasmena, zarata bai galanki, baina ez dela ezer atera, sarraski gaineko eltxoak baino ez direla airatu sastraka artetik eta itzultzeko lanera.

Alde horretatik, begira, nahiena matxino parrastada bat behintzat agertzea lotsagarri ez gelditzeko, pentsatu du.

– Esan dizut, hemen ez dago untxirik.

Diruak kezkatzen du Enparan. Damu du azkarregi izutu izana, seguru baitago Azkoitiko sua itzalia duela Narrosko markesak, edo txarrenean, ez dela Azpeiti-

raino helduko. Ez gaur, behintzat. Bestela egin behar ziren gauzak. Orain beranduegi da akaso.

– Ez untxi eta ez birigarrorik, kaka zotzean!

Garmendia izan da, nor bestela. Umoreko dago gizona. Enparan diputatuak badaki gustura botako lituzkeela pare bat tiro, kapela zikinen bat aireratzeko badarik ere. Begitan hartuak ditu azken aldian giroa berotzen aritu diren dozena erdi bat andra-gizon. Idazkariak berak esanda daki Enparanek hori.

– Harginak ez zaizkigu doan etorriko, eman beharko diegu tripazorriak akabatzeko ttanttana.

Berak esan eta berak barre Garmendia ergelak. Urrestildarrak aipatu ditu, ez ahazteko haiekin. Sos gehiago atera beharra kutxatik.

Aparte batean jesarri da Enparan ezponda gainean, bailarara begira. Oinetakoak erantzi ditu. Estutu egiten diote orpo gainean. Babaren hasiera gozatu du erpuru lodiez.

– Basazabal urduriegi dabil.

– Zaude lasai, laster izango duzu zuk ere nori tira.

Loiolara bidalitako biak karobitik pasatu direnean egin du oihu beheragotik Altunaren morroietako batek, badatozela, hemen direla. Presaka altxatu da,

oinetakoa erdi jantzian. Bidera jo dute denek, begiak luze.

– Zein datoz?

Harginekin izandako elkarrizketa berregin du Agote sindikoak taldera bildu orduko. Hitzez hitz berregin du kolegioko obran gertatutakoa, errepikatu ditu berari zer erantzun dioten, eta nola, ze harro gainera berak. Enfasian ez da zintzoa izan, baina hori ez da gezurra izatera iristen, pentsatu du lipar batez. Aukeran, jesuita atera da ondo hain gaizki portatuta. Enparanek nor izan diren galdetu dionean ez da gauza izan askorik esateko, izen bat edo beste atera zaio, ez oso seguru ere. Irribarre gaiztoa sumatu uste izan du Garmendia idazkariaren begietan. Morroiak lagundu dio beltzaranaren amenazua ez ahazten.

Azpeitira itzulita dena hasieratik kontatu behar izan denean, Garmendia bera izan da Agoteri kontakizuna osatzen lagundu diona. Etxeratzeko agindua emana da. Giltzapean gorde dira ostera ere armak, balak, perdigoiak eta bolbora-poltsa guztiak.

– Gaur ez da hona kristaurik etorriko.

Basazabal alkateak ez duen irmotasunez hitz egiten du Enparan diputatuak. Balkoira ateratzeko egin

dio gonbita, besaurreak barandan solastu dira biak, beste guztiak areto nagusian direla.

– Seguru zaude?

– Oraintxe zapata txerri hauek atera dizkidaten babez bakarrik nago seguru.

Harresi eraitsiaren gainean egindako etxearen teilatu hegalean behera labaindu da eguzkia.

– Ezin esan gerizpea beti ederra denik.

– Baina plaza eder bat irabazi dugu.

Zeharka begiratu die biei lixiba lehortua biltzen hasi den neskatxak pareko balkoitik.

– Osorik bagenu...

– Zer, harresia? Gure aurrekoek erabaki bazuten ez zela beharrezkoa, ezin hasiko gara hori lehengoratzen Azkoitian aztoratuta dabiltzalako.

Harresi zaharretik ez da mendebaldeko atea baino gelditzen, dorrerakoa ixten. Artilleriarekin, alferrik dira haizealdi gogor batek botako lituzkeen hormak. Gerraren logika ere, urteak dira aldatu dela. Erabaki egokia izan zen plaza berria murruetatik kanpo egitea, herriak arnasa hartu zuen horrela.

– Harrigarria da nola gertatzen diren gauzak behin eta berriz, ez duzu uste?

– Egundo ez dator ezer berdin.

Aterraldi luzeekin, arratsalde gozoak izan dira azken egunetakoak. Premia ez da makala. Lehortearen ondoren, udaberri ederra ari dira izaten. Iazkoa baino uzta hobea izango da aurtengoa.

– Zuk zer uste duzu, merkatu beharra izango dugula?

Eskua Basazabalen sorbaldan jarri eta alkatearen begietan sartu da Enparan diputatua.

– Hara, aurtengo uzta hobea etortzea besterik ez dut eskatzen. Bakea.

Deitu egin diote barrutik Enparani, diputazioko paper batzuk dituela sinatzeko. Amaitu duenean gaur lo lasai egingo dugu, esan bere artean, eta orduantxe entzutea izan da, gora-goraka datozen, zer dioten ulertzen ez diren ahotsak, urratsen hots presatua eskaileretan gora. Bat-batean zutitu da, sinatu berri dituen paperak batzeko agindu du. Ez du ateraino heltzeko astirik izan. Altunarekin egin du topo, emakume bat duela atzetik sakaka. Andre-gizon oldea datorkie gibelean, barneko inork zirkinik egiterako areto nagusian sartu dena. Zenbat dira? Hamabost, hogei?

Hogeita hiru zenbatu ditu Enparan diputatuak berak, aurreko bueltan denak biribilean jarri direnean areto nagusiko paretaren kontra. Bat gehiago biga-

rren aldiz kontatu dituenean. Lasaitu egin da, ez du armarik ikusi, gangarra besterik ez dakarte, laineza, harro-patsa. Eta astamakilaren bat edo beste. Kontuak egin ditu: nola ez du ezer ikusi Basazabalekin balkoian egon denean, seguru zelatan izan dituztela, zain barrurantz noiz sartuko atea giltzatzeko astirik izan ez zezaten. Zain bazkalondorenetik erne zeuden bi partidak desegiteko, gizonik gehienak etxeratzeko.

Udaletxetik ez aparte ere, ondorioztatu du Enparanek.

Joango natzaizue basurde-zulo horretara, zaudete lasai.

Ez du hori esateko argitu eztarria, ordea. Diputazioak ematen dion ahalmenaz baliatuta, etxera joateko agindu die Enparanek, bihar hitz egingo dutela trankilago.

Oihuak eskailburua hartu du:

– Libratu mutila! Libratu mutila!

Basazabal alkatea izan da lehertu dena:

– Lasaitu denok, lasaitu eta ixo! Gauzak konpontzearen alde gaude hemen denok!

Entzun diotela dirudi, eskuei eraginez lagundu nahi dio ahotsari, banandu egin da azken tropoiloa.

Azken eskaera bat, Altuna besotik helduta duen emakumeari:

– Mutila libratzeko gizona utzi beharko duzue ba bakean...

Altunak berak lasaituko du Basazabal alkatea, ondo dagoela, hasteko hasi beharrekoarekin bakoitza bere etxera ahalik azkarren joateko.

– Zein duzu izena?

Mahaiburutik jaiki gabe galdetu dio Enparan diputatuak denen buru dirudienari, aurkezteko bere burua hitz egiten hasterako.

– Julian Segurola naiz, Akotegikoa.

Aulkia jarri du Garmendia idazkariak mahaiaren aurrean. Bertan esertzeko agindu zaio.

Eta belusa granatez jantzitako aulkian eserita hasi da Akotegi. Trabatu egiten da, hitzak elkarren gainera erortzen zaizkio, erdi bi eginda bezala, baina berehala eten behar izan du. Enparan hurreratu zaio, keinu zakar bat ikusi dio, atzapar bat erasoan buru parean, lepo bizkorrari esker airea jo duena.

– Erantzi kapela alkatearen aurrean zaudenean!

Behar den bezala neurtu gabeko sinua izan da. Atzerantz irristatzen utzi dio aulkiari Akotegik, begiak

sututa harrotu da diputatuaren aurrean, ia ukitzeraino atera du paparra, orain ez da ezinean dabilen gizona.

– Zer alkate eta zer deabru, geu gara alkate orain!

Marmarra orro bihurtu da, lehertu egin dira hogeitaka eztarriak, bakoitza bere herrarekin. Armak hartzea pasatu zaio burutik Basazabali. Arriskutsuegia litzateke.

– Libratu mutila!

Libratu mutila! egiten dute oihu. Altunaren etxean agertutako gutun anonimoa dela kausa atxilotuta dutenarengatik ari dira, Bikuñaren etxean idazkari ikasten ibili den urrestildar gaztea nahi dute aske.

Libratu mutila! entzun uste izan diote Basazabalek, Enparanek eta Garmendiak Nicolas Altunari, orain emakumeak bakarrik ez, beste hiruzpalau gizonek ere estu hartuta duten Altunari, libratu mutila, esku kakotu bat duela lepazamarraren bueltan.

Hamahiru

Itzal bat hil zenuela, hala esango dute mihi gaiztoek, Teresa.

Aitonen seme bati hil zeniola itzala, gerizarik gabe utzi zenuela kontzejuko iskanbiletan Manuel Altunak gibelka egin zuenean ate ondora, ohartu gabe zuek zeundetela atzean, han aurkituko zuela zure besondoa, arin batean papar paretik pasatuko zitzaiona. Hamaikatan laztandu izan nauen eskua Altunaren lepazamarrean kakotua, iltzeak zure azazkalak haren azal zurbilean, erpuruak zintzur-sagarra mintzeraino estutzen. Doi iristen zinen burua harrotzera haren sorbalda behartuaren gainetik, baina han zeunden, ikusi egiten ditut zure begiak sindikoaren jaka belusa gorrizkoaren atzean, Basazabal alkateak areto nagusiko mahaitik, Garmendia idazkariak armategiko ate giltzatutik, Enparan diputatuak Akotegiri kapela kendu zionekotik ikusi zintuen bezala, ahoa zabal, ezpainak unearen beroak puztuak, hortzak agerian. Eta eztarritik gora, leba-leba hasi eta itsasoa bezala gaiztotzen hasi zen harrabots hura, orro bihurtu zena inork zirkinik egiterako, libratzeko mutila!, denok orro batean segi-

tuan. Libratzeko, libratzeko agudo, egingo zenutela bestela handiren bat hantxe bertan askatzen ez bazuten.

Kapelu zapaldua behegainetik jaso eta urrats presatuz bildu zitzaizuen Akotegi.

Izua Enparan diputatuaren begietan harenarekin katigatu direnean.

Izua lainoa bezala zabaltzen Manuel Altuna sindikoaren begi ilunetan.

Nirea ere baden izua. Orain zer, hondamendia besterik, Teresa.

Behin, Peñafloridako kondeak Intsausti jauregira deitu ninduen batean (ohean zuen alaba nagusia baztangaz pikatua zuelakoan, izain onak nituen jakin nahi zuen), berarekin joateko agindu zidan. Aurrez ezagutzen ez nituen pasabideetatik ganbarapera eraman ninduen etxeko labirintoan barrena. Europa txoraturik zuen jostailu haietako bat erakutsi nahi omen zidan, eta hantxe zeukan, egongelako zoru gainean zabalik. Inoiz ikusi gabea nintzen halakorik. Metalezkoa zen, hari lodi baten gaineko bidean ibiltzen zen sagu latoizkoa. Suitzatik ekarria behar zuen izan automata mekanikoak. Han besterik ez du nahi jendeak, halaxe esan zidan, oso prezio altua egiten dute erlojugileen

dendetan. Kordeari eragin orduko hasi zuen satitsuak ibilia. Tarteka, giltzak zituen bideak, eragin eta batera sagua nahi zen tokitik joatera behartzen zutenak. Laga zion kondeak joan zedin gurutze batera, eta eragin zion giltzari gero bestetik bidaltzeko, sofapean atondua zuen belar arte moduko batetik ontzitxo bat zegoeneraino. Han, mihi baten gainetik pasatzean, makurtu egiten zuen burua satitsuak, edan plantak egiteko. Behin eta berriro errepikatu zuen malobra bera. Isilik kondea eta biok begira lilura behartuari hitza nagusitu zitzaion arte:

– Ikusten, Esteban? Mundua ere horrelaxe dabil. Giltza duena bestearen ibiliaren jabe da.

Ulertu ez nion irribarrea loratu zuen zutitu zenean. Adeitsua izan nahi zuen, baina itzal xelebrea zuten ezpain haiek. Eskuan zuen sagua, azken hatsa ematen. Entzun egiten nuen gurpil horzduna.

Hala da, ordea, Teresa. Kondeak ez zioen gezurrik. Giltzek mugitzen dute sagua, esazu mundua nahi baduzu. Eta giltzetako bat zuek zenuten orduan, kontzejuko areto hartan. Nahikoa izan zen pentsatzea ahal zela, beldurra uxatzea sinisteko bazegoela giltzari eragin eta sagua bestalderaka hasterik, abagunea zegoela mutil gizajo hura zepotik askatzeko. Estu hartu

zenituzten, nahikoa omen zen Manuel Altunaren begitarteari erreparatzea. Ezagun zen ez zituela inork ordura arte burubide horretan jarri. Eskandalu hura, libratu mutila, libratu mutila, belarrian min egiteraino, libratzeko, libratzeko. Entzun ere egin zituen presoak berak, hala aitortuko zuen gerora, kontatu zidaten niri ere, eta ez orroak bakarrik, baita oinetakoen atzeraaurrerak ere ziega gaineko egurrezko zoruan, altzariak arrastaka, Basazabal alkatearen gangar garbia azantza nahasi haren gainean nabarmendu nahian, lasaitasun eske.

Egarritua zen bila joan zintzaizkiotenean. Ura eskatzen zuten ezpain zartatu haiek, ura, ura mesedez, faborez eta karitatez, eta hala ere, ez zuen berehalakoan igaro ate-orri irekia. Basazabal, merioaren ondoan Izarraitz bera baino isilago. Beldurrak airean atera zen argitara. Mamorroa garrotepean zanpatu ostean, etorriko zenari zion ikara mutilak. Zoko-usain hura ziegan, gernua baino ezin izan zitekeen isurkari lohia erdiraino betetako barrika ipurdian, ur bedeinkatua ate ondoan. Txindurriturik zituen oinak, ezin zutik egon mutilak. Galtzarbeetatik helduta lagundu zioten tentetzen. Poz arrastorik ez, hala ere, gizajoak. Ez zuen besterik, txikitu egingo zaituztete, esaten zuen. Ez

duzue ondo ezagutzen peluka jende hori, txikitu egingo zaituztete.

Txikitu egingo zintuzteten. Txikitu egingo gintuzten.

Zu han, ezinezkoa da, badakit. Sukarra da, orain ere erasoan, Teresa. Ez zinen zu udaletxeko areto nagusian Altunari lepotik eusten ziona, nola bada, noiz joango zinen zu Azpeitira, nola, norekin. Baina halaxe zabaldu da kalean. Ametsaren barruan diot, ametsaren bideetan ere ezin zinela zu izan esaten ari natzaio neure buruari, gezurretan ari direnei esan diedan moduan. Ordu hartan etxean zen Teresa, gaixo nengoen eta ondoan neukan. Ohe ertzean eseri zintzaizkidan Narrosena kontatzeko, nola egin zenuen topo kalean markesarekin, nola esan zizun joateko bere etxera eta eskatzeko morroiei nahi adina gari, zeuk esandako prezioan, baita doan ere, nahi izanez gero. Berak halaxe esana gure andreari, Narrosek berak, markesak.

– Zuria zer den gizona.

Ardura erakutsi zenidan: sukarra zer moduz. Lo eman nuela kanpoan egon zinenekoa, erantzun nizun.

– Eta umeak?

– Kalean izango dira.

Umeak, geureak balira bezala. Gure umeak zure ilobak, Mariarenak, geureak ailegatu bitartean.

Badakizu zer den ametsek duten okerrena? Desegin egiten direla argiarekin, ez dira tximeleta hegalen hautsa baino sendoagoak. Beste horrenbeste gertatzen da paperean idatzitakoarekin ere. Atera eguzkitara kutxan gordea egon den agiri bat, berdin dio zein gizon handik ezarria dion sinadura barrenean, eta begiratu ondo. Marka geratuko zaizu, tintak egindako bidearen arrastoa; baina galdua zara, tinta horitu egiten da, argitu erabat, eta desegin azkenik zeharoan. Horretan ezin esan oso bestelakoak direnik zerua eta lurra. Ez da idatzia bezalaxe desegiten ilargia, eguzkia indartzen hasi orduko?

Eta hura, sinetsidazu behingoz, ametsa baino ez zen. Hasieratik bertatik galdua genuena.

Hamalau

Ospitalean. Itzalak agertu zaizkionean betazalen bestaldean etsi du.

Haur denborako oroitzapena da izara atzeko gerizena, plaza betean ume guztiak, aurreneko ilaretan belaunburuak zikin, indioen moduan behegainean eserita titiritero familia hura agertzen zenean herrian. Indioen moduan, hala esaten zen orduan. Zangoak txindurrituta uzten zizkizun postura azkenerako deseroso hura. Bospasei urtez azaldu ziren, udaberrian beti, halako batean, auskalo zer arrazoi dela eta, betiko utzi zioten arte herrira etortzeari.

Gizona hil egin zela zabaldu zen, ikusi ez zuen auto batek harrapatu zuela gau batean errepidetik oinez mozkortuta zihoala. Bazen bertsio gehiago. Beste emakume batekin joan zela. Edo furgonetak su hartu eta dena galduta beren jaioterrira bueltatu zirela, Europako mapan inork zehazten asmatzen ez zuen bazter batera. Nola eusten dioten irudi batzuek. Plazako argi-posteak, inoiz harrika ere hautsiko genituenak gerora, itzalita egoten ziren funtzioak iraun bitartean. Merioak udaletxetik koadro elektrikoko giltzari emate-

rako, koloretako oihal bat jartzen zuten bi zutoin artean, muturretik kortxetez katigatuta eta alderik alde zabal. Atzean, senar-emazteen eta umeen ibilia sumatzen zen furgoneta zaharretik traste garraioan. Nekerik gabe igar zitekeen zertan zebiltzan itzal haiek, argizagiaren argitan. Atoan helduko zen hurrengo saioa.

Orain bezalaxe. Ilunpetan, behetik gora zabaltzen zen argi urdinkara berriro ere piztu izan balute bezala zebiltzan, lehenbizi bat eta honen atzetik beste bi silueta desitxuratu dakarzkiona. Ez dago oihalik orain, begi nekatu batzuk baino. Irudi hori heldu zaio hala ere, umetako kontuak zer diren, hain da lausoa dena, halako gandu xehe bat, zabaldu ezin dituen betazalen artetik sartzen zaiona.

Medikua dator aurrena. Ezagun du dagoeneko, ahotsagatik. Bere burua ere aurkeztu zion lehenengo egunean. Badakit seguru asko ez didazuna entzuten, Esteban, baina gizalegezkoa da nik zure izena dakidan bezala zuk ere nirea jakitea, horrela esan zion. Orain Esteban Alberdik gogotik arrastaka ere ezin ekarri duen izen bat, Ernesto, Fernando, Cristobal, Alvaro, asmaizu, hiru silabako halako izen bat eman zion, zahar kutsukoa iruditu zitzaiona, garai bateko medikuena, notarioena, udal idazkariena.

– Aupa txapeldun, zer moduz gaude?

Itzali da lausoa, itzali izara. Betazalen artetik ez zaio argitasun izpirik sartzen orain, eta ez daki zergatik den. Beharbada gizona agertuko delako orain plaza erdian haur eta nagusien txalo artean, umeak ez pasatzeko zapiz markatutako eremuan, gasolina usaina duen uztai bat duela eskuan. Atzerarazi egiten zituen gizonak beti, atzera! agintzen zien, jo atzera umeok!, hau arriskutsua da-eta! Eta denak berriz ondo eserita ikusi arte ez zuen kiskeroa arrimatzen atoan sutan ikusiko zuten uztaira. O handi bat garretan plazaren erdian, eta hahor non agertzen den alaba gaztea komeriaka, eskuak lurrean, oinak zerurantz tente. Itzulipurdi bat, bigarrena, eta hirugarrena egiten duenean zangoak biltzen ditu, jauzi kiribildua egin du eskuekin eta konturatu orduko uztai sutuaren bestaldean dago, eta ooooo bat entzuten da, eta txalo zaparrada gero, neska zutitu eta irribarre eder bat loratuta eskuarekin agur eginez bezala ojuka ari zaion plaza betea agurtzen duela.

– Esteban, bisita duzu.

Inoiz baino sinpatikoago iruditu zitzaion nola du izena medikuak, ezin du gogoratu, Ernestok, Fernandok, Alvarok gaztigatu zionerako, konturatuta zegoen.

Pertsona bakarra ezagutzen zuen munduan usain horrekin janzten zena. Badira ahazten ez diren lurrinak, ezta ospitaleko ohe batean bazaude ere lo etengabeari estekaturik.

Ikusi egiten zuen, ohartzerako bertan zuen, ohe ertzean eserita. Laster sentituko zuen haren eskua bereari eusten.

– Bakarrik utziko zaituztet. Ezer behar izanez gero...

Joan da medikua, ondorioztatu zuen Estebanek.

Begiak zabaltzea besterik ez zuen behar ordurako gogoa ikusten ari zena ikusteko. Amaitua zen ametsa, botiken eragina bazihoan. Ia erabat desegina zen iraganera lotzen zuen eldarnio hura, izotza edalontzian bezala. Belarriak zorroztu zituen, surtziloak zabaldu. Betiko hotsak ezagutu zituen, lurrin aseptiko hura. Halako batean, txori kantu bat. Aitaginarreba bizi balitz, hark argituko zion zeinena zen. Brisa sentitzea iruditu zitzaion. Leiho bat zirrikituan zabalik beharbada. Zalantzarik gabe, ospitaleko gelan zegoen berriro, eta ondoan zuen.

Zergatik ez nauzu ukitu?

Begiak zabaldu eta Teresa ikusi zuen. Hizketan ahalegindu zen. Ezin.

– Ez dute uzten umeekin sartzen.

Ezin kalkulatu ondo zenbat, baina denbora zeraman gertatuko zena aurreikusten. Eta hala ere, ilusioak pizteko keinada egin zuen bere apalean. Dena ez zegoen bat-batean ahazterik, janda zeukan hori. Xanoegia zen pentsatzea bisitan etorria zitzaiolako dena lehengoratuko zela. Azkarregi nabil, Tere, badakit. Hasteko, begiak zabaldu behar zituen. Irribarre egin. Begiekin ehizatzen saiatu ustez betiko galdurik zuena.

– Esteban...

Irribarre egiten saiatu zen, alderik aldeko zauri gozo bat, baina ez zegoen seguru aurpegian loratzea lortu zuenik. Begiekin gertatzen zitzaion gauza bera. Irekitzen zituen arren bazekien ez zizkiotela zabalik ikusi oraindik, mendean hartu ezin zuen indar bat balu bezala azalaren eta gogoaren artean.

– Zuk entzuten al didazu?

Hori lortua zuen behintzat. Ikasia zuen parean jartzen zitzaion eskua estutzen. Izenik gogoratu ezin zuen medikuarena izan zen aurrena. Teresarena orain. Habia batetik eroritako txorikumea babesten zebilela zirudien. Eta hori izan zen hasiera.

Bisita bakoitzean gero eta errazago, hitzak hitzari ematen zion aldia. Tere zen hasten zena. Jakineko kei-

nuak zetozen ondoren. Berak atzamarrekin emazte ohiaren azala laztandu eta haren jarioan sartzen ahalegintzen zen. Bikien gainean hasi zen, nola lanetik bueltan etxean sartzen den aldiro aitagatik galdetzen duten, zer moduz dagoen, noiz aterako den, noiz joan behar duten bestela denek ospitalera prestatuak dizkiotenak ematera.

– Jakingo bazenu zenbat marrazki duten zuretzat.

Hitz egiterik balu, dibujoetan ez zer, ezpada nor agertzen den galdetzen ausartuko zatekeen. Non agertzen diren bikiak, hondartza batean, mendian, kalean, eskolan, etxean, non. Etxean, Esteban. Zein etxetan baina? Eta norekin? Zu eta biok elkarrekin marraztu gaituzte, Tere? Ala ni itsasoak daraman ospitaleko ohe batean noa, naufragio bateko txalupa batean nola, jakizu nora, balea handi baten aho barruan sartzera akaso zuek egongelan jolasean zabiltzaten bitartean.

– Zu lasai, dena konponduko da.

Elkarrekin hitz egin ahal izan zuten aurrenekoan piztu zitzaion soilik su hura barrenean. Ilusioa zen, zer bestela, agurraren unean nahi gabe bezala bota zionean. Dena konponduko da. Eskuak eskua uzten zueneko hari hori eten zenean. Hurrengoetan, Teresak

makulu bezala zerabilela konturatu zen. Ez zuen esan nahi dena konponduko da eta lehen bizi ginen bezala biziko gara laurok elkarrekin hemendik ateratzen zaitugunean. Adorerako deia zen Teresarena. Errukitik emana, goitik behera menostu bati esan ohi zaion esaldi mekaniko bat. Agur hierarkizatu bat.

Lehen agur hartan, bi atzamar bereizi ahal izan zituen Estebanek besteetatik. Tereren azalean nabarmen markatu ziren bi eri, aurreneko momentuan interpretatzen jakin ez zuen keinua, eskua libre utzi zionean hitzetara ekartzea lortu zuena:

– Bikiak ekartzeko hurrena? Esan dizut, ez dute uzten.

Brisaldia heldu zitzaion. Leihoak irekita segitzen zuen. Nork ekarri ote ditu leiho-hegaleko lore alaiok, begizta granateko ontzi hori. Apirileko haize leuna. Erizaina ohe gaineko potoa aldatzera sartu eta hitzik egiteke erretiratu zenean itzali zen argia.

Tantetan erreparatu zuen, beren bidea egiten plastikozko hodi gardenean behera. Laster ziren esku gainean sartua zuen xiringa-muturrean. Gero, xehetasun ikaragarriz sentitzen ikasia zuena etorri zen. Ginebra urdinaren hondarra izotzetan urtzen, ohea olatu

artean eta loaren pisua, azken aldian gatibu zuen eldarnio arrotzak pixkanaka eta erabat lotu zuen arte.

Hamabost

Orduan ere apirila zen, behorrak estaltzeko garaia, eta artean zaldi tratua inorekin egin gabe zeukala etorri zitzaion akordura Peñafloridako kondeari. Sagu mekanikoa metal-hariaren gainean utzi, behera itzuli beharra zutela adierazi, eta bizarginari aurretik joateko aginduta, giltza eman zion ateari. Eskailburura atera ziren biak. Miraz egon zen Esteban Alberdi gora begira. Hexagono perfektua zen sabaileihoa, eguerdiko argia lau hormen kontra egindako zurubiaren zuloan amiltzeko pentsatua. Maite zuen Peñafloridak ilunantz hura, egur ilunezko mailak zenbat eta beherago ozta-ozta erakusten zizkiona inguruak.

Ez zegoen haatik etxean entzun gabe:

– Egunen batean burua hautsita topatuko zaitugu.

Goiko solairuan argia lihozko izara bat bezain gozo zabaltzen zen linternatik behera. Eskubandari eutsita egin ohi zuen Peñafloridako kondeak goitik beherakoa. Ez zen damu forja lanagatik ordaindu zuena ordaindu izana. Probetxua, ateratzen zion. Harro erakusten zien burdina-lana ikustera hurreratzen zitzaienei.

– Eibartik ekarrarazi nuen errementaria.

Fina zuen diseinua eskudelak, bere buruaren bila abiatzen ziren hari biribildu haiekin, erdi-erdian mundura sortzen ari zen landare samur bana zutela, graziaz kiribildua.

Apirila zen, eta lurra itzartzen hasia zen. Egunak ziren Peñafloridako kondeak agindua emana zuela jauregiaren baranoko lurretan garagarra, patata eta bazka berdeak aldatzeko. Soroak ureztatuta zeuden ordurako. Ia hilabete zen oloa, lihoa eta ilarra ereina zela. Gariak iraulia zuen lurra, emana zitzaion gernuongarria. Esanda bezala, berdinduak zituzten inguruak. Laster ekingo zioten baba azkarregiei muturrak mozteari, lehenbiziko lorea gal ez zezaten. Gero helduko ziren jorratze eta zopizartze lanak, zotal hausteak eta mintegi artatzeak.

– Ez da ederra, Esteban?

Epelaldiak arin zekarkion aranondoari lorea.

– Zatoz, Esteban, zatoz hona.

Arbelezko lauza luzangek estaltzen zuten burdinazko egitura galerian.

Ermita gaineko balkoira atera ziren. Espiritu Santuaren kapera ondotik abiatzen den bidexka ozta lokaztuan aurrera, zuhaitz etzan bat gailentzen zen

muna barrenean. Kondearen hiru langileren joan-etorriei erreparatu zieten bi gizonek. Erlauntzak garbitzen ari zirela zirudien.

– Ez duzu uste Jainkoak mundu zoragarria utzi digula?

Berehala erantzutekotan egon zen Esteban, baina hinkik atera gabe jarraitu zuen gizonei begira. Bezperan lur eman zioten haurrak hartu zion izpi batez gogoa, zapia kokospean loturik, gurasoen ohe gainean etzanda, zurrunegi paratua lo egoteko. Ez, mundua ez zen zoragarria, ez behintzat orduan eta han, Intsausti jauregiko balkoitik. Kirats hura, gela osoa hartzen zuen aire ustela gurasoen, senideen, haurra ikustera hurreratutako auzoen arropetan itsasten. Mamorroak udaberrira esnatzen hasita zeuden ohol arteko zirrikituetatik. Lehenbiziko mandeuliak haur zurbilaren aurpegian. Maiz egin bezala, lantzetaz odolustua zuen mutil koskorra, baina gaitzak ez zuen atzera egin. Luze gabe, dardarak heldu zitzaizkion, sukarra igo. Eguna zabaltzerako hil zen, Esteban bera bertan zela.

Etxe atzeko baratze zokoan hustu zuen terreina. Lurrak astiro irentsi zuen odola.

Lanerako baino buruan zerabiltzanak entzuteko deitzen zuela batzuetan kondeak pentsatu zuen Estebanek. Ordu erdi zeraman jauregian, eta alaba lo zegoen aitzakiarekin, izainen gaia ateratzeke zuen solasera.

– Ederra, hori da hitza. Hala utzi zigun, eta gizakiari ez dagokio edertasun horrekin ahal denik eta on guztia egitea baino.

Neskamearen ahotsa ilunpeak janda heldu zitzaien.

– Esnatzen ari da. Alaba laster duzu itzarririk, jauna.

Eskerrak eman eta ostera ere urrats-hotsik gabe desagertzen ikusi zuten emakumea. Gelara bidean, liburutegian gerarazi zuen kondeak. Hormetan zituen kutxatxoetan erreparatzeko beta hartu zuen Estebanek, tximeletak ziren, orratzez iltzaturik guztiak tapizaturiko ohol mehean. Azpian, latinez zituzten izenak.

– Zaude. Gauza bat erakutsi nahi dizut.

Apalategira gerturatu eta liburu bat berezitu zuen kondeak.

– Batteux. Utziko nizuke frantsesez irakurtzen jakingo bazenu...

Botila ardoari bezala begiratzen zion Peñafloridako kondeak liburu-bizkarrari. *Les Beaux-Arts réduits à un même principe*, ebaki zuen ahoz gora, Estebani perfektua iruditu zitzaion eran. Urteak ziren Charles Batteuxen lanetan aurkitu zuela idatzia buruan zerabilena; artearen ederra naturan zegoela, alegia, ez zela besterik egin behar hura imitatu baino.

– Hura imitatu, den bezalakoxea jasoz, neurrian, espanturik gabe, berez dena indartzeko tentazioari ihes eginda. Gertatu izan baita hori ere, ikusgarritasuna lortu nahi eta neurria erabat galtzea, zeharo exajeratzea munduak ematen diguna. Koloreak koadro batean, esaterako. Eta orduan zer, Esteban? Ez duzu uste zeharo itsutzen gaituela orduan margo horrek, ez dugula galtzen benetan izadiak dioskuna hain goitik ari zaigulako?

Horazioren itzultzaile izan zen Batteux, eta harengandik zituen jasoak lerro gehienak, aspaldi zion kondeak igarria.

– Eta Horaziorengandik bezainbeste Zizerorengandik, *pour en former un tout exquis qui fût plus parfait que la Nature elle-même*.

Horrexegatik zuen eskuan liburu hura, eta ez beste bat, alaba iratzartzen ari zen eguerdi hartan.

Horiek eta gehiago esan nahi lizkioke bere bizarginari. Montesquieutik ere asko du, Esteban, eta Voltairetik, katoliko garbiagoa izatea hau, gureagoa, katedra du Collège de Francen, eminentzia bat, nire aita pontekoa, nire itsasargia Charles Batteux, l'abbé Batteux, Parisko bakardadetik argi egiten Euskal Herri ilun honi.

Alferrik zen, ordea. Jasminak urdeari ematea zen, zetazko maindireak eskaintzea ahuntzainari. Nola ulertuko zuen letrak bata bestearen atzetik elkartzen ozta zekien bizargin-zirujau batek zer esan nahi zuen *la Belle Nature* zioenean?

Eta pena zen, erakutsi nahi lizkioke-eta ordura artekoak baino gehiago. Estimua zion kondeak, ahalegintzen zen gizona biltzen antolatzen zituen ekitaldi batzuetara. Erakutsi, ikasteko; gustua zer den, esaterako. Ez ahosabaikoa, Esteban, haren ordaina baizik, ariman duguna. Batak ahoan sartzen dugun edozer ona edo txarra den dioen bezala, halaxe bereizten ditu arimakoak ere ona txarretik, ongia gaizkitik, ederra ezainetik, fina zakarretik eta berebizikoa erdipurdikotik.

Isilik jarraitu zuten gizon biek. Bata, aspaldi hartu gabeko liburuko orriak gainbegiratzen. Bestea, hor-

marantz itzulia zen. Tximeletetan, batek zituen bete Estebanen begiak. Guztietan handiena zen, horia eta beltza erabat. Koloreak baino, formak liluratu zuen. Ordura arte ikusiak zituen guztien antzekoa zen goialdean, biribildua. Behean zen berezia, bi buztan haiekin, bi tanta beltz airez aire.

– Papilio thoas.

Ameriketatik ekarri ziotela argitu zuen kondeak, lagun batek harrapatu zuela Montevideoko portutik ez oso urrun, Bordelerako ontziaren zain zegoela.

– Ikusgarria da, ezta?

Ikusgarria baino, edertasun doia zuen tximeleta hauskorrak.

Ikatz hautsezkoak zituen hegalak.

– Alferrik esango duzu ezetz. Horixe da bada Batteuxek dioena. Ez zara ederra ez denaren miraz egongo. Hala egin behar du gizakiak ere, ez zaitu zatarrak liluratuko. Eta horretarako daude hain zuzen Arte Ederrak, *la Belle Nature* imitatuz gizakiari plazer eman eta bide zuzena erakusteko.

Bazen zerbait, baina, Peñafloridako kondeak beretzat gordetzea ebatzi zuena. Tximeleta beltzek, a zer txorakeriak Indietatik heldutako sineskeria haiek, zoritxarra zekarkioten ikusten zuenari.

– Eta orain esadazu, ez dugu betarik hartu harrezkero hartaz hitz egiteko-eta. Eta ez errepikatu pozteko motibo franko dudala. Zer iritzi zenion Bergarako antzezlanari?

Hamasei

Izainik eta lantzetarik erabili beharrik gabe utzi du Peñafloridako kondearen alabak izaren epela. Etorri bezalaxe joan zaio sukarra. Zabaldu dira jauregi inguruko jardin eta soroetara ematen duten leihoak, aireberritu da gela, aditu dira apirileko usainak, eta halaxe joan da haurra oheratu duen kalentura, kanpoko edertasunak uxatuta bezala.

– Alabak ez du nafarreririk, jauna.

Oraindik Intsaustin den Esteban ezustean harrapatu du Carasa ohe ondoan ikusteak. Ez zuen espero, ez da besterik. Tresnak maletatxoan gordetzen ari da, taxuz, kandelen argitan. Irribarre behartu bat loratu zaio medikuari, beti bezain urduri. Jendetasunez agurtu dute elkar, kondea dute begira.

Hiru urte lehenagoko salerian, Peñafloridak bere liburutegian urrea baino hobeto zaintzen dituen orriak bete zituen Carasak gaixoei egindako jarraipenekin, ez zaio Estebani hori inoiz ezkutatu. Gertutik ezagutu zituelako kasuetako asko beharbada. Irailean hasi zen gaitza, eta abendu artean hazi. Gabon atarian, ehunka ziren ohean zeudenak eri. Zer bide egiten duen na-

farreriak, ondo ezagutzen du Estebanek. Buruko mina izaten da lehenbiziko abisua, kezkatzen hasteko motibo nahikoa. Gero datoz begi beteak, sukarra, lo eza, eztula, aldaketako mina, bizkar aldekoa, gonbito erraza. Tarteka, hesteak lehertzen dira, edo odola dario sudurretik gaixoari. Inoiz, dardara batean hasten dira izerdi zikinetan. Nork garbitu gero ohe-jantzi haiek.

Hiruzpalau egun luzatzen da hasierako erasoa. Gero pikortak agertuko zaizkio, aurpegian aurrena eta paparrean ondoren. Zorne jarioa hasten denean sukar handiak hartzen du eria, ezinegona nagusitzen da, idatzi zuen Carasak bere oharretan. Lo hartzea zaila egiten da, ezinegona nagusituz doa, puztu egiten da aurpegia, kiratsa areagotu egiten da. Azalean, orban beltzak edo ubelak agertzen dira, jarraitzen du medikuak deskripzio hotzean, Carasa hipokratikoa baita galeno dogmatikoa baino. Eskertu zion kondeak horrela jaso izana, beroak ez baitakar egundo ere onik. Baztangarekin ez dira gutxi hezur berrietan dauden emakumeak galduriko haurrak, amaitzen da bukatu eta asteetara kondeari entregatu zion txostentxoa.

– Seguru nago beste kopia bat duela beretzat gordea, niri emandakoaren aldean zehatza.

Estebanek ez zuen sasoi batean beragan jarri zuen konfiantza ulertzen.

Eta halarik ez, medikua ondorioak ateratzeko gauza izan zen. Hasierako sukarrean dago dena, idatzi zuen. Arina bada, hala izango da nafarreria, dio. Kalentura handia badu, berriz, eta beroa errea, arriskua dago pikorta gaitzagoak izateko. Bizkarraldeko minak arrunt okertuko luke egoera. Ona da gaixoak txistua suelto botatzea. Jarioa eteten bada, berriz, dudarik gabe, larriagotu egingo da. Heriotza arriskua askozaz handiagoa da orduan.

Tatxarik gabeko gizona da Carasa, eta mediku bikaina. Ez zaio inoiz damutu Peñafloridako kondeari herrira ekarri izana. Gasteizeraino joan zitzaizkion bila aurreko medikua hil zenean. Orduan bezalaxe gogoratzen du dena. Larreak bereizten dituen urkia baino bakarrago heldu zen arratsaldeko zalgurdian. Gerora ekarri zuen familia, eta trastetza hura, etxerako gauza gehienekin.

– Lasai egoteko moduan gara.

Kondea ez da egundo lasaituko, ordea. Lau ume ditu dagoeneko lur hotzaren gainean utziak. Emazteak agindua dio bizitzarekin erantzungo diola balbearen atzaparkada bakoitzari. Halaxe esan zion, heriok

eramaten digun bakoitzeko bi gehiago ekarriko ditut. Nork sartu ote zion hura buruan. Loiolako jesuitaren batek, seguru dago Peñaflorida.

Euria ari zuen. Indriska etengabeak zikintzen zituen Markinako soroak Pedro txikiari lur eman ziotenean. Sagastiak biluzik zeuden, azken aleman-sagarrak jasota ordurako. Euri tantak azken hostoetatik dilindan. Zuk egin zeure lana, gizona, nik neurea egingo dut eta. Hirugarrena zen zuloan sartzen zutena. Gipuzkoako diputatu nagusi izendatua zuten atzera ere, baina bere jaioterrian nahi izan ditu beti seme-alaben hezurrak.

– Esan beharrik ez dago, ezer bada, badakizu non nagoen.

Carasaren eta Estebanen artekoa, ez da itxura batera erraz konpontzeko auzia. Moldatzen dira, baina itsuak ere ikusten du, larderia dago baten partetik, eta bekaitza bestearenetik. Gizakiaren gaitzak, pentsatu du bere artean kondeak leiho ertzetik mediku txikiaren irudia jauregiko harri-txintxorretan aurrera, gero eta urrunagoko egiten zaion bitartean. Ez daiteke bestela ere. Estebanek ez dituen ikasketak ditu Carasak, urteetako bidea gaixoak artatzen, gaitzari azken zirrikituetaraino jarraitzen. Erret Akademiakoa da. Nafa-

rreriaren gainean ez da besterik egongo hark adina dakienik inguru zabal batean. Esteban, berriz, zer da bere bizitza jendeari bizarra mozten, hagin lokatuak ateratzen, koipe eta malbazko enplastuak jartzen eta odolusteak egiten eman duen behargin esaneko bat besterik.

– Gizon ona zara, Esteban.

Txanponaren hotza ahur kakotuan. Papagai bat bezala sentitu du kondearen esku guria sorbaldan. Peñafloridak berak erakutsitako grabatu batek hartu dio gogoa lipar batez, Ameriketako hegazti koloretsu bat gizakien adiskide. Buruak nola egiten duen lan.

– Entzuizu, badakizu zertarako deitu dizudan.

Badaki, badakienez. Izainak. Izainez mintzatu nahi zaio kondea, eta galdetu non hartzen dituen berak, nola mantentzen dituen gaixoari aplikatu aurretik, zenbat aldiz erabiltzen duen bakoitza. Aitarengandik ikasitakoa errepikatu baizik ez duela egiten azaldu behar izan dio Estebanek, erreka gardenak topatzea dela kontua, hobe harria dutenak hondoan ura zikin lezaketen basatzadunak baino.

Badakizu nola asmatzen den beti? Inguruetan igelik dagoen begiratu, jauna. Asko bada, toki egokian zaude. Erantzi, sartu hanka-gorririk eta uraren hagin-

kadara ohitu. Oinetan itsatsiko zaizkizu berehala, bernetan gora. Eta aukeran hobe txikerrak handiak baino. Sabelaldea, gorria izan dezala, gibelaren kolorekoa. Goataz edo zapi umel batez itxitako kristalezko ontzietan gordetzen ditut, jauna. Azalak garbi behar du egon, hiruzpalau jarri aukeratutako tokian eta itxaron beren lana egin arte. Heltzea kostatzen bazaie, lagundu. Horretarako ur gozotua jartzen diet, edo odol pixka bat. Arkumearena edo bildotsarena da ona. Eta itxaron, itxaron odola zupatu ahala handitzen diren arte. Ez da lantegi zaila. Askatzean etor daiteke arazoa. Ez bada berez soltatzen, gatz pixka bat eman, edo ozpina bestela. Ostean, behor zurda bat azpitik pasatuta ere libratzen da. Ezagutzen dut beti horrela egiten duenik. Egundo ez behartu, ordea. Ezin utz daiteke izain arrastorik zaurian, gaiztotu egin daitekeeta. Eta erabili, behin bakarrik. Denak batu eta etxe atzean erretzen dituela kontatu dio Peñafloridako kondeari, pikondoaren ondoan horretarakoxe egina duen zulokote estu batean.

– Jauna, ez duzu egundo aditu izain errearen usaina, ezta? Bestela akordatuko zinen.

– Idatziko duzu esan didazuna paper batean?

Nafarreriaz bil daitekeen guztia ari da biltzen kondea. Bazuen Carasaren txostena, eta xumeagoa izanagatik, eta ezagunagoa, nahi du izan Esteban Alberdirena.

Laster ez da ez bataren ez bestearen beharrik izango. Ez orain arte bezala behintzat. Jakinaren gainean dago probak egiten hasiak direla, irakurria du Christian de la Condamineren *Memoria*, Feijoori esker du Trevouxeko lanen berri. Angelo Gattiren *Réflexions sur les préjuges qui s'opposent à l'inoculation,* etxean du. Inoren odolak bakean utzita, ikuskizun lotsamangarririk gabe, izarak odolez blaitzeke, halako itsuskeriarik, etxeak etxe izango dira ostera, ez mataderia. Eria ez da ohean kondenatuko. Sinistuta dago, esanak esan, inokulazioak babestuko dituela luze gabe gaitzetik.

–Tratatu bat ere ez, Esteban, niri kontatu didazun bezalaxe, argi, zehatz, Bergarako nire lagunei erakusteko.

Lotsagorritu egin da, ez daki gauza izango den. Ez dio ezetzik esan.

Doi astintzen ditu apirileko hegoak Intsausti jauregiko arbola loratuak.

– Ikusten arrosaxka hura, Esteban? Japoniako gereziondo bat da, Loiolako jesuita batek misiotatik ekarria.

Katu alderrai agertu zaie, zalu igotzen gibeleko horma gainera. Ilun-istantzia garbi dator. Beldur da erantzunik gabe gelditu den galdera egingo ote dion kondeak berriro.

– Ez didazu erantzun, zer iruditu antzezlana?

Bergaratik bueltan Teresarekin izandako elkarrizketa berritu zuen bere artean Esteban Alberdik. Bere aldean garbi, jende baxuari dongaro eginiko burla lotsagabea zeritzon emazteak. Hitz horiekintxe esan zion zer pentsatzen zuen azken aldian herriko jauretxe batzuetan antzezten ari ziren obra haien gainean. Gogoan du ahalegindu zela arrazoi zuela aitortzen emazteari, baina Txanton Garrote bera ere, ikusi behar duzu zein aldrebesa den gizajoa, Teresa, zurrutak zeharo galdua.

Itsua izatea leporatu zion emazteak, ez ikustea begien aurrean zuena.

– Zure izainak baino okerragoak, Esteban. Peñafloridako kondea bera-eta dira gure izainak.

Hamazazpi

Usaimen zorrotzarena, kondena bat.

Ezkai landarez mukuru betetako zelai batean ireki zituen begiak Estebanek, besoak eta zangoak zabal, belarretan etzana. Izpi luzeek laztantzen zioten masaila. Zuhaitz oparoagoak zituen maldak erreka jotzen zuen barren hezean. Haize ukaldiak heltzen zitzaion hego partetik, apirileko usoak iragartzen zituena. Zerua oskarbi, gutxitan bezalakoa. Oso udaberriko kolonia zuen, freskoa, baina halako ñabardura idorra zuena, tartekako eguzki erre eta guzti, uda atarikoa.

– Les champs de l’amour.

– Ezagutzen duzu?

– Nola ez.

Ez zen gauza izan ezer gehiago eransteko, nekatu egiten zuen oraindik hitz egin beharrak, baina esateko gogoz gelditu zen: lehen, emaztearekin eta umeekin bizi nintzenean urtero ekartzen zidaten opari flasko bat gabonetan. Ederra izaten zen antzezpen hura, jakingo bazenu. Ikusi behar zenituen bikiak, aurrena beren pakete handiak zabaldu eta gero besteentzat zer zegoen araka, araka, paper ertzak urratu artean,

aita! hau da zurea, eta nola etortzen ziren biak korrika batean pasilloan barrena, nola egiten ziguten salto Teresari eta bioi ohe gainera, elkarri bultzaka, hau zuretzat da, zabaldu, zabaldu ea zer den, aita.

– Les champs de l'amour da, bai.

Irribarre egin zuen Estebanek, ezin zuen oker egon. Begiak itxi zituen une batez, egindako ahaleginak atsedena eskatu balio bezala. Berriz ireki zituenean gertuago sentitu zuen ezkaien usaina.

– Ametsetan ibili zara. Izainak, ez dakit nor direla izainak... Non zabiltza, gizona?

Estebanek buru gainean zeuzkan kakoetako poteei begiratu zien medikuak. Zerbait apuntatu zuen letra bizkorrez.

Esan orduko ohartu zen. Begiak zarratu eta kolpetik egin zuen murgil ur epeletan. Ez zitzaion lar kostatu itzarri aurreko unean beheraka indar eginda ametsaren azken istilera heltzea. Jolasean ikusi zuen bere burua. Getariako portuan aspaldi ez dela ikusia zuen bezala, turistak uretara botatako txanponak ateratzen dituzten ume haietako bat zen. Txanpona beharrean amets txatal bat izatea atera beharrekoa.

– Ez didazu sinistuko non nabilen. Orain dela bi mende eta erdi edo...

Medikuak harrituta zeuden. Ez sinistekoa zen azken aldian preso zuen eldarnio hartatik Estebanek hitzetara ateratzeko erakutsi zuen gaitasuna: Peñafloridako kondearekin Intsaustin izandako solas aspertuak, honen alaba ohean, Carasa medikuaren begirasuna agurtu zuenean, sagu mekanikoa jira-biraka ganbaran, izain odolez puztuak pikondopeko zuloan...

Batak bestea zekarkion, eta hurrengoa hark.

– Puzzle bat balitz bezala, Esteban?

Burua ozta astinduz erantzun zion. Hala zen, puzzle batean zihoakion osatzen zentzugabeko amets hura. Bikiek ohe gaineko apaletan, liburu eta panpina artean, elkarren gainean pilatuta zituzten haietako edozeinetan bezala.

Hainbeste ez dela arte elkarrekin bizi ziren etxeko sukaldea etorri zitzaion. Larunbat goizetan zuten ohitura puzzleak egiteko. Gosari ondoren mahaia libratu, hulea marraza lehorraz pasatu eta kutxa iraulita atera ohi zituzten piezak beti. Behera begira geratu zirenak goraka jartzea izaten zen lehenbiziko lana. Ertzen bat zuzena zutenak bereiztea gero. Zena zela egin beharreko irudia, kanpotik barrura egiten erakutsi zien Estebanek haur biei, urte asko lehenago berari auskalo nork erakutsi zion moduan.

Horretaz ondo akordatzen da. Nola egiten zituzten telebistako marrazki bizidunetatik ateratako haiek aurrena, xaloagoak hasieran, izenik gogoan ez duen superheroi koloretsuen kuadrilla ondoren, eskuetatik turrustan ateratzen zitzaizkien sugarrak eta guzti. Piezak ugaritu eta txikiago egin ahala etorri zen jauzia. Paisajeekin. Eta zaputza. Ez zuen asmatu ondo aukeratzen.

Alpeetako paisaia hura eraman zuenean hasi zen hondamena. Laku zoragarri bat zen, izeiz inguraturiko zabalgune izoztu inor gabeko batean. Izeiak maldetan gora hazten ziren. Enbor nabar eta hostaje zarratuko, ezinago antzekoak ziren denak elkarren artean. Eskuin aldera lehenbiziko haitzak, eta harantzago, perspektiba pixka batekin, tontor zorrotz elurtuak. Handik gora zerua baino ez, urdin argitik azul ilunago batera aldatzen zen ortzi luze eta amaigabe bat. Egunsentian ateratakoa da, bere burua ikusten du horixe esaten Teresari.

– Nolatan ekarri diezu hau?

Berehala ohartu zen hanka-sartzeaz, piezak mahai gainean barreiatu, eta ertzetakoak nola hala jarrita, haurrak gogotxartuta ikusi zituenean. Alpeetako laku hotz eta apartatu batean zegoen ordurako, inori la-

guntza eskatzeko aukera txikienik gabe. Bera ere ez zen gauza izan bost pieza lotzeko elkarrekin, ez tontor elurtuetan, ez haitz ilunetan, ez denak berdinak ziruditen izeietan. Are gutxiago zeruan edo lakuaren ur azalean.

Purrustadaka alde egin zioten mahaitik bi umeek. Ahalegindu zen, baina hozten ari zuen, eta etsitzea erabaki zuen.

– Badakizu gauza bat, nik lehen puzzleak egiten nituen gure bikiekin...

Berrehun pieza gutxiago zituen beste bat erosi zuen hurrengo astelehenean, lanetik bueltan. Paisajea zen hura ere, epelagoa hagitzez ordea, eta askoz ere erreferentzia gehiago zuen. Dendari gazteak hala konbentzituta erosi zuen. Ez zen zailegia ere. Frantzia hegoaldeko larre eguzkitsu bat zen, Proventza aldea, orain gogoan ez duen margolari inpresionista baten koadroaren erreprodukzioa. Pintzelen ibiliari esker zelaian nabarmenak ziren berde orbanen arteko aldeak. Ez galtzeko erreferentziak, ez ziren gutxi: nekazariak zituen segarekin, orgak, ume batzuk olgetan, kanpandorre motza zuen eliza bat bide ertzean, eta zerua, zerua ez zen zeru, margolariaren buruan baino ez zegoen urdinen mozkorraldi eder bat baino.

– Aste hartantxe despeditu ninduten lantokitik.

Esan eta batera sentitu zuen urruntzen zelaien usaina ekarri zion kolonia. Erizainarekin hizketan entzun zuen, ematen ari zitzaizkion tratamenduan ulertu ez zituen botika batzuetatik jaistekoa dosia, eldarnio handiak eragiten zizkiola.

Hitz horiekintxe errepikatu zion berari ohe ertzera gerturatu zitzaionean.

– Aste hartantxe kalera.

– Nondik, Esteban?

– Hemendik. Nik hemen lan egiten nuen lehen. Ez nizun esan? Zabor medikoak batzen.

Ez, medikua ez zen akordatzen. Agian beste bat zen. Edo bere buruan bestetan ez zen gertatu elkarrizketa hura, litekeena zen. Eta hala kontatu zion ahal izan zuen zabalen nola lan egiten zuen ospitaleko zaborrak sailkatu eta kanpora ateratzen, eta nola justu Proventzako puzzlearen astean bertan esan zioten kanpoan zegoela, ez itzultzeko gehiago. Ez lana gaizki egiteagatik, beste enpresa bat hartu zutelako baizik lantegi horretarako, subkontrata merkeago bat.

– Akabo.

Handik atzera, hondamendia. Etengabeko erortze bat. Zulo bat eta harri bat, astiro eta goibel doana ha-

sieran, tristura biltzen doana bidean, eta etsia, eta lana aurkitzeko zailtasunak nabarmenago agertu ahala, abiadura hartzen doana istilean behera, inguruan dituenak ez ikusi arte, keinu, laguntza, txera guztiak baztertzen doana hondora heldu eta urteetan pilatutako basatzatan galtzen den arte.

Plaust.

Harri bat lokatzetan.

– Hori da langabezia.

– Ez da hori bakarrik, Esteban.

– Ez, ez da hori bakarrik. Arrazoi duzu. Lana galtzen duzu, eta duintasuna, eta maite izan zaituztenak, eta etxea, eta dena.

Hamazortzi

Aldrak ez du ahots bakarra.

Nahikoa da belarria zorroztea batena zein besterena bereizteko multzotik. Arreta pixka bat jarrita banan-banan datozkizu, samaldatik erauzita gangarrak. Marmarioa dago, hura du lur eta ongarri. Eta hantxe zuztartuak, bakoitzari bere jabearen izena jartzeko moduan, oihuak daude, txilioak, deiadarrak, orroak, amenazuak.

– Ez da hainbesterako izango.

– Fede kontua da. Begiak itxita ere ezagutuko nituzke, adiskidea.

Askatua dute ordurako Bikuñaneko idazkarigaia. Lasaitzeko aginduarekin atera dira denak kontzejuetxeko areto nagusitik. Kentzeko beroarena, konponduko direla gauzak. Hitz egina dute ordurako beren artean maiorazkoek. Irabaziak urriagoak izanagatik, gertu daude prezioa jaisteko. Hori eta zer ez, edozer Piztia bezatuko bada. Amorrua ez baita inorentzat ona, ez baitu inoiz onurarik ekarri. Piztia itsutuaren ahutzek ez baitute bereizten zerua lurretik, andrea gi-

zonetik, nagusia haur jaio berritik, hain da bihozgabea eta itsua.

– Ez dakit, ez dakit...

– Sinistuidazu, merezi duena helduko zaio bakoitzari, itsutu gabe.

Arratsaldea apaltzen hasia da. Iluna dakarkie Odriako galtzuei Enparan diputatuaren susmoak mamitu direnean. Etxera erretiratua da, Azkoitira!, goazen Azkoitira! aditu duenean liburutegi barrenetik. Bestela bezala zarratu ditu leiho orriak eta etxeko ateak giltzarazi. Ikarak lotu du: ez daitezela behintzat probintziako agiri nagusiak eta epaitegiko aktak erokeriaren garretan erre.

Horretan dabilela jo dute aldaba. Barreda korrejidorearen idazkaria da, eskean datorrena. Izuak moldatua dio hari ere begitartea, egiteko konpainia jaungoikoagatik korrejidoreari eta haren familiari, handia dela zarata, eta andre zein gizon, alderrai dabiltzala kalean barrena lehen kontzeju-etxean oihuka ibili diren guztiak eta beste batzuk.

Entzun dituela erantzun dio Enparan diputatuak, Azkoitirako asmotan dabiltzala iruditu zaiola aditzea. Gauzei neurria hartzea da, pentsatu du lasaitu nahian. Plaza aldenik alde pasa besterik ez du korrejidoreare-

nera heltzeko. Ondo zainduko du bertatik berea ere. Begi-bistan izango du atea. Morroiari utzi ardura eta urrats bizkorrez joko du idazkariaren atzetik. Heldu denerako, bertara bilduta daude tribunaleko zenbait eskribau eta prokuradore, baita presoen alkatea eta honen semea ere. Esker onez hartu du Barreda korrejidorearen emazteak atarian.

Iluntze hartan bertan ekingo dio probintziako diputatu nagusiak arratsaldetik nabarmentzen hasiak direnen izenak hartzeari. Kontzeju-etxean deiadarka aritu direnenak idatzi ditu aurrena Barredak berak eskaini dion orri buruan. Jarraipena, batari eta besteari galdetuta eman dio. Gau egiterako jakingo dute Juan Ibarguren txistulariaren etxera joana dela Piztia. Ibargurenen emazteak berak xehatuko dizkio hurrengo egunean gorabeherak, nerbioak airean artean; senarra nahi zutela zarata egileek, ateratzeko eta ateratzeko, txistua joz lagun ziezaien Azkoitiraino.

Danborra aditzen omen zuen emazteak, danbor sorgor bat, ezin esan baina nork joa. Irten zedila gizona txistuarekin, ateratzeko laguna larru hari, ateratzeko agudo emango ziotela sua bestela etxeari. Eguna ostentzen ari zen. Senarra ohean zeukala erantzun zien andreak, gaixo handi, uzteko bakean mesedez.

Datorrela semea orduan. Hala eraman omen zuten gizajoa. Behartuta, jauna, ez bestela.

Plaza zabalera begi diren leihoetako baten kontra paratua mahaia, eta berek jakin gaberik, matxinoen izenak Enparan diputatuaren orrietan etzaten hasi dira: Tomas Betolaza, idatzi du lehenbizikoa, letra argiz; Julian Segurola, Akotegikoa; Imilaun deitzen duten gizon bat, Aizpuru baserriko maizterra; Gorostizu anaiak, Bartolome eta Joseph; Juan Bautista Zuloaga, Txertakea gaitzizenez...

Zerrenda osatzen hasita dagoela ekarri diote lumera argia. Leihotik bere etxeari begira, ezin du burutik kendu arratsaldean Imilauni entzun diona:

– Hemen ez dago deabruaren legea baino!

Gau iluna da samalda Azkoitian sartu denean. Danbor hotsa dakar, Ibargurenen semea dator aurretik txistua joaz. Loiolako kolegioa eraikitzen ari diren harginak, zurginak, errementariak batu zaizkie Aldakaizko zubira aterata, azaoak eskuan. Gainontzekoak herriko sarreran dituzte zain, zumardiaren ilunpe gordean. Han dira, besteak beste, Inazio Basterretxe, Zankaluze deritzona, loiolatarra, idatzi zuen Enparanek handik egunetara zerrendari berriro ekin zionean; eta Joakin Sarobe, Aretxabaleta etxeko maizterra. Bi

hauek izan dira Azkoitiko sakristau den Inazio Larrañagaren etxeko atea jo zutenak. Seguru daki, salatzaileak ez dira itsuak.

– Zer dugu?

– Jo kanpaiak. Eta hobe su-deirakoak badira hiletakoa jotzerik nahi ez baduzu...

Zemai egin ziotelako egin zuela agindutakoa dio sakristau zaharrak, sinistu egin dio. Kolpeek mailatuta utzi diote sarrerako atea. Dundunek gaua bera izutu nahi zutela zirudien.

Beldurrak mudatu egiten ditu pertsonak, esango zion Peñafloridako kondeak Enparan diputatuari egunetara, Markinako Munibe jauregitik heldu berri zela.

Plazara heldu direnerako haurrak, nagusiak, zaharrak atereak dira kale nagusiko leihoetara. Lastasuen bristadek labain egiten dute etxebizitzetako horma kareztatuetan.

– Nora zoaz?

Urduritu egin da Esteban Alberdi kaleko atea zabaltzen sentitu duenean Teresa.

– Arima zarela esan liteke.

– Oraintxe nator. Egizu lo.

Oilarrak jo du ukuiluan, lastasuek nahastuta.

Kontzejupera heldu direnean, lehentxeago alkatearen etxeko atea eraisten saiatu diren berak ahalegindu dira udaletxekoa behera botatzen.

– Kendu paretik.

Lau gizon dira harritzarrari heltzen diotenak, auskalo nondik ateratako bi, hiru arroako harria gerri pareraino gora harrotua, atearen kontra eman eta eman sarraila lehertu den arte. Zaputzak hartu dituela dirudi. Arnas hotsek halako mataza bat osatzen dute atsedenaldian. Kentzeko ba. Ibairako bidezidorretik lurrari kendutako harria da. Zur sendoaren zauria. Ezpalak behegainera erortzen. Emango duela dirudi. Itxuraz, tranga du jarria.

– Zaudete! Dena txikituko duzue-eta!

Langa kakoetatik atera eta hormaren kontra uzterako sentitu du Azpiazu merioak oldea. Bata bestearen kontra estropezu egin duten oinak dira, atea zabalik mailetan gora abiatu direnak. Kolpearen berotan du mindua hatz txikerra Azpiazuk. Odolak gozotu dizkio ezpain gaziak. Zankaluzeren semea da bat, Inazio; eta Manuel Irigoien; eta Joakin Sarobe; eta Tomas Bastida, arotza, loiolatarra hau ere, idatzi du Enparan diputatuak merioari entzundakotik. Laurak sartu ziren lehenengoak kontzeju-etxean, lau hanka pare antxin-

txika batean eskaileretan gora. Atzetik jarraika saldoa, armategira zuzenean.

Nola soltatu zuten armak gordetzen zituen giltzarrapoa, ez du asmatuko esaten Azpiazu merioak. Dakiena da begiek ez diotela gezurrik. Batari eta besteari sakaka, armategira heldu zenerako eskuz esku zebiltzala eskopetak, Alberdi bizarginaren andrea zela balak banatzen ari zena, Teresa. Zegoen bolbora guztia hartu zutela, zorro bakarra utzi gabe biltegian.

– Gortzeko moduko kanpai-hotsa, jauna.

Eta hala, sua! eta erre! deiadar artean ikusi zituen irteten, eskailerak jaisten, pixkanaka plazatik urruntzen. Ezin izan zuen ezer egin, desenkusatu zitzaion Azpiazu merioa Narros markesari gau hartan bertan:

– Azpeitira zihoazela, hala entzun nien.

– Nori?

– Esteban Alberdi bizarginaren emazteari.

Berandu gabe, eta kanpai hotsek asaldatuta, abadeak berak izan dira inork eskatu gabe taldera bildu direnak harresietara heldu orduko. Erokeria hura lasaitzeko asmoz iritsi zirela, hortxe ez du dudarik Enparanek. Eta Hurtado, baita Joseph Joaquin Hurtado sindikoa ere. Berehala asmatu du Piztiak zer egin heldu berriekin. Buruan jarri dituzte, eta lastasuek dena

baino gorriago ageri den herriko bandera eman diote Joseph Izagirre apaizari. Hurtado doa erdian.

Ez doaz entzun gabe:

– Gugana badatoz, zuek zoazte lehenengoak.

Gaueko hamarrak pasatxo dira Azpeitiko dorreko erlojuan Enparan diputatuak korrejidorea agurtu duenean. Inor ez plaza hutsean. Erabateko isiltasuna. Atarira iritsia dela, ezezagun batzuen itzalak sumatu ditu arkupeetan. Orduan entzun du:

– Hau ere kapelazuria duk!

Ohi duen moduan jo du aldaba, azkar ireki diezaioten. Kolpe bat, bi azkarrago segidan. Non da morroia. Luze egin zaio. Gainean du gerizetako bat eta honen hotsa, ezagutzen ez duen gizon bat gero eta gertuago. Jakin badaki armaturik dabiltzana, labana bat, pistola, eskopeta-begia jarriko diote saihetsetan, eta orduan zer.

– Edan!

Ostikoz hildako katakume bat bezala astindu dio muturren aurrean zahatoa ahots zakarrak.

– Edan!

Izuak gogortuta du ahoa Enparan diputatuak. Ezpainak busti besterik ez du egin. Mikatza dago. Eskerrak ematea ere pasatu zaio, ez hala sentitzen duela-

ko. Etxeko atea doirik zabaldu eta barruko tortxek atari izkina argitu dutenean, atzamarrak jakako poltsikoan sartuta ikusi du morroiak.

– To, pezeta bat, lagunekin zerbait edan dezazun.

Dardarka dago Enparan diputatua ateari giltza eman dionean. Handia du amorrazioa. Ez du arratoi haietako bakar bat ere ezagutu zerrenda osatzen segitzeko.

Hemeretzi

Ibilia bera oso da bestelakoa gauzak berotzen direnean, Esteban.

– Orduan egia da kontatu didatena, Teresa, han izan zara...

Harresitik kanpo kamioa ixten duen txara ertzera helduta, ibai bazterretik jotzea erabaki dugu, zaharrenei bidea zelaitze aldera. Lastasuena, ez dugu ondo neurtu. Aurreneko santutxora iristerako itzali zaizkigu gehienak. Azao bakan batzuk baino ez dira gorde geroko, zer gerta ere. Bidea dago Azpeitira oraindik.

Ibilera oso da bestelakoa taldean zoazenean. Ilunpea bera zapaltzen zabiltzala dirudi, Esteban. Hodeiek erdi estalian duten zerura bihurtu ditut begiak maiz. Ilargia pixkanaka haziz doan azkazal muturra da, sehaska baten moduan etzana. Hurrengo ilbeheran moztuko dut ilea. Zerurik gabe, lepoa luzatzen dudan aldiro multzotxo polita bildu garela begitantzen zait; atzetik, beste horrenbesteko samalda dator. Haize fina darabilgu, aldatua. Munategi jo dugunerako apalduak dira beroenak. Tarteka baino ez dakarkit oihuren

bat gauak. Baina ilusioa azalpean da, poza da taupaka, seguru egoteak ematen duen argialdia.

Txilibitua mutu, danborra besterik ez da entzuten, batere gogorik gabe joa. Erritmorik gabeko danborra arnasa-hotsei erakusteko oinei nola eragin. Muino gainean, argi bat iruditu zait ikustea gordeka sagasti zaharretik gora, komentura bidean.

Gauaren kabuan zer gertatuko den, ikusi egin dut, Esteban. Azpeitian sartu eta batera jo dugu sakristauaren bila, segituan joarazi dira dundun handiak, esnatu da loeroan dagoena, nagusitu dira orroak, izutu ditugu ale-jabeak eta peluka jendea, eta eguna argitzerako beharko jaitsi salneurriak. Poza azalpetik irten nahian. Kontzeju-etxean Bikuñaneko idazkarigaia libratu dugunetik buruan erabili dudan bezalaxe gertatuko da dena, nola bestela. Nola indarka ez bada onean hamaika eratara erregututa dagoena. Bestela umeak gosez hiltzen ikustea gelditzen da. Mariarenak, Esteban, gure ilobak. Eta geureak, bagenitu. Lehenago garbituko dut neuk kapelazuriren bat, mundualdi honetan egiten dudan azken gauza bada ere.

– Non dun gizona?

Ohean utzi zaitudala erantzun diet zugatik galde didatenei, sukarrak hartua berriro ere, eta egia esan

poztu egin naiz horrela fortunatu delako. Ostean, jakin badakit ez zenidala lagunduko. Zer esan behar nien? Fedea diozu Peñafloridako kondeari, Esteban, nik ez diodan miresmena. Aspertu ere egin naiz entzuten: azken hilabeteetan nirekin izan duen tratua ez da nahiko seinale, Teresa? Sinistuta zaude estimatzen duela egiten duzun lana, zeri eta errekako izain zikin batzuei begira kondea, medikua ere Gasteiztik ekarri duenean, ez du bada beste zereginik, gizona. Prezioak inor ezertara behartu gabe jaitsiko dituztelakoan bizi. Zeure hitzak dira, ez omen dagoelako maiorazkoen buruan inori kalterik egiterik. Gosea zerutik baletor bezala.

Hori du erdiko apalak, Esteban. Behekoa izan nahi ez. Eta ezin goikoa izan.

– Bakarrik laga al dun, Teresa?

– Etxeko ahizparekin zagon. Ondo zainduko din Mariak.

Zuziak eskatu dira buruan doazenentzat, ezin jarrai omen dezakete itsuka. Abarketak orpotik sartzeko aprobetxatu dut bide bazterreko muna magalean eserita. Benetan dena baino handiagoa dirudi banderak Izagirre apaizaren eskuetan, berriz ere astintzera behartu dutenean.

– Ixo!

Danborrarekin nahaste mututu dira denak. Antxintxika laburrean irabazi dut galdutakoa. Txakur baten zaunka auskalo non, gaua zulatzen. Beste batena berehala, aurrekoari erantzuten. Saihets utziak ditugu Loiolako obra isilak aurreneko adore oihuak heldu zaizkigunean.

– Hemen dira!

Ilunpetatik sortutako andre-gizon gehiago bildu zaigu. Ordu erdi falta da gauerdirako Azpeitiko erreballera iritsi garenean. Espero aldean jende asko bildu da kamio ertzean segizioari ongietorria egitera. Mundua datorkigu aldapan behera, bozkarioa eztarrian:

– Hemen dira Azkoitikoak!

Bidean pentsatu bezala gertatu da hortik atzerakoa. Deiadarrak hazi egin dira, sua horiei! erre! erre! orro batean hasi naiz neu ere, sua! sua! erre horiek! ez dago sua bezalakorik dena garbitzeko, izan baztangak kutsatutako izara izerdiz zikinduak edo etxe atzeko pikondopean kiskaltzen dituzun izainak, gaixoen odolez puztuak. Lehenago parrokiaraino joan beharra dago, ordea. Sakristaua atera dugu ohetik, lotarako atorra erdi bildua. Janzteko betarik eman gabe igoara-

zi dute kanpandorrera, eta han belarriak lehertu arterainoko dinbili-danbalara behartu.

– Zertarako hainbesteko iskanbila?

– Zerurik baldin badago, jakin dezaten nola bizi garen lurrean...

Aldrak hori du. Barnean zaudela ez duzu zuk aukeratzen nora zoazen, joan egiten zara, amuarrain zara, zarbo, aingira joairan behera. Areago, erreka bera zara, hori du legea. Eta konturatzerako, bertan zaude. Lagatzen duzu bakean sakristaua gaixotzerainoko izuarekin, eta daukan ondare guztia alea biltzen, kontatzen, saltzen egin duen Joseph Jazinto Azkueren etxe atarian zaude, zuzi piztu artean. Katamarroa bezain arin igo dira primizieroaren balkoira bidean aldamenean izan ditudan Loiolako bi harginak, hain ohituak kolegioko aldamioetan. Hazi egin dira deiadarrak, pasatu dizkiete garroteak kaletik, hautsi dituzte kristalak, sartu dira etxean.

Aldran, entzun egiten da oihu bakoitza.

– Non da urde hori?

Joana da, eskapo egin du Azkuek arratsaldeari tankera hartuta. Emazteagatik galdetzea, alferrik da. Nicolas Altunaren arreba da Manuela. Liburuak bota dituzte kalera, balkoi hautsitik behera primizieroaren li-

burutegitik. Frantsesez omen daude asko, horrela esan didate zapaltzen ditudan bitartean. Badira ordu batzuk zalgurdia hartzen ikusi dituztela andre-gizonak, auskalo nora joan diren. Berarekin eraman du urtebeteko umea etxeko señorak. Horrela erantzun die etxean bakarrik utzi duten inudeak. Liburuak apaletatik ateratzen ari diren hargin biak ezagututa azkar joateko esan dien inudea, ez daudela etxean ez bata eta ez bestea, alferrikakoa dela ausiabartza hura. Joateko azkar, hala esan die, bestela txikituko dituztenak berak izango direla harrapatzen badituzte.

Hitz horiekintxe, Esteban:

– Txikitu egingo zaituztete!

Bikuñaneko idazkarigaiak ordu batzuk lehenago erabili zituen hitz berberak.

Amuarrainei, zarboei, aingirei ez zaie uretatik kanpoko ezer iristen, ordea. Lantegi handia dugu egin beharrekoa eguna argitu aurretik. Erabakia hartuz gero, bukatu beharra dago hasitakoa. Estutu beharra dagoen prezioen baja sinatuko badute.

Etxean harrapatu duguna Parabola deritzon bat izan da. Ihes ez egitea erabaki du. Atorra hutsik jaitsi da etxetik, txakur zaunka artean. Sakaka eraman dute

airean kontzeju-etxera, atzetik soka bat duela dantzan.

– Utzi zapatak janzten behintzat!

– Primiziak kobratzen presa handiagoz ibili haiz ba.

Ate nagusi ondoko errejetan lotu dute. Ez da egon bakarrik. Luze gabe, Enparango eta Soreasuko errotariak ekarri dizkiote konpainia egitera.

– Zer egin dugu ba guk!

Bakailao lehorraren pare utziko dituztela abisatu zaie.

– Zuek kieto hementxe.

Erdikale barrenean naiz, Esteban, Bikuñaneko etxetik alea pisatzeko neurriak ateratzen hasi direnean. Arrastaka, algara artean eraman dituzte kalean gora anegak, gaitzeruak, lakariak eta imilaunak. Ostikoka ekin diete tarteka, eta hainbesteko indarrez, gorri hotsean sumatu dugu Etxezuriko morroi gaztea, orkatila bihurrituta. Osorik iritsi direnak plaza erdian lehertu dituzte garrotekadaka, beste etxe batzuetatik bildu ahal izan diren guztiekin batera. Azkenik, txingartu egin ditugu.

– Zu ere tartean, Teresa?

Ezin dut hau guztia isilean eraman, Esteban.

– Zein. Esadazu zein ziren.

Enparan diputatuak izenak nahi ditu, etxeko leihotik suaren bueltan sumatu izan dituen itzalen jabe bila emango ditu ondorengo egunak. Amorru horrexek itsutu du. Ardo mingotsa eskaini dion gizonak eragindako nahigabeak eraginda, erabakia du gau osoan kalera ez irtetea.

Plazako suaren ke usaina.

Zaratak bultzatu du leiho ertzera. Zirrikitutik begira, luze gabe korrejidorearen etxea da sutan dirudiena. Esan liteke barnean dauzkaten argi guztiak piztu dituztela. Azkoitiko abadeetako bat ezagutu du jendetzaren erdian, bandera eskuan. Hurtado eta Lertxundi jaunak atariko harrizko aulkien gainean dira, tente, lasaitasun eske. Basazabal alkatearekin batera, lanak izan dituzte piztia isilarazten.

Papera altxatzen ikusi ditu, denen aurrean leitzeko gertu. Tortxak itzali eta zirrikituan utzi du leihoa. Eskertzen da goizaldeko aire freskoa.

Ozta heltzen zaio plaza bestaldeko ahotsa Enparan diputatuari. Kapitulazioak sinatuak dituzte. Hogeita sei errealera jaistea erabaki da anega garia, eta hamaseira artoa.

– Neurri bakarra erabiliko da erosteko eta saltzeko, Esteban!

Ezin izan du gehiago aditu Enparanek bere ezkutalekutik, Piztiaren bozkarioak ito du ondorengoa. Leihoa itxi eta hasperen egin du. Oin ortoziak laztandu ditu. Orpoetako babak lehertuta, lasaiago dago.

Goizeko ordu biak dira Azkoitiko matxinoei Artzubiraino lagundu zaienean.

Hogei

Etsiak hartu du orduen ibilian Enparan diputatua.

Ez du gau osoan begirik biltzerik lortu kapitulazioak sinatzen ikusi duenetik. Leiho azalak ahalik isilen itsutzeko agindu eta liburutegiko besaulkian eseri da, argi dardarti baten itzaletan, tapaki mehe hutsa duela sabel gainean. Su gaineko erlojuari begira harrapatu du oilariteak.

Gauzak bere onetik atera direla sinistuta bizi izan ditu azken orduak. Azkoitiko gertaerak, Loiolako harginen ukoa, matxinoen harroaldia kontzeju-etxean, Bikuñaneko idazkarigaiaren amenazua, mozkor-oihu haiek, su hari, su besteari, erre behar dutela aurrean harrapatutako dena, zer gizalege da hau. Etxeetatik biluzik atera eta garbitu egingo dituztela, animaliak bezala odolustu eta larrutu. Zergatik umilazio hau baina.

Ez da egia. Ez da egia, egin du gogor bere kolkorako, ezin ordain daitekeela anega garia hilabeteko lanarekin. Pixka bat estuago bizita ere, zer. Ez dira garai errazak inorentzat. Gainera, ulertu beharra dago: ez zen uzta ona izan iazkoa, azken hondarrak dira bilte-

gietan geratzen direnak, eta apirila, behar ez zuen hila, ez da sasoirik onena alea erosteko, prezioak oso gora jotzen duelako bestela ere. Eustea da. Eustea beste pixka batean eguzkiak soroak gorritu eta mandioak bete arte.

Zer egin daiteke naturaren eta merkatuen logikaren kontra?

– Esan, zer egin daiteke?

– Hasteko, lapurrak bistatik kendu.

Ez zuen ordu arte inoiz begien aurrean izan guztien artean nabarmen agertu den emakume hura. Azkoitikoa da, itxura; hala esan zion berak, kontzejuetxeko eskaileretan behera elkarren ondoan zihoazela galdetuta. Zuzen antzean mintzatu zitzaion, burlaize doi batez.

Gezurretan aritu zitzaiola ere pentsatu zuen.

– Jakizu hauekin.

Galdetu egin behar izan zuen nor zen. Esteban Alberdi bizargile-zirujauaren emaztea omen.

Begiak itxi ditu. Hozka egin dio beheko ezpainari.

– Prezioak ez ditugu guk jartzen...

Ez da egia osoa, baina aparte dabil erabateko gezurra izatetik. Badira urte batzuk bihiaren gorabeherak ez direla herrian ebazten, Donostian baizik, kanpo

eskaerak behartuta. Kontsulatuak erabakitzen du zenbatean saldu garia eta artoa, eta negozioaren jabe egin diren enpresek, horietako asko Enparan diputatuaren aspaldiko ezagunak: Jean Bausignac, Nicolasa Errazkin, Antonio Betbeder, Rieumes y Burgue, Juan Aragorri, Juan Bentura Aranalde, Larralde-Diustegui e Hijo, Juan de Carrera, Bernardo Dehez...

Egoerak ez du atzera bueltarik, mundua da, gelditu gabe jiraka dabilena. Dagoeneko albistea iritsia izango da, haien iritzirik gabe erabaki dute Barreda korrejidoreak, Basazabal alkateak eta Altunatarrek prezioa jaistea, denen on beharrez, gauzak zeharo okertuko ez badira. Ulertuko ahal dute.

Kanpaiak berriro. Herabe hasieran, eroago gero, goiz-alba itotzerainoko danbak. Ez dira eguerdira arte erretiratuko, pentsatu du Enparanek. Ez dute etsiko esan duten bezala baten bat eseki arte. Jaitsi dira prezioak, berak ikusi ditu zuziak pozez astintzen korrejidorearen etxe aurrean, jaun lekukoak sarrerako harrizko aulkietan zutik, etorri diren bezala apaiz banderaduna eta Hurtado dituztela aurretik erretiratzen azkoitiarrak. Badira ordu batzuk poz oihuak erabat isildu direla.

Bakailao sikua bezala, garbi. Auskalo nondik zintzilik. Eta orduan zer.

– Urrestillara!

– Goazen Urrestillara!

Horrexeri izan dio beldurra, Azkoititik heltzen ikusi orduko izu horrexek izan du lotua Enparan diputatua. Hau zabaldu egingo da, lupua da, baztanga, su harroa lehor dauden lastategiak hartzen. Ez dira hor errendituko, dena konpondu delakoan etxeratutakoak lo dauden artean matxinadaren lupua Ibaieder errekan gora igo da, Garrintza azpitik igaro da baztanga, sutan dugu Beizama.

Mozkorrak igarri ditu leihopean, ate joka.

Ez luke jakingo esaten azkenean loak hartu duen. Kontua da lehen argi firrinta sumatu duenean zeruertza zauritzen, gauza dela gauak utzitako hots guztiez oroitzeko, bere gogoan berreraikia duen plazaren puntu bakoitzean kokatzeko deiadar, aldaba hots, amenazu bakoitza. Leher eginda dago. Pixka bat oheratuko da, ezta pare bat ordu ere, bila etortzen zaizkionerako.

Musua garbitu, sabela bourdalou ekarri berrian hustu eta bezperako arropekin jaitsi da plazara, Basazabal alkatea eta Altuna nagusia dituela alderik alde.

Orduantxe ezarri dio errealitate txatal bana loarekin bezainbat izuarekin nahastu zaizkion lastasu, kolpe, orro haietako bakoitzari. Horrela jakin du larriak izan direla mehatxuak gau osoan, baina bakar bat ez dutela zauritu.

Hala aitortu diote, matxinoen atzetik ibiliak dira biak ala biak goizalde arte, joateko etxera erreguka, erretiratzeko mesedez, dena konponduta dagoela. Urrestillara joanak behar dute hala ere askok. Entzun ditu. Baita Beizamara ere. Lupua dira. Harrotuta dabiltza. Urrutiegi heldu dira. Ardoa ekarri du solasera Basazabal alkateak, ardo bila aritu direla amorratuta, ostatuetako ateak ere lehertu dituztela zahagiak kalera ateratzeko.

– Edan gabe ez lirateke erdia egiten ere ausartuko.

– Ni ez nago hain seguru.

Mundua egon da bildua harresiaz bestalde, plaza txikira. Ez dira erraz iritsi kontzejuko atera, eskaileretan ere mukuruan baitago jendea. Belarri ertzean oihu egiten diete umeek, andreek, gizonezkoek. Izerdi hatsarekin nahasten den kiratsa, ukuiluetakoa, pixak erretako haurrena, ardo mingotsarena. Zainak lehertu

beharrean irentsi nahi dutela diruditen begi gorrituak. Zergatik gorroto hau.

Mahai gainean bermatuta, azken kapitulazioa idazteari ekin dio idazkariak. Armak aterata dituztela ohartu da Enparan diputatua. Badaezpada ere, badakizu, erantzun dio Altunaren semeetako batek hazpegian galdera igarrita. Basazabal alkateak non sinatu behar duen galdetu du. Isiltasuna eskatu eta orrian jarritakoa irakurri du idazkariak amaitu dutenean. Gauean korrejidorearen etxe atarian leitutakoa da gutxi-asko, ebazpen berriez osatua. Prezioen jaitsierari eta alea pisatzeko neurri bakarra erabiltzeari erantsi dizkiete beste eskari batzuei emandako erantzunak, tartean pattarraren eta mistelaren salmenta libre uztea, baita olioarena eta bakailaoarena ere. Otea mozteko baimena ere ematen da, lurraren ongarri moduan erabiltzeko bada. Eta bihia, jendea horren beharrean dagoela paper gainean aitortuta, ezin izango da ez garirik eta ez artorik herritik atera. Hala eman dute fede orri barrenean Barreda korrejidoreak eta Basazabal alkateak ez ezik baita bertan diren sindikoek, eta agirian jartzen duena ahoz gora euskarara itzuli duen Inazio Arostegi erretoreak ere.

Pozak hartu du jendea. Sinadurak irakurtzen hasi orduko hasi dira elkarri estutuak ematen, jaitsi egin dira garrote-buruak eta begiz behera paratu zizpak. Malkoak ikusi ditu Enparan diputatuak begietan.

Elizarako bidea, kontzejurakoa baino arrunt samurragoa gertatu da. Arostegi erretoreak berak proposatu du San Inazioren irudia ateratzea esker onak emateko, gauza ona dela gizakien arteko auziak onean konpontzea, inori minik eman gabe. Ondo hartu dira apaizaren hitzak. Zaldi gaineko batek eraman du mezua Loiolara. Izateko dena prest Te Deumerako, janzteko eliza apain, jartzeko jakinaren gainean bertan diren jesuita guztiak.

Gaueko kaosak forma hartu du: elizgizonak eta agintariak aurrena; herriko maiorazkoetako nagusiak ondoren, kapelazuriak ondo tente; atzetik, nekazariak eta errota nahiz burdinoletako langileak, eta Loiolako harginak, arotzak, morterogileak eta gurdidunak. Gizonak hiru ilaratan lehenbizi, emakumeak eta haurrak atzetik, ohiturari jarraiki beti egin izan den moduan.

Zerua bera da mundura etorria.

– Kaka alu bat egiten zioat nik Justiziari eta prozesioari!

Enparan diputatuak berak ez du horrelakorik entzun, ulertu ez duen nahastea izan da bera pasatu eta gero. San Inazioren irudiari Loiolatik bueltan elizaraino lagundu ondoren kontatu diote dena. Plaza Txiki parean zihoan prozesioa, Larralde gaztearen etxetik gizona agertu denean leihora, ardoak ondo berdinduta itxuraz. Aurreko gauetik erretiratu gabe dabiltzan horietako bat, esan diote.

– Hemen abadeek eta handi jendeak deabruaren legea da nahi dutena, ez jainkoarena. Horrela bada, izan bedi deabruaren legea guztiontzat!

Prozesioa abiapuntura heldu da, bozkarioaz zabaldu dira parrokiako ate nagusiak. Gorde da santu hartua bere kaperan eta hautsi dira ilarak. Oihuak tarteko, nahasten hasia da giroa atzera ere. Ezagun da jendearen aurrera-atzerakoetan. Etxeraino lagunduko diotela agindu dio Enparani Barreda korrejidorearekin datorren Nicolas Altunak. Berehalako batean gertatu da. Harresiko atea pasatzera doazela inguratu dituzte. Makilakada sentitu du Enparanek buruan, beldurtzeko asmoz emana min egiteko baino. Eta algara mutu bat, inguruan direnak kutsatu dituena.

Jiratzen ausartu denean ikusi du, txarro zikin bat, Altunari begi aurrean jarri diotena.

– Edan!

Ezagutu du ahots hura. Bezperan berari ere eskaini dion gazte baldan bera dela esango luke.

– Edan zuk ere!

Altunak lau pezeta eman dizkienean utzi diete alde egiten.

– Esadazu nor diren. Izenak, Nicolas.

– Jo zaituena Patxikatxuriren semea da.

– Eta bestea?

– Mozkorra?

– Ez, bestea. Prozesioari eta justiziari kaka aluka aritu dena.

– Hori ez duzu azpeitiarra...

Hurrengo egunean jarri dio Altunak Enparan diputatuari gizonaren izena daraman papera liburutegiko mahai gainean: Agustin Ozerinjauregi. Zeanurikoa jaiotzez, hogeita hamar urtekoa, Maria Agustina Elkorekarekin ezkondua. Kapelagilea lanbidez.

Enparanek arkupe hutsetara begiratu du:

– Berak ere ez daki nola aldatu zaion bizitza gaur.

Hogeita bat

– Dantzarik egon al da?

Dantzak askatu egiten ditu oinak, arindu arima, zehaztu norberaren irudia talde lausoan, Esteban.

Poztu egin da emaztea etxean sartzen sentitu duenean. Ohean eserita erantzi ditu Teresak oinetakoak. Segituan konturatu da Esteban apal artean zerbaiten bila aritu dela. Leihoa zabaldu du.

Kiratsa da, egunak pasatu ahala minagoa deritzon kerua.

– Jaikita ibili zara? Ez zaizu komeni...

Estebanen aldamenean etzan da, gizonak utzitako itzalaren gainean. Eskuak atorra azpitik sartu eta soina ohi baino beroagoa duela iruditu zaio. Papar gainean pausatu dio burua, nabarmen entzun dizkio taupadak. Espero bezala, berehala sentitu ditu atzamarrak ile kizkurrean jolasean. Gizonak ikusi ez dion barre-antza ubel bat loratu zaio.

– Jenderik izan al da?

Senarraren oinen bila aritu da, sarritan egin ohi duen bezala. Estuago lotu zaio. Zango korapilatuek babesa ematen diote, ez dagoela bakarrik sentiaraz-

ten. Orain ez da hori, baina, Teresaren nahigabearen arrazoia. Nahiena oker egotea, baina lepoa egingo luke nafarreria datorkiola Estebani, abixua ari da jotzen sukarra.

– Kontadazu ba.

– Ikusi behar zenuen, Esteban, ikustekoa izan da. Gregorio Beltza txistuarekin, etxerik etxe, jendea dantzarako ateratzen.

Teresaren mintzoa arindu egin da, begiak piztuta ikusi dizkio Estebanek burua bere aldera jiratu duenean, paparreko balakuei utzi gabe.

– Beren bila joan gara. Hurtadonekotik emaztea eta alabak atera ditugu, Hurtadok berak baimena emanda.

Bozkario batean ikusi dituztenean atarian, lotsor agertu direla neska gazteak, harroago emaztea. Ez ukitzeko, joango dela dantza-sokara, baina ez ukitzeko bera esku zikin haiekin.

Eguzkitatik itzaletara doan sugandila da Teresaren mihia. Hazpegi barez entzun dizkio Estebanek plazakoak, nola antolatu den dantza, alkatea bera antxiti, Areitzaga soka ixten, eta mundua tartean, zahar eta gazte, ezkondu eta ezkongabe, pobre eta aberats,

eskuz esku denak Azpeititik goizaldean ekarritako kapitulazioena ospatu beharra esanda.

– Ez gaude usatuak, baina hau ere ikusi dugu. Beti dago aurreneko aldi bat, Esteban.

– Baina ez berez.

– Ez, berez ez, nola ba.

Isildu egin da Teresa, baina pasatu zaio burutik: zer dator ba mundu honetan berez, Esteban, euria, agorra eta hondamendia ez bada.

– Atertu gabe ibili dira San Martingo kanpaiak.

Eguna zabaldu gabe zegoen artean Beretarbide, Katarro eta botikariaren morroia igotzen ikusi dituztenean San Martinerantz, txarako zidorrean gora, sorbaldatik helduta tarteka, kantuan irudiz. Kanpai-sokari, izututa iratzarri duten seroraren baimenik gabe ekin diote. Zertan dabiltzan galdetu dienean, haserre izpirik gabe, deika, erantzun diote. Txarrean ez, errepikatu dio gerora serorak Narrosko markesak galdetuta. Deika, andrea, deika. Berak kalean entzun dituen bezalaxe datozkio hitzak Teresari, eta halaxe entzun ditu senarrak emaztearen ahotik, kezka arrasto batez.

Estebanen atzamarrek ilean korapilatzeari laga diote.

Zerua zulatzeko besteko kanpai-hotsa.

– Neurriak biltzeko, Esteban. Horretarako izan da deia, bart gaua ezkeroztik bakarra baitago. Akabo anega handietan saldu eta txikietan erosi behar hori. Akabo lapurreta eta akabo lukurreria. Hobetoxeago biziko gara orain.

– Zuk uste?

Soka-dantza zabalgunera heldu denerako, ikusgarria da plaza erdian egina duten txondorra. Zenbatetan erabili izan dituzten anega haiek. Burdinazko uztaiak libratuta, ola gehienak solte daude, hautsita asko.

– Izain onik badaukazu, Esteban?

– Zer ba?

– Zeuk beharko dituzulako laster.

Txistua hasi denean, Olano alkatea jarri omen da aurresku. Hala hitz egina dute aurretik maiorazkoek, kontzeju-etxean elkartu direnean bezperako kapitulazioak atzera idatzi eta pare bat arau gehiago eransteko. Ahal diren puska guztiak bilduko dira: ogia, opilak eta ardo beltza aterako dira kontzejuaren kontura. Dantzan parte hartuko dutela erabaki dute. Dena Piztiaren jostagarri, bakea nagusitu dadin.

Narrosko markesak arratsalde hartan bertan esango du inork entzuteko moduan:

– Hemen laster beste soka bat ibiliko da.

Narros jakitun da zer ibili diren goiz hartan Azpeitian, zaldi gaineko batek ekarrita berriak. Dantza izan da han ere, lotsagarri erabili omen dituzte Barreda korrejidorea eta Enparan diputatua. Eta ezin etsi batzuk Azkue primizieroarekin. Etxe batean zegoela gordea aritu dira batzuk, eta hara joan behar zela, bizirik harrapatu eta lepoa egiteko; beste batean zegoela, berriz, besteak, ez zela libratuko. Akabatu egingo diagu, akabatu. Izan omen da mojek dutela ezkutuan esan duenik ere. Sua eman nahi izan diote komentuari orduan.

Frantziara pasea dela esan zaienean soilik lasaitu omen dira.

– Izainak behar ditugu, Esteban. Zuk nafarreria duzu.

Marruskatutako begiak ditu zain. Dena baino zaharragoa dirudi. Eztul egin du, aurpegia bestaldera biratuta.

– Eta markesa plazan izan al da?

Bolo-bolo dabiltza Narrosen kontuak jendearen ahotan.

– Ez sinistu erdirik ere, Esteban.

Abiatu da, antza, kontzeju-etxerantz, baina kanpoaldean pilatutako jendearen berbaro mutuak izutu du. Nahigabea darabil egunetan, zain guztietatik txindurriak balebilzkio bezala, halako landare-izerdi bizi eta era berean motelgarri hura soin, beso eta zango barrenean. Parrokia aldera itzuli da, eta hantxe egon da, beste maiorazko batzuekin, kontzejuko batzarra noiz amaituko.

Imintzioka hartu dute adiskideek markesa. Hurreratzeko.

Izua dakar berarekin.

– Ez duzue sinistuko.

Eta hala kontatu die atarian babesean zeudenei, sustoa aldetik ezin kendurik datorrela, nola ausartu den ezagutu ez duen gizon bargasta bat miserikordiarako zerga ken diezaiola eskatzen. Txakur baten modura eskatu ere, negarretik duena amenazutik atzetik, ameto eman duen arte.

– Aurtengoagatik lagatzeko esan diot.

Ez ahazteko moduko estutasuna. Amorrua ezpainetan. Justizia izan da Narrosko markesak sarrien erabili duen hitza. Justizia, ez mendekua.

Amaitu zain izan ditu adiskideak kontatzeko Sudupe primizieroarena, nola harrapatu duten kalean dan-

tzara behartuta doala, nola bildu duten bost edo sei lagunen artean arkupeetan eta belaunikatzera behartu.

– Emaguk muin.

Esku-gain ezin beltzagoa jarri diotela ezpainen aurrean, botakagura sentiarazteraino lohi. Eta musu ematera behartu.

– Narros-eta ez dira geldirik egongo, Teresa.

– Ixo, gizona. Ixo...

Teresaren ezpainen beroa masailean. Estebanen gorputza artegatu egin da, besarkatu egiten du, eta emaztearen eskuaren bila hasi da. Zakil gainera eraman du.

– Gaixo eta jolaserako gogoa hala ere?

Baietz buruarekin Estebanek.

– Ezin dugu, gaixorik zaude.

– Eskuarekin badarik ere...

Hogeita bi

Lo al zaude, Esteban?

Ez dago lo, ez esna, izarapean dago, bataren hatsa bestearenarekin nahastua, arnasa arnasarekin bat, bi hasperen ez dabiltzanak elkarrekin jolasean baina estropezu egiten dutenak, irri txikiak lasai lehertzeraino. Horrela da ia beti azkenaldian. Teresa maindirepetik irteten eta komunera arin batean altxatzen. Etengailuaren klika. Konketa gaineko fluoreszentea piztu da. Txiza komun hondoko ur putzutara hari mehe batean isurtzen. Usain gozoko paper bildua jiraka gero. Ur lohitua eta hatz luzeak paper zurian jaso ahal izan dituen hazi arrastoak eramaten bonba turrusta. Lehengora itzuli da fluoreszentea gero. Oinutsik hurreratzen zaion gorputz biluzia, ostera ere izarapera datorrena, azal hotzagoa dakarkiona abaro bihurtutako gozotasunari. Laztan bat ipurmasailean. Ezpainetan luzatzen ez den musu bat. Eta komuneko paper zati bat, eskura ematen diona. Tira, garbitu zaitez, umeak laster esnatuko dira, ez badira itzartu komuneko zaratarekin.

Zoriontsu izana naiz. Lo nago?

Orain ez dugu lehengo larritasunik. Umeak heldu dira. Azkenean heldu dira.

Zabaldu begiak eta ikusi, Esteban.

Argi urdinkara hau berriro ere. Ginebra izotz betean, Artikoko uretan igeri dabiltzan niniak, erabat aske ez direnak. Orpo, behatz, oin, belaunburu, izter pisutsu hauek. Esku baldarrok. Ohe estu hau. Bat, bi, hiru, zenbat hodi oheburutik zintzilik jakizu dagoeneko sentitzen ez dudan zer pozoi txertatzen. Joaten ez zaidan bero lotaratua garondoan, gero eta biziago, zirkinik txikiena egiteko beldurrez naukana.

Txindurrien, zimitzen, bartzaren hazkura odol belztuan.

– Teresa!

Udaberri langarra zen, ospitaleko jardinetako zuhaitz bezatuak pixkana-pixkana melatzen. Muino naroak ustez eraikinak babesten zituen hesiaren bestaldean. Zorri piztuek eginarazitako txalet gorrikarak bide amaieran lerroz lerro, batere gusturik gabe eraikiak. Auto zuri bat kamioan behera. Zergatik euria, ordea, etorri zitzaion gelatik begira dagoen Esteban Alberdiri. Noiz zen ba, eguzkiak dirdira griskara batean zituen txalet gehiago eraikitzeko prestaturiko orubeak.

– Zenbat denbora daramat hemen?

– Ia hiru aste.

– Zer gertatu zait?

Teresak etxetik zekartzan hitzak neurtuta. Aurreneko aldiz bisitan joan zitzaionetik egunak zeramatzan bere buruari errepikatzen unea iristen zenerako, ispilu aurrean ere entrenatua zuen zergatik ez zekiela. Esan behar zionak baino Estebanek nola hartuko zuen izutzen zuen, azkenean, seguru zegoen, galdera helduko baitzen.

Ertzainak izanak ziren deklarazioa hartzen, baina ezin izan zuten ezer atera Estebanen hitzek osatzen zuten anabasatik.

Txatartegian giltza topatzea da zure gizonari ganorazko ezer ateratzea, izan ziren telefonoz entzun zituen hitzak. Beno, zure gizon ohiari, zuzendu zuen. Estebanek ez zuen ezer gogoan, antza. Ez afaria soziedadean, ez Karmenen tabernan egon zenik, ez etxerako bidea, ezer ez. Inkongruentziaz beteriko deklarazioa izan omen zen, egoera ikusita argitze-agirian hitzez hitz hartu ez zena.

Ahal bezain azkarren azaldu zion komisaldegiko deia Teresak Estebani, astiro, silabak ongi ebakiz, jakin nahi zuen ulertzen ari ote zitzaion. Nola deitu

zioten handik bi egunera, bazekitela banatuta zeudela, baina umeak daudenez tartean, abisatzea ere egoki iritzi ziotela. Ez zekitela oso garbi zer gertatu zen. Goizaldean jaso zuten abisua, aparkatutako auto biren artean aurkitu zuten gizona. Kolpeagatik, edozer izan zitekeela jakinarazi zioten. Kotxe batek bota zuen akaso, edo beste zerbait, borroka bat, lapurreta ahalegin bat, nahiz eta ez zuten uste, balioko gauza guztiak patrikan baitzituen jaso zutenean.

– Ez zara ezerekin akordatzen?

Nola ez naiz akordatuko oraintxe esnatu gara eta umeak baino lehenago, zuk nahi izaten duzun moduan elkarri laztanka hasteko, musuak ahoa handi, aldian behin bakarrik zabaltzen direnak horrela, bestea jateko keinuz, bestea berotzeko asmo hutsez barruak hala aginduta baino. Mekanikoa bihurtua dugu azkenaldian, aurrekoetan bezala mintzo dira bion gorputzak, berdintsuak dira tenpoak, eta lehen baino azkarrago doakigu dena, ahalik eta isilen lehertzen garen arte biok. Ni aurrena normalean, zu geroxeago ondoren, eta amorrua hartu diozun oheak astinaldi bakoitzarekin hautsi egin behar duela dirudielako.

Somierra aldatu behar dugula esan duzu, nola ez naiz akordatuko.

– Bisitan zatozen aurreneko aldia da, Tere?

– Laugarrena, Esteban, laugarrena. Ez duzu gogoan? Ez iezadazu hori esan, gure solasaldi hauexek animatu dituzte-eta medikuak.

– Eta zertaz aritu gara?

– Umeez, lagunez, lehengo kontuez...

– Noiz eraman behar nauzu etxera?

– Esteban... urte eta erdi da ez garela elkarrekin bizi.

Auto zuria desagertua zen txaletetatik jaisten zen bidean behera. Bidea hutsik ageri zen ostera ere. Halako ibai gris bustia muinoan behera. Atertu zuela zirudien.

– Eta non bizi naiz orduan?

Prestatu gabeko erantzuna eman behar izan zion Teresak.

– Amarenean, zure ama hil artean bizi izan zen etxean.

Estebanen begiradak galdua zuen bizipoza. Hutsari begira galduak ziren.

– Hara joan zinen bizitzera elkarrekin ezin genuela segi erabaki genuenean. Hara eramaten dituzu bikiak zurekin egotea tokatzen zaienean. Zure amaren

ohean egiten dute lo biek, erdiko gelan. Ez iezadazu esan ez zarenik gogoratzen.

– Bai, bai... egia da. Lagundu egidazu janzten, berandu iritsiko naiz bestela.

– Berandu, nora?

– Lanera. Nora izango da ba.

Teresak medikuekin hitz egin zuenean normaltzat hartu behar zela erantzun zioten, eboluzioaren barruan sartzen direla neurri horretako gorabeherak, posible dela egun batean izenik arrotzena ekartzea hizpidera eta hurrengoan gauza ez izatea seme-alabenez akordatzeko. Izateko pazientzia, luze joko zuela, eta seguru asko, beti geratuko zitzaiola laino hori buruan. Gaitza duela kolpea.

Lainoa izan zen erabili zuen hitza. Lainoa buruan.

– Esteban, ez duzu lanik. Ia hiru urte daramatzazu horrela.

Hogeita hiru

Idatzita geratzen bada, zikinik gabe gogoratzen da.

Garbi du Enparan diputatuak hala izango dela hurrengo belaunaldientzat. Ez dezagun lotsakizuna ahaztu, legeak ordainaraz ditzan egindako okerrak. Eta bera izango da, nor bestela, dagoeneko probintzia osoa asaldatu duen matxinadaren astakerien berri emango duena. Zorte hori fortunatu zaio. Edo ardura hori. Esan bestela nork idatziko duen honetaz. Idatzita, kezkek ere errazago ikusten dute argia. Kezkek, galderek, deitu nahi den bezala. Konparazio batera, ea nahita hautatu duten nahastaileek Gipuzkoako diputatu nagusia eta korrejidorea bertan egotea baraila hau guztia ateratzeko, ala kasualitate hutsa izan den eta hala gertatu den Azkoiti-Azpeitietan beste edozein herritan gerta zitekeen bezala.

Enparan diputatua sinistuta dago gertakariak ez datozela berez. Bizitzak erakutsi dion ikasgaia da jendeak laineza hartzen duenean beti dagoela bultzatzaile bat, txakurrak, txerriak, arratoiak xaxatzen dituen ahots bat barrenen baten gordea, eta piztiak gero da-

tozela haren esanetara katetik askatuta. Eta hahortxe arazoak.

Izenak osatzen hasi denean, berehala ohartu baita ezin izango duela zerrenda nahi bezain zehatz prestatu, eta beraz, historia behar bezala berregin jende onaren gogoan betiko gera dadin. Arazoa ez da nolanahikoa, zelan osatu behar du gertatua izenak ez badatozkio osorik? Zelan jaun bati ordotsa bezala zintzilikatuko duela zemai egin diona ezin badu ezizenez baino markatu? Gaitzizen bat besterik ez badu, edo baserri izen bat, edo zeharka emandako deskripzio lauso bat nahi baino gehiagotan?: “handia”, “hargin Loiolan”, “anaietan zaharrena”, “neskame ile argia”, “errotariaren seme argala”.

Zelan berregingo da tribunalaren aurrean, espero ez oso berandu, begien aurrean gertatzen ari dena.

Joan dira hiru egun suak lastoa hartu zuenetik, eta bi gariaren eta artoaren prezio berriak paperean behartuta idatzita eman zirenetik. Osteguna da, eta apirila badoa bere ohiko usainen bila. Arbolak loretan dira. Kolorez lehertzen ikusi ditu Enparanek Komunsoroko, Olatz bailarako, Arauntza azpiko belardietan zuhaitzak: zuriak, horiak, arrosaxkak. Eta legea laster beteko da ostera ere. Edertasunak mamia emango du,

loreak erori orduko etorriko dira fruituak. Luze gabe otarra bete gerezi utziko diote atarian etxeko morroiari, urtero sasoi bertsuan, eguraldiaren gorabeheran beti, eman hau diputatuari, nire partez. Esker oneko jendea, oraindik hor nonbait dabilena. Itxuraz behintzat, nahiz eta badakien gero gaizki esaka ibil daitezkeela beste aldetik.

Hori du jende honek. Maite du bi aldeetara jokatzea.

Urdai zatitxo bat zartaginean pasatzeko agindu du Enparanek bazkal ordurako, baba apurrei laguntzeko. Ezer gehiago ez. Jangartsu dabil. Basazabal alkatea etorri zaio bila bukatzen ari dela.

– Goazen osteratxo bat egitera, mesede egingo dizu, hainbeste egun etxetik irten gabe.

Entzun beharra izan du kontuak ateratzeko. Denbora luzez egon da lau horma artean sartua.

– Izututa?

– Ez da izua.

Zuhurtzia da, bizirik iraun nahia, deitu nahi duzun moduan. Gaur goizean azkena. Ez baitzaie dantzarako gogorik ahitu oraindik, horrela umiliatu beharra jende ona. Gaiztoa behar du kristauak. Gustua hartu diote plaza erdian soka antolatzeari, ikusi ditu amenazua

tarteko ez balitz bestela inoiz eskutik helduko ez zituzten neska gazteak oin-jolasera ateratzen.

– Udaberriko loreak txerrien ahotan.

– Tira gizona, pasatu da. Pasatu da.

Ez da hala, ordea. Barruan darama Enparanek, gertatu denak ez dio bakerik emango puska batean, hori badaki. Horregatik laga nahi du idatzia diputazioko artxiboan gertakarien kontakizuna. Bukatzeke utzi du platera mahai ertzean. Kalte egiten dio urdai hotzak. Dagoeneko orpoan babarik ateratzen ez dizkioten oinetakoak janzten ari dela ekarri du akordura zerrenda. Basazabal alkateak lagunduko dio osatzen, berak baino hobeto ezagutzen ditu herritarrak.

– Jakin liteke nora naramazun?

– Inor gainera etorriko ez zaigun txoko bakarrera.

Enparan ez dago hain seguru, baina. Bi morroi dituzte zain atetik irten orduko. Eskopetaz lagunduko dieten bi gizon gazte, zer gerta ere. Jende mordoxka bat dago oraindik plazan. Inork ez die oihurik egin, baina.

Begiradak bai, nork ez ditu begiak tiroak legez erabili azken egunetan.

– Zoaz polikiago.

Enparan diputatuak luze botatzen du zangoa, atzean utzi nahi ditu begirasunak, bekozkoak, distantziak leunduta iristen zaizkion deiadarrak, oinez doa, hegan nahi luke. Freskatu egin du. Aldatua du eta euri usaina dakar haizeak. Orduan hartu dio aurrea Basazabalek, ailegatzen ari direla:

– Badakizu azkena, badakizu zer egin duten azkena baldan horiek? Ezpainak loratu orduko hortzak agirian dituela hasi zaio hizketan Basazabal. Ez daki esaten zergatik: gorroto du alkatearen imintzio hori Enparanek.

Quintanarena kontatu dio orduan, nola astearte gauean, goizeko laurak aldean bi gizonek jo zuten haren atea mistela eskean. Lo zegoen botikaria denda atzeko kamainan. Ez zuela, erantzun omen zien. Debekua indarrean zegoenetik ez zuela barrikatxo bakarra jaso, baina nahi bazuten emango ziela Nafarroako pattar pixka bat.

Quintana ere ez libre barruak agintzen zion erantzuna emateko, eta bazuela zerbait agindu zien itxura denez. Hala atera omen zien antoxin bete bientzat.

Baratzeetatik iritsi dira bi gizonak Amubeko zubira. Oihu egin diete emakume gazte batzuek iturri ondoko etxaldetik.

– Segi, segi, kasurik ez.

Gorago gelditu dira, zubiaz bestalde. Eztarria garbitu du Enparan diputatuak.

– Euria dakar.

Ez da egin zahar ere. Maite du Enparan diputatuak mendiek hartzen duten kolorea euria egin ostean. Ezagutzen ditu lur lehorragoak.

– Handik lasterrera, beste biak zurrutean ari zirela hirugarren bat agertu zen. Pattarretik nahi zuela berak ere. Quintanak ez zion tantarik ere eman probatzeko. Nahiko eginda omen zetorren beste nonbaitetik.

Erabat harritu du Basazabal alkatea Enparanen algarak. Ezaguna zaio diputatuaren burlaizea.

– Gosea edaterik balego! Mozkor alaenak! Su emango diola botikari, hori esanda alde egin zuen.

– Zein zen, ezagunen bat?

– Otarra esaten dioten bat.

Ezponda gainean eseri dira atsedenondoa egiteko, ibaiak duen sakonerari begira. Enparanek egunak daramatza lo ganoraz egin gabe. Nahiko zukeen fuerteagoa izan, edo Basazabalen umorez hartu dena, baina ez zaio erraza egiten.

Harri bat bota du putzura.

Paper tolestua atera du gero jakako poltsikotik. Zirriborroz zikindutako hurrenkera da, orria barrenerainо betetzen duena.

– Lagundu behar didazu.

Plegu gainera makurtu da Basazabal alkatea:

Julian Segurola, Akotegikoa; Arizumarriaga baserrian hazitako morroi bat; Oñazko Gerizetako maizterra; Txertakea deitzen duten zapatari-mutil bat; Karamantxel deitzen dioten errementari bat, Tomas duena izena; Azkoitira ezkondutako hargin bat, Loiolan dabilena; Aretxabaletako maizterraren seme bat; Antonio Txokolatero, zestoarra; errementari bat, Vizcaino, bi anaietan gizenena; Enparango labeko beste errementari mutil zahar bat; Txakerre, olan lan egiten du; Domingo, Barrenarenean neskame egon zen Mikaelaren senarra; Potorra nagusia, Pepa Katiluren gizona; Patxikatxuriren semea; Inazio Etxeberria Muntxarraren semeak...

– Orain Otarra hori erantsi beharko diogu.

– Eta Loiolan dabiltzan ofizial guztiak.

Beste harri bat bota du esan orduko, amuarrain guri bat jo nahian.

Bere onera datorren errekak bi gizon itzuli dizkie elkarri begira, harrizko zubi sendoa dutela ondoan.

– Seguru zaude?

– Ez naiz inoiz hain seguru egon.

Hogeita lau

Enparan diputatua bera izan da goiz eder Azkoitirako bidea hartu duena.

Behor ilun baten gainean egin du arropa gehiegirik gabe, trosta bizian errepide nagusitik, lau morroi armatu hartuta berekin. Xeherik entzun nahi ditu Narrosko markesak kontatzeko dituenak. Laster dator laguntza, igorria du agindua Donostiako Kontsulatuak, Arriola alkatea bidaliko dutela behar adina gizonekin. Denbora azkar doa, eta heltzen direnerako pronto izan nahi du Enparanek gertatu denaren kontakizuna.

– Oraindik sinistuta zaude maliziarik gabekoak direla?

Narrosko markesaren ahots grabea eramango du barruan geroztik.

Amorrua loratzen du begietan, imintzio nabarmenez eman dio ongietorria Enparani, otseinaren atzetik ezustean presaka bezala irtenda.

Astebete daramate laineza hartuta kapitulazioen kontuarekin, eta dagoeneko ez da garauaren prezioa soilik jaitsi nahi dutena, ezta anega, lakari eta imilaunetarako neurri bakarra ezartzea ere. Hori da Enparan

diputatuak Narrosen ahotik entzungo duen espa sutondoan eseri direnean.

– Mentatxuriko maizterra lehengoan. Badakizu zer bota zidan lotsa gaiztoan? Ea alkate nintzenean kontzejuak jarritako hogei errealeko isunaz gogoratzen nintzen.

Oso era txarrean gogorarazi ere, eta zemai egin ziola, itzultzeko orduko hartan emandako sosak, ikusiko zuela bestela.

– Hainbesteko izua sartu zidan, hogei errealak eman egin nizkion.

Eskura. Aldean zeramatzalako.

Entzunda bezalaxe jaso du Enparan diputatuak larruzko tapa artean ekarri dituen orri haietako batean Narrosko markesaren kontakizuna. Bestela inork jasoko ez duen amesgaizto bat izango da guztia laster.

Okerrenak biltzeko ditu, ordea. Igande arratsaldean bertan inoiz baino lotsagalduago ibili zela jendea esan dio markesak. Ozarturiko hirurogei edo hirurogeita hamar bat lagunek inguratu zutela, tematuta plazara ekarrarazi behar zuela Joseph Sudupe. Bertan nahi zutela hil, larrutu eta sugarretan erre.

– Hitz horiekintxe.

– Badakizu ez dutela barrurik horretarako...

Galdetuta jakin nahi du Enparanek zergatia. Sudupe ahobero ibilia zela itxuraz, esanez gehiegi jaitsi zela aleari ezarri zitzaion prezioa. Errazegi eman zitzaiela amore arlote narras haiei. Egundo ez duela gosez hildako arratoirik ikusi.

– Hala ibili omen zen Sudupe. Eta sasiak begiak ditu...

Haurrak inguruan biltzeko ipuin haietako batekin nola, halaxe dauka harrapatua Enparan diputatua Narrosko markesaren istorioak.

– Agindu egin behar izan nien neu pasatuko nintzela Suduperen etxetik, gogor hartu eta berriz halakorik esaten bazuen inoiz inork hartu gabekoak hartuko zituela. Horrela lasaitu nituen.

– Umeak. Batzuetan ahaztu egiten zait umeak direla, aise otzantzeko moduko jendea.

– Zaude. Oraindik ez duzu-eta erdirik entzun.

Egia da, azken batean, umeak bezalakoak direla, pentsatu du bere kolkorako Enparanek. Kosta egin zaio honaino heltzea, denbora behar izan du, lekukotza asko entzun, gertaerak orduz ordu berregin. Ez dauka ahazteko nolako gaua pasatu zuen berak Barreda korrejidorearen etxean matxinadako aurreneko egunean. Baina aitortu beharra du harrotu direnek ez

dutela inor zauritu, are gutxiago hil. Zarata bai, direnak eta ez direnak, izutzekoak nahi bada, etxeetako leiarrak hautsi eta ateak eraitsi. Amenazuak nonahi eta jendea era txarrean erabili. Sua honi, sua hari, erre behar zuten Erroma bera, hil behar zituzten lurren eta aleen administradore guztiak. Eta? Astinduak, labana batzuk airean, errejetan lotu zituzten errotari gizajo haiek baino ez. Besterik? Aise egin izan dute atzera hutsa aginduta. Harritzeko eran egin ere atzera. Zer dira ba sinatu diren kapitulazioak kea besterik.

Umea izan behar da hori beteko dela sinisteko.

– Zer esan nahi duzu, barkatzeko zaudela?

– Hori esan al dut?

– Banengoen ba.

Narrosko markesak artean kontatzeko daukana ez baita umekeria. Ea uste duzun barkatzekoa dela. Domeka arratsaldean bertan hurreratu zitzaion beste kuadrillatxo bat. Arrimatu aurretik hasi zitzaizkion gora-goraka. Astakeriak astakerien atzetik. Ez sinistekoak guztiak.

– Esan dizut. Ezer neurtzen ez dakiten umeak dira.

– Ba hitz egin, ez dute umeek bezala egiten.

Eta hizketan hasi denetik, Mentatxuriko maizterrarena kenduta, egin ez duena egiten hasi da markesa,

izenak ematen, Enparanek ahalik zehatzen jaso ditzan.

– Mateo Garateren emaztea, hori aurrena. Idatzi horren izena oraindik ez badaukazu. Antonio Irigoien ere bai.

Ez ordea honen andrea, prezioa jaisten ez bazen ez zuela umeei zer eman besterik ez baitzion esan, ez era txarrean.

– Errukia, Narros?

Begitartea piztu zaio une batez.

– Hain gaizki ere ez goitik beherako sentimendua den artean.

Pentsakor gelditu da su apalari begira.

– Baina segi, hurreratu zitzaizkizun eta...

Astiro askatu du kokotsari eusten zuen eskua hitz egiteko.

– Entzun ondo, Enparan. Entzun hau. Igande arratsaldeko kontua da dena. Bai, neurria galduta ibili ziren. Mendiena bota zidaten aurrena.

– Mendiena?

– Mendiena, ez zela erremateriik egin behar, denen artean banatu beharra zegoela, denentzat berdin.

Enparan diputatua ezer esateke zutitu da aulkitik. Adaxka bat hartu pilatik eta gogorik gabe legez bota du surtara.

– Ez zara benetan ari.

– Entzun ba.

Hala hitz egin omen zioten azaldu dio Narrosek, jaitsi beharra zegoela baserri guztien errenta.

– Honek uste dut ez duela gariaren edo artoaren prezioarekin zerikusirik.

– Nik ere ez.

– Eta orain dator onena.

– Zer dator orain, Narros?

Su ondotik leihora hurbildu eta erabat itxi dizkio orriak. Kanpoan elkarrekin hizketan ari dira Azpeititik laguntzaile ekarri dituen mutilak.

Eta itzuli orduko entzun du Enparanek markesaren ahotik honek entzuna, mendiekin bezala hala egin behar dela maiorazko handiekin ere, zatitu eta denen artean partitu.

– Ez da egia izango.

– Ez duzu ba pentsatuko gezurretan hasteko gogorik dudanik?

Zer esan jakin gabe geratu da Enparan, larru azaletik ia erorian dituen orriak eskuan.

– Noiz diren etortzekoak ba al dakizu?

– Laster behar dute hemen.

– Datozela azkar. Agur moduan badakizu zer bota zidaten lainezero horiek? Kontzejuak lur zabalean egin behar direla, eta mundu guztiak izan behar duela bere botoa.

Hogeita bost

Mendaroko asto zamatuak atzerarazi eta bederatzi egunera heldu zen abiatzeko agindua Donostiako kontzeju-etxera.

Probintziako diputatu nagusi Enparanek sinatuta zetorren manua, Azpeititik. Dena urrunegi iritsia zen. Aginduko zitzaionaren jakitun, Arriola alkatea atsedenik gabe aritua zen aurreko egunetan behar zen guztia prestatzen. Sei konpainia zituen osatuak herritarren artean, mila eta bost lagun armatu denera. Lo handirik egin gabe zebilen aspaldian. Bi egun lehenago sinatu zuen bandoa: askatasuna zegoen arriskuan, merkatarien bizibidea eta hiriaren etorkizuna.

Belar urria da borondate ona. Arrenka arituagatik, berrehun soldadu besterik ez zion eskaini armadak espediziorako.

– A zer ahardi-semea Fleignies hori!

Peñafloridako kondea eta mahaian lagun dituen markes biak, Narros eta Sanmillan, zurtuta dira Arriola alkateak duen ahoarekin, handik bi egunera Iturriotzen elkartu direnean. Bentako eskailerapeko txokorrean itxaron diote, ilusio agerikoaz. Ez daude ohituta,

ez da besterik. Goiz almortzatu dute, hegaztirik baduten galdetuta nagusiari.

Inondik ere, zakarra da Arriola. Alkate batek behar du hori baino gehiago.

Elkarren arteko hitzak dira horiek, gizona tropari aginduak ematera urrundu delarik isil-gordean aitortzen direnak.

– Orain ezin dut dena kontatu.

Baina kontatuko du, kontatuko duenez Arriolak dena. Ardo gehiago eskatu dute, nafarretik. Lagundu egingo die mihiak askatzen. Etumetatik barrena, bidea dute artean Azpeitira, eta Loiolatik ibaian gora gero, Azkoitiraino. Negoziazioak ez dira errazak izan, antza, Donostian akantonatuta dagoen Irlandako Armadako buruekin. Fleignies kapitainak estu hartu zuen hasieratik Arriola alkatea.

– Matxinatuen errepresioa ez da armadaren kontua, jauna.

Hitz horiekintxe erantzun omen zitzaion udal eskaerari.

– Beste interes batzuk daude hemen, zuenak. Soldaduenak bestelakoak dira. Nork ez du nahi gari-irina merkeago?

Hori izan da Peñafloridako kondeak behar duen ziria hizketan hasteko:

– Hori esan zizun?

Arriola alkatea ez dago moral eskolak hartzeko. Are gutxiago probintziaren interesak zaintzeko beharraz ezer gutxi sentitzen duen militar arrotz haren aldetik. Horregatik eskertu zuen Fleigniesek bidaian ez lagundu izana.

– Zeu al zatoz gurekin?

– Ez, Kindelan izango duzu lagun.

Askoz hobe. Ez da zaila. Durundi egiten diote Fleigniesen hitzek atea ixten ari dela:

– Gainera, ez duzu nahiko tropa zeure kontra jartzerik, ezta?

Arratsaldeko hiruretan atera ziren Donostiatik, hodei zikinez beteriko zerua zutela lagun. Hiriko azken etxeak atzean utzi bezain laster belar lanak aurreratuak zituzten zelaiak zeharkatu zituzten. Seietarako omen zeuden Hernanin. Berrogeita hamar lagun gehiago bildu zitzaizkien herriko sarreran. Iluntzerako, Errenteriatik eta Oiartzundik heldutakoak hartu zituzten ibai hegian atonduriko kanpamenduan.

Gau hartan inoiz gutxitan bezalako lanak izan ziren denentzako janarien garraioa antolatzen eta sekzio bakoitzeko buruei aginduak ematen.

– Ez dakizue onena.

Menosten duen adina miresten du Peñafloridako kondeak odolez tarteko egiten zaion Arriola. Espero aldean azkar iritsi da espedizioa Iturriotzera. Milizia aurrena, Donostiako alkatea duela buru, berarekin datorren jendeak dioen bezala, “hiru aldiz hildako behorraren gainean”. Kindelanen soldaduak atzetik, musika eta guzti. Hernanitik Urnieta, Andoain, Sorabilla eta Adunan barrena, bidean eman dute bezperakoa. Bi taldetan zatituta, Asteasun eta Zizurkilen igaro dute gaua. Goizeko ordu bietarako zuen emana irteera-agindua Arriola alkateak.

– Sinistuko didazue Fleignies horrek ez didala komandante izena eman nahi izan forua aitzakia hartuta?

Peñafloridako kondeak lurrinik erantzun gabe jarraitu du. Ondo daki Fleigniesi ematen diola eskumena foruak, nahi izatera bederen, horretarako eta gehiagorako. Kontua ez da Arriola suminagotzea, ordurako mendi-zuloan, laino artean zehazten hasia den ibarrera lehenbailehen jaistea baizik. Azpeitian dituzte

zain denak, Enparan diputatua, Barreda korrejidorea, Basazabal alkatea, sindikoak, merioak eta borondate oneko hamaika lagun.

Mandoen irrintziak, pausoen hots erritmikoa, burdinena elkarren kontra jotzean. Goizak hozkirri dira apirilean eta airea garbia. Hezetasunak lurretik gorakoa egiten duenean aurreneko izpiekin freskatzen dira larru-azalak. Ezagutu ez duen tximeleta zuri-horail bat altxatu da ote busti batzuen artetik. Eguzkia goratua da hodei artean, itsaso aldetik. Sentipenen mozkorraldiak soilik gozatzen dio gorputz nekatua kondeari.

Etumetan, orpotik ateratako zumar handi baten ondoan hartu dute atseden.

Peñafloridako kondea amorratzen dago iristeko, ezagun du egonezina.

– Ez da mendekua. Gizalegea da. Ezin gaitezke animaliak bezala bizi.

Arratsalde hartan eta hurrengo egunetan kondeak atxilotuen senitartekoei behin eta berriz errepikatu zizkien hitzak dira, Arriola Donostiako alkatearen eta Barreda korrejidorearen aurrean bitartekari lana egin dezan eskatzera hurreratzen zaizkionean.

– Alferrik dira errukiak orain. Justiziaren aldi da. Gauzak ezin dira indarrez egin. Ez gara basapiztiak.

Eguerdia jotzeko dago dorreko erlojuan Arriolaren tropak harresian barrena Azpeitian sartu direnean. Badira hamar egun enarak abistuka hasiak direla. Parrokiako kanpaiek eman diete ongietorria heldu berriei, San Agustinekoek, dominikoetakoek, frantziskanetakoek, eta jendea atera bada ere bidera aldra deigarri bihurtutako zurrumurrua ikustera, ez du nekeak eta gorpuzkera astunak bentzututako Peñafloridak esperotako bibarik entzun.

Tropak plazara iritsi eta batera ekin zaio jendea preso hartzeari. Matxinada gauean bertan korrejidorearen etxean osatzen hasi zenetik, txindurriak eztitan bezala hazi da mukuruan Enparanen zerrenda. Ondo gozatu dira, orain gertu da gorrotorik gabe zapuztuko dituen eskua. Kopiak eginarazi dituzte. Loiolako ofizialenekin, hirurogeita hamar izenetik gora ageri dira orrietan. Berehala hartu du destakamentu batek Azkoitirako bidea.

Ez da lantegi zaila izan ehizakiak biltzea. Inor gutxi ahalegindu da ihesean. Azpeitian, alkateak berak gidatu ditu Donostiatik heldutako gizon armatuak gatibu hartu beharrekoen etxeetara. Auzoetara, sindikoak bidali ditu. Aldaba jo eta atarian geratu ohi da Basazabal. Eraman ezinezkoak zaizkio orroak, leihora atera

eta bere bila abiatzen diren aho zikinak, uzteko bakean gizona, nola biziko diren aurrerantzean, nork ekarriko duen dirua etxera, umeak goseak direla, putakumea Basazabal, itoko ahal haiz heure kakatan, ahardi-seme hori.

Julian Segurola Akotegin bertan hartu dute gatibu, atariko aska ondoan sega pikaketan dabilela. Bekorotzez betetako kapela jantzi diote berehala, eta eskumuturrak estuegi lotu. Txertakea Azkoitiko Hurtadorentzat larrua ontzen ari dela atxilotu dute. Brigida Arteagari sabelean daraman umea zein matxangorena duen galdetu diote, burlaizez eskaileretan behera botatzeko imintzioa eginda. Ez dago atzera egiterik. Iluntzerako, ez dago inorentzat tokirik kontzejupeko kartzelan. Eskerrak toki gehiago dituzten atonduak. Garmendia idazkariak aginduta, lana izan dute arotzek Bikuñaneko ateak sendotzen. Morroilo gehiago aterako dituzte arratsalde hartan bertan milizianoen mando-bastetatik. Eta kateak, Bordeletik beren-beregi ekarriak.

Miliziak Loiolara iritsi direnean Esterripa aita aurkitu dute mailadian zain, hesola baino tenteago.

– Zertara zatozte?

– Ofizialen bila.

Kentzeko paretik eman diote agindua, ez dutela ezer bere kontra. Ezetz, toki sakratua dela plaza bera ere, ez litekeela armekin ibili han, joateko etorri diren bidetik.

Azkoitian denboratxoa daramate Arriolaren gizonek ehizan. Hogeita bost lagun harrapatu dituzte, aurrez egindako zerrenda batean daudenak guztiak.

Teresaren bila joan direnean, pasmo-belarra garbitzen aurkitu dute.

– Agur, Esteban.

Iluntze hartan bertan jo du Intsausti jauregira Estebanek, kondeagatik galdez. Ondo hartu du bertaratu den bakoitzean, etxekotzat hartu zuten entsegu garaian, Bergarara gonbidatu zuen, eta Saint Colomberen hitzaldira. Lorategi beltzean sartu orduko, saguzarrak sentitu ditu hegan arbola artean. Bildumako tximeletak etorri zaizkio akordura. Izena ahaztu zaion Montevideoko beltz hura, malko moduko bi tanta zituena zintzilik. Kondeak eta biek badute gainera asmo eder bat nafarreriari aurre egiteko, idatzi behar dizkio orri batzuk izainez. Idatzi behar dio. Lagundu behar dio.

Ate zarratuan jo du aldaba. Ihes-hotsa horman beherako huntz artetik. Satitsu bat. Giltza duena bestea-

ren ibiliaren jabe da, Esteban. Luzaroan itxaronarazi diote.

Atearen bestaldetik entzun du galdera, ea zein den.

Tximiniaren bateko ke usaina datorkio.

Zabaldu da azkenik. Jauna ez dagoela etxean esan diote.

Ea noiz itzuliko den galdetu du. Ez dakitela, Bergarara joana da menturaz. Edo Markinara, Munibera.

Leiho zabaldutik, klabizenbaloaren trosta arina aditzea iruditu zaio, berehala mututu dena.

Eta orduan igarri du asteetako nekea, isilean hazten joan zaion ausiabarrak eragin dion ezinegona pixkanaka zabaltzen, gorputzeko zer ataletan kokatzen ez dakien mintza hautsi eta erraietatik gora bularrera, eztarrira, burura, begietara, malkoetara lehertzen. Aurreneko bider, ezin du gehiago, beste bat da hitzik gabeko bakarrizketan ari dena. Zer behar zenuen, Teresa, horretan nahasteko, horrela hondatzeko izan duguna eta izan garena. Estutasunak estutasun, ez gara nahiko ondo bizi, ez nauzu nahikoa, asmatuko genuen aurre egiten biok elkarrekin bagina, baina orain zer. Eta nahastuan datozkio, jardineko harri-txintxor zapalduen hotsa baino ez datorkiola, esan ez dizkionak eta

esan nahi lizkiokeenak, gordetako destainak eta, seguru dago, berandu baino lehen itoko duten belduररak. Ez dizut inoiz behar moduan aitortu, baina jelosiak janda bizi izan ditut azken egunak, Teresa.

Jauregiko itxituratik irtetera doala, notak entzun ditu berriro. Lotsor hasieran, kadentzia harmoniko bati eusten gero, akatsik gabetanik.

Eta lehen aldiz Peñafloridarekiko harremanetan, salduta sentitu da. Non daukaten jakin nahi duen Teresaren hitzak. Horiek dira gure izainak, Esteban. Zer behar dago larderia hau erakusteko, jauna.

Birao bat lehertu zaio ahopean.

Hogeita sei

Azpeitian Io egin duen aurreneko gauean, sentimendu zaharminduek lotu dute Manuel Maria Arriola Donostiako alkatea.

Amama Josefaz oroitu da. Eta umetan entzun zionetik inoiz ahaztu ez duen kontakizunaz, nola hil zioten neba bat Bilboko Areatzan gerora beste zerrenda bat osatu zuten matxinoek.

Berrogeita bi urtera iritsia da eta etxeko pasadizo hark ez du inoiz erabat abandonatu.

– Txakur bat bezala. Hori ez da inoiz ahazten.

Jaurerriko diputatu nagusia zen Enrique Arana osaba zaharra. Aduanen dekretua beren begien aurrean sinatu behar zuela-eta, moilatik ez urrun zuen etxetik ateratzera behartu zuten. Orduan inguratu zuten, eta egurtuta hil.

– Berak dira txakurrak baino okerragoak, Manuel.

Kontuak atera ditu: ia mende erdi. Nola liteke hain bizirik izatea aipatuta baino ezagutu ez den pertsona bat, ez bada zerbait dabilkiolako deika.

Barreda korrejidorearen etxean dago Arriola, afaltzera gonbidatuta. Tipula beteak eta bakailaoa Pro-

ventzako moduan egin zain, mira iritzita begiratzen dio plazaren ederrari, arkupe dotoreak errenkan. Izarraitz handiaren gerizpea atzean, San Agustineko teilatuan gaindi. Kale aldera esekitako arropek zikintzen diote soilik ikusmira.

– Xelebrea da, Barreda. Badirudi inoren oinetakoekin gabiltzala beti.

Hamasei laguni ezarri zitzaien heriotza zigorra aduanen matxinada hartan Bizkaian. Garrotea emandako hamasei gizonen buru moztuak har lokartuei deika urtarrileko izotzetan. Aurreneko aldia da Arriolak inori kontatzen diona osaba zaharrarena.

– Pikotetako kakoetan eseki zituzten, mihiak belztu zitzaizkien arte.

Buruen aipamenak piztu egin zuen Barreda korrejidorea:

– Pasarazi diguten guztia ordainarazi behar diegu, Manuel.

Hitzez aipatu gabe, hori guztia dago airean: laidoa, iraina, afruntua, Peñafloridako kondeak Etumetan behera zihoazela burua handitu arte jardun zion bezala, eskarmentua behar zuena, errukirik ez, eskarmentua eman behar diegu, Manuel.

Temati tankera hartu dio korrejidoreari Arriolak:

– Berriro horrelakorik egiteko gogoa kendu behar diegu.

Goizetik dabil. Eguna luzea izan bada, hurrengoak ez direla laburragoak izango iritzi dio. Badaki zer esaten dabiltzan beragatik, behor gainean lo hartuta ere zuzen eramaten duela Belle. Nola ez ia berrogei urte badarama berarekin. Belle. Beti izen bera behor guztiek, umetan begia baino maiteago zuen haren izena ondokoak, eta hurrenak, eta hurrenak. Laugarrena du, eta aldi berean aurreneko behor hura bera.

Azpeitian sartzerako izan zuen diputazioaren izendapenaren berri, Fleigniesek ukatu zion hura. Bera da espedizio hartako komandantea orain. Gauzak horrela, Barreda korrejidoreari eta biei dagokie enkausatuen kontrako epaiketaren ardura. Garmendia barratsua jarriko du idazkari. Berehala hastea dute egokiena.

– Oraingoak ez du, ordea, Bilboko harekin zerikusirik.

Oheratzeko gogoz dabilela erakutsi dio korrejidoreari. Bakoitzaren eginbeharrak zehaztu nahi izan ditu lehenago. Lekukoen deklarazioak hartzen diren artean, pieza batzuk ditu ehizatzeko inguruetan.

Horregatik ez da saio guztietan buru izango.

– Nora zoaz ba?

Urrestillarako asmoa duela agertu dio Arriolak.

– Erakutsi dute kalte egiteko asmoa haiek ere.

Kezkatzen duen beste kontua, miliziak eta Kindelanen soldaduak nola mantendu kanpainak dirauen bitartean, konponbidean dago. Donostian erabakia hartuta dago gabarra bat bidaltzeko Beduaraino, hirurogei barrika irinekin. Sei upel pattar ere bidean dira. Hitz emana diote hurrengo egunean helduko direla.

Maiatzaren lehenean hartu du beste herrietarako bidea Arriolak. Goizeko hamaiketan heldu da Elgoibarrera. Handik idatziko du Donostiara:

“Herrian ez da ia gizonik; eta deitu ditudanean gaizkileak zein izan diren esan diezadaten, mutu gelditu dira, edo era txarrean erantzun dute. Nekez atera dizkiet izen bakan batzuk baino, itxuraz herri honetako gertakarietan buru ibili direnak guztiak”.

Zaparradak esnatu du gauerdian. Ibaia aditu du iluntasunaren erdian, zuhaitz hazien itzalpean. Lokatza izango dute bideetan. Belleren apatxek aterako dute indarka ataka gaiztotik. Azken egunetako ibilia ekarri du. Ez da erraza izango justizia egoki banatzea hain sentimendu oinarrizkoak daudela tarteko, hainbeste interes pertsonal, hainbesteko gogoa bestea

mendean hartzeko. Nabari da bi aldeetan umiliatu nahi hori, eta berari nolabait haztagaren orratz izatea eskatzen bazaio ere, ez da egundo erdian egongo. Ezin, nola ba. Donostiako Kontsulatuak lau mila peso jarriak ditu espedizio hartan, eta Carascasko Gipuzkoar Konpainiak beste bost mila.

Hala aitortu dio Barreda korrejidoreari haren etxera heldu den gauean:

– Eta nik erantzun beharra dut.

Bistan da bizitzeko era bat dela badoana. Mundu batetik besterako pausoa bizitzen ari da. Ez da inoren errua, hala da, eta ez dago zer eginik. Merkataritza azken aldian nola zebilen ikusita, ezinezkoa izango da, nahita ere, lehengo bizimodura itzultzea. Ez dago zertan dirua galtzen jarraitu beste norbait dagoenean Frantzian, Flandrian, Ingalaterran, zer ardura dio non, etxean baino sos gehiago ordaintzeko prest. Ekonomiaren lege berriak dira. Eta piztia hauek, bizitzako beste arlo askotan bezala, ezjakin gizajo batzuk dira. Heziketa arazoa da, baina bera ez da maixua. Donostiako alkatea da, eta epaile izateko bidali dute probintzia mendebaldera.

Gelditu gabe ibiliko da. Goizaldean bi dibisiorekin abantatu bada Soraluzera eta Eibarrera, Elgoibarren

da berriz ere gauerako. Atsedenik hartu gabe, Mutriku joko du hurrengo egunean, pozarren Debara bidalitako destakamenduak preso gehiago egin duelako bezperan. Diputazioari idatziko zion gutunean maiatzaren 4ko gaua Azpeitian pasatzeko asmoaz gaztigatu zion.

Halaxe egin du. Korrejidorearen etxean hartu du ostatu, aginduta moduan.

– Atsedena ere beharko duzu.

– Ezin dut.

Milizianoen mugimenduak zuzentzen, intendentzia lanez arduratzen, hurrengo egunerako planak egiten, korrespondentzia idazten... egia da, Donostiatik partitu denetik, ez du beste ezertarako betarik hartu. Gutunak ez ezik, bandoak ere idatzi behar izan ditu, zarata egunetan indarrez sinarazi diren kapitulazio haiek guztiak bertan behera geldi daitezen eta ez dadin beste agindurik jarraitu Erregerena baino.

– Zer moduz deklarazioak hartzen?

– Gaizki. Izen gutxi ateratzen ari gara.

– Zergatik ez ote dute hau hasieratik ulertu?

– Zer gero?

– Indarrez ez dutela zer eginik. Donostiako kontzeju-etxetik bakarrik seiehun fusil atera ditugu. Erantsi horri Fleigniesen soldaduak eta etxeetako zizpak... Bi

urteko ume bat muturrekoka eraistea baino okerragoa izan da.

Begi nekatuak ditu Barreda korrejidoreak ere. Zaldi irrintzi bat heldu da kortatik.

– Fleignies...

– Nola konpondu behar dugu gizon horrekikoa?

– Zer ba?

– Idatzi egin dit. Ezin izango ditugula presoak La Motako kartzelan sartu. Ez dela bere ardura. Geu konpontzeko geuk sortutako gosearekin, hitz horiekintxe.

Hogeita zazpi

Arriolak abiatu duen giza ehiza ametsa ez balitz, ez zinateke orain hemen agertuko.

Eztul txikia behartuta egin eta nire ohe ondoan eseria, bakarrik naukaten gela honetan zu baino ez nire lo nekatua zaintzen. Nire esnaera noraezekoa, leihoak itxita ere paisaia gelditu egiten den une honetan naizen guztia zure eskuetan, Teresa.

– Itzuliko gara lehen bezala egotera, ezta?

– Zu senda zaitez eta hitz egingo dugu.

Teresak gauza asko esan nahi zion errukiaren ertzetik. Ez zen hura unerik egokiena, baina.

Esan nahi zion, esaterako, ez zirela berriz biziko teilatupe berean, pasatua zela aukera hori, saiatu zirela baina ez zela ondo atera, beste hainbati bezalaxe usteldu ziela etorkizunerako zutena eguneroko martxak. Gertatzen da. Ez da drama bat egiteko kontua ere. Eta gertatu zenez, eta seguru bazegoen horretaz, hobe halaxe hartzea. Gainera, hilabeteetan infernu bihurtu zen emariak ez zuen dena eraman. Bikiak zituzten, laguntzaz eta ondo kostata buruenik heldu zi-

renak, eta bi horiek bai izango zutela bien premia oraindik urte luzez.

Hori guztia esan nahi zion. Baina bestela esan zion:

– Zu senda zaitez lehenengo.

Teresak eskua eskuaren gainean jarrita eskertu zion ez jarraitu izana. Azken beltzean maite zuen gizon hura oraindik. Bere erara, beste era batera, esan ohi zion Estebani berari ere. Ez lehen bezala, baina nola ez zuen maiteko. Lortua zuen zailena. Ezin uka bere lanak eman zizkiola. Garai batean egunen poderioz gorroto bihurtu zen mataza gaitz hura iruntzitara jartzea eta zerbait salbatzea urteetako harreman hartatik.

Lana galdu eta gizona bere buruari kalte eginez hondoratzen hasi zenean, ahalegindu zen laguntzen hasiera batean. Estebanek ez zion utzi. Saiatu zen beste lan batzuetan, ikusi zuen nola dantzatu zuen agenda batean ez bazen bestean zerbait lor ziezaiokeen azken kontaktuaren bila. Alferrik. Denborak ez zuen amorerik ematen eta Titanici itzulerarik gabeko bidaiari ekiteko tenorea heldu zitzaion. Gaztigatuagatik, egunsentiak arrosakara erakutsiko zuen iceberga nola jotzen zuen ikusi zuen. Kroskoaren krakatekoa

gauaren erdian eta ur beltz eta ikara argizko oihu mutuak barrunbeetan. Orkestrak dantzariei barik hormetako dekorazio orientalistari begira jotzen segitzen zuen. Zenbat iraun zuen, ez da gauza zehazteko.

Ez dakizu zenbat sufritu nuen zu horrela ikusita, esan nahi izan zion, esku hari egundo ez bezala heltzen ziola. Ez dakizu zenbat, zeuk adina. Beste era batera, baina zeuk adina, Esteban. Eta zaila egiten zitzaion enbatarik gaitzenean beti azalean zirudien gizona ume bat bezain ahul ezagutzea eskutik eusten zion gorputz hartan. Etsi zuenean, eguna etxean ematen hasi zen, telebista aurrean sofan hondoratuta. Edo kalean bestela gauerdira arte, jakizu zertan. Berekin ez egotea zen kontua. Aitak hazi gabeko umeak biak. Zeharo abandonatu zituen etxeko eginbeharrak. Ez kozinarik, ez garbiketarik, ez oherik. Goizean utzita bezalaxe aurkitzen zuen ozeano izoztu hura lanetik bueltan. Ez zuela indarrik zioen. Eta hasiera batean ezin esan ulertu ez zionik. Bikiei heldu zitzaien txanda gero. Aurrenekoa bai, nobedadeagatik, baina begira zer txorakeria, esango nuke ez zeniela bigarrengo batez egundo lagundu Proventzako puzzle hura amaitzen. Badakizu zein, nekazariak zituena segan eta belarra batzen, dorre polit bat zuena belazea hesitzen

zuen harrizko itxituraren atzean. Etxean dago orain-dik. Ez dira gehiagotan saiatu joan zinenetik.

– Eta umeak, noiz ekarriko dituzu?

Titanica. Efemerideak zer diren, Esteban. Apirila zen orduan ere, 15a, ez dabil besterik irrati, telebista eta egunkarietan, oraintxe da urteurrena berriz. Erakusketa bat mustu dute ez dakit oso ondo non, Belfasten den edo New Yorken, ozeanoaren hondotik ateratako objektuekin. Ikusgarria izango da. Seguru. Inoiz libururik irakurri zuten betaurreko biribil batzuk, sextantea, saxofoi bat, golf makilak, brontzezko bi argimutil, idazmakinak, makuluak, platerak, edontziak, furtxetak, labanak, koilarak, eta pattar botilak, erdoka eta guzti.

– Ez da komeni, gaixotzeko arriskua izaten dute umeek ospitaleetan.

– Ekar itzazu. Sartu-irten bat badarik ere.

Ikusgarria, baina zertarako urpetik ateratako hainbeste traste zahar bizitzeko ez badute balio.

– Hitz egingo dut medikuarekin.

Begien aurrean zituen artazitxoak hartu zituen Teresak gau-mahaitik. Zainduak ibili ohi zituen eskuak Estebanek. Indarrik gabe, herbaldua sentitu zuen ez-

kerrekoa berearen gainean luzatzen. Hatz txikerretik hasi zen.

– Akordatzen, Teresa? Azpeitira joan zinetenean lastasuak hartuta, kapitulazioak sinatu zituzten gauean, horrelakoxe azkazal zati bat zirudien ilargiak oskarbian zintzilik. Zeure hitzak dira.

– Zer esaten ari zara?

– Gau hura, Teresa. Lortu egin zenuten prezioak jaistea...

– Ez dakit zer dabilkizun buru horretan, Esteban. Kontatuko diguzu lasaiago hemendik ateratzen zarenean.

Errukia zen Teresari nagusitzen ari zitzaion sentimendua. Hitza ez erabiltzearren maitasuna deitzen zuena, beste era batera maitatze hura.

Eskuina hartu eta lehen beste eskuarekin egin bezalaxe ekin zion. Etxetik alde egin zuen eguna etorri zitzaion. Teresarena, umeena eta laurena izan zen etxea betiko utzi zuen eguna. Oinetakoen hotsa eskaileretan behera. Txalupa istriborretik erriatzen, Titanicaren karrankak ilunpetan. Egongelako besaulki banatan zeuden bikiak, telebistari begira. Ez zioten ia kasurik egin. Doraemon ari ziren ematen. Nobitak, algara

betean, bonben pare lehertzen ziren opil arrosak jaurtitzen zizkion Erraldoiri helikoptero moduko batetik.

Mahaian utzi zituen ostera ere Teresak artazitxoak. Eskerrak eman zizkion Estebanek.

– Eta zuek, zer moduz lanean, Tere?

Hogeita zortzi

Arriolaren gizonek udazkena ekarri diote apirilari.

Zurrumurruek inor gabeko kaleak hartu dituzte. Belar ebaki berriaren lurrinarekin batera sartu dira ezkaratzetatik etxeetara. Miliziak joan egingo dira, baina Kindelanen soldaduak gelditzeko etorri omen. Albisteak ahoz aho dabiltza, zenbat diren atxilotuak eta hauen izenak nekez datoz bat. Hogeita bost gizon eta emakume hartu dituzte preso Azkoitian; hirurogeita hamalau omen dira Loiolako ofizialak, horietatik hogeita bat libre utzi bazituen ere Barreda korrejidoreak apirilaren 24an bertan, gauean; Azpeitian jakinekoak dira morroilope daudenak...

Jendearen ahotan, aske utzi dituztenekin nahasten dira gatibuak, amak alabekin, aitak semeekin, ahizpak ahizpekin eta anaiak anaiekin. Ponte izenak eta abizenak deskuidatzen dira, gaitzizenak, adinak eta etxeak. Beldurra dago, hitza eztarrian katigatzen duena. Eta bada ahopean damua erakusten duenik:

– Ez bagenitu kapelazuriak horrela haserrarazi...

Loiolako santutegian, Genoatik itsasoz ekarri zen San Inazioren irudi zilarraren azpian, damuaren beha-

rraz eta barkamenaz egingo da igandeko sermoia, bosgarren Pazkokoa. Eta Erregeren legearen aldez errezatuko. Ez da zurrumurru hutsa. *Intra muros* aita Esterripa erbestera kondenatuta dago ordurako. Barre-antz gaiztoak loratzen dira lehen ilaretan haren izena entzun orduko. Auzia zabaldua diote miliziei aurre egin eta atxilotzeak galarazi nahi izateagatik.

Arriola alkateak korrejidorearekin adostuta bezala, berehala hasi dira deklarazio hartzeak. Aurrena lekukoei deitu zaie, gero izango dute presoek hitz egiteko parada, Donostiako kartzelatik.

Astelehenean, apirilak 28 dituela, dena pronto dago Azpeitiko kontzeju-etxean. Areto nagusia asteburuan gertatu dute, jardunak eskatzen dituen lagun guztiak sartu ahal izateko. Aulkiak lortu behar izan dira. Leihoak oihal beltzez estaltzea erabaki da. Solemnitateak hala eskatzen duelako, zilarrezko gurutzea ekarrarazi da parrokiatik eta epaimahaiaren atzean zutitu dute. Gurutzearen aurrean daude Gaztelako Kontseiluak matxinatuen kontrako kausan epaile eta betetzaile izendatu dituen Manuel Antonio Arriola Corral, Donostiako alkatea eta Benito Antonio Barreda, probintziako korrejidore eta Valladolideko Real

Chancilleriako Kontseilukoa. Eskribau Joseph Antonio Garmendia izango da, herriko idazkaria.

Joseph Abarrategi Azkoitiko parrokiako sakristaua da epaiburuak deitu duen lehenbizikoa. Zin egin du egia baino ez duela esango, eta hala dio hilaren 14ko gauean jende tropa bat bildu zitzaiola etxe aurrean, eta mehatxu gogorren pean, elizako kanpaiak jotzera behartu zutela.

– Inor ezagutu zenuen?

– Ez, jauna.

– Seguru zaude?

– Handiegia zen zarata, beldurrak akabatzen nengoen.

– Begira zer gerta dakizukeen gezurretan ari bazara. Tira Joseph, begiratu guri, egiguzu kasu.

Begiratu die, estutu dute gizona, eta gehiago ezin eutsirik, bat labaindu zaio azkenean, aretoan ia entzun ez den izen bat ahopetik.

– Errepikatuko mesedez zer esan duzun?

Domingo Zelaiaran esan du bigarrenez Abarrategi sakristauak.

– Nor, Potorra deitzen duten bat? Hogeita bat urtekoa edo? –galdetu diote mahaitik–. Zapatarigaia?

– Ikusi, ez nuen ikusi. Haren ahotsa zela iruditu zitzaidan.

Barreda korrejidorearen itxurazko pozak ez du kezka gordetzen. Lanak izango dituzte zerrendetan dauden izenak aditzen. Nekeza izango da lantegia, banan-banan atera beharko dituzte piztiak nahi edo ez nahi Abarrategi bezalako jendeak aterpetzen dituen zulotik.

Ez dabil oker Barreda.

Bizenta Zelaiaran da deklaratzen bigarrena. Ez zuela inor ezagutu dio Zelaiaranek ere, iskanbila hura sentitu zuenean nobedadea egin zitzaiolako eta luze erori zelako behegainera. Berehala erretiratu dute eta Ana Maria Iraolari deitu, Joseph Jazinto Azkue primizieroaren etxeko inudea. Deklaratzen duenean ez da epaimahaiak lehendik dakitena besterik baieztatzen, apirilaren 14ko gauean indarrez sartu zirela bi gizon balkoitik Azkueren etxean, nagusia non den galdezka, eta larrituta, umea hartu eta bere gelan gorde zela, gizonei gezurra esanda, haurra nagusiek eraman zutela, eta ez dela gai ez inor ezagutzeko ez zer deiadar egiten zuten esateko, hainbestekoa izan zen sentitu zuen ikara.

Barredak Garmendia idazkariarekin hitz egingo du aparte batean, saiatzeko, ez hainbeste itzultzen, ohartzen baita ez dagoela esaten ez dena bihurtzerik, baizik eta lekukoak euskaraz limurtzen, konfiantza har dezaten. Motzak direla erantzunak eta luzea behar duela sokak, ezer aterako badute.

Eguerdia da kasik Barreda korrejidoreak nahi duena heldu denerako.

Nicolas Ignacio Altuna Osaren txanda da. Sindikoa da udalean, eta Azkueren koinatua. Berak jaso zuen Bikuñaneko idazkarigaiaren anonimoa atariko ziskutik, eta ez du Garmendiaren beharrik Barredak uler diezaion. Zehatz eta xehe gogoratzen ditu matxinadak iraun duen bitartekoak, egunez egun eta unez une. Eta hala kontatzen du etxeko leihotik ikusi zer ikusi zuen, nola ibili ziren hiruzpalau lagun danbor-jolearen atzetik, eta Pelaio izeneko bat zela tartean. Eta gogoan duela gehiegikerien mozkorraldi hartan nola Sasarki izeneko zapatari batek zera eskatzen zuen, txerriak kalean libre ibiltzeko eskubidea izatea, aste egunetan badarik ere.

Barredaren irribarrea, orain bai, disimulurik gabea da. Arriola alkateari begiratzen dio, Garmendia idazkariari gero. Horrela bai, horrela bai. Altunak eztarria

garbitu eta deklarazioarekin segitu du. Ez du haria galdu nahi. Hurrengo eguneko kontakizunean izen gehiago eman du, Inazio Basterretxea, Agustin Larralde eta beste batzuk, orro batean aritu zirela kalean, topatu beharra zegoela Joseph Jazinto Azkue.

– Eta Joseph Iriondo delako bat, hargina, Azkue harrapatuz gero berak akabatuko zuela.

– Joseph Jazinto Azkue hil nahi zuela entzun zenion?

– Bai, jauna.

Altunari entzutea gertaerak berriz bizitzea da, hain da zehatza kontakizuna. Hilaren 16an ikaragarria zen jendetza, bezperan halako bi, Urrestillatik, Errezildik eta Beizamatik-eta etorritako asko baitzen kaleetan, dio. Dantzak ez zuen gauera arte etenik izan. Altuna izen gehiago emateko gauza da, eta Bartolome Gorostizurena eman du, pezeta eske ibili zena jende prestuari, eta beldurra zer den, nola egiten dion eraso gizon eta emakume libreei, txanpontza handia bildu zuela horrela.

– Eta Teresa delako bat, Azkoitiko Alberdi bizarginaren emaztea.

Eguerdia da.

Isilarazi egin du lekukoa Arriola alkateak. Udaberriko eguzkiak oihal beltzean zirrikitua aurkitu eta marra argitsu bat utzi du egurrezko zoruan. Atetik sartu da abadea, akolito bi dituela atzetik. Batera jaiki dira epaimahaikoak, zarata handiagoz eta era desordenatuagoan publikoa. Angelusak eten du Altuna sindikoaren saioa.

Sinu txikia izan da, jende arteko inork ikusi ez duena. Luma bezain arin eragin dio Barredak buruari, Jainkoaren aingeruak adierazi zion Mariari, baietz diotso lekukoari, ondo ari dela, segitzeko, eta Espiritu Santuaren egitez sortu zuen, hori dela bidea, ausarta izatea, kartsuak izanda hartuko dutela mendean Piztia.

Amaitu orduko, eta apaizak eta akolito biek mailadiko bidea hartu dutelarik, utzitako puntuan ekin zaio ostera saioari.

– Ezer gehiago esan nahi duzu?

Eta Barredaren galderarekin Nicolas Ignacio Altunak aurrez korrejidorearekin hitz egindakoa berretsi du, entzuna duela, kalean eta hainbat tertuliatan, matxinadaren buruak, Azpeitian behintzat, bi izan direla, Akotegiko Julian...

– Segurola?

– Bai. Eta beste bat, Imilaun deitzen duten gizonkote bat.

Txaloka hastekotan egon da Barreda korrejidorea; joan zaitezke, jauna, eta Garmendia eskribauarengana doakio begirada, dena hartzen ari zara? galdetzen bezala, ari zara izen guztiak hartzen?

Hogeita bederatzi

Akotegiri eta Imilauni bentana ertzera etorritako beleek ematen diete gertatzen ari denaren berri.

Txaraibarko kontzeju-etxe zaharrean daude biak gatibu egin dituztenetik beste preso batzuekin, mendian bahituran hartutako abereentzat erabili izan den ukuiluan, hain txiki geratu baita udaletxe azpiko ziega.

Afari-legea egitera doazela, amorratu eragin nahi izan ditu Arriola alkatearen gizonetako batek:

– Erbiak laharpetik baino errazago atera dituk zuen izenak.

Eta hori esanda eskua eraman du lepora. Espanturik gabe luzatu du hatz erakuslea, eta labana balitz bezala egin du zintzurretik pasa-planta.

Leiho-tapa zarratuta aldendu denean, ahots bat entzun da bestaldetik:

– Kasurik ez.

Begiaren bristadak argitu du ola arteko zirrikitua une batez. Atxiloketa egunean bertan ekarria dute Teresa Arrieta Azkoititik. Gizonezkoak eta andrazkoak bereizirik izanagatik, lizun-sundak eta hitz galduek ze-

harkatzen dute gorputzek ezin dutena. Egurren bestaldean, norena den asmatu ezin izan duen zotinak iratzarri du gauerdian. Ahape hotsa gero. Isiltasuna.

Nekatuta dago Teresa, etsita atera egingo dituztela herritik, baina ez urkamendira, aho-larriak iradoki bezala, erbestera baizik.

– Zein zara?

Eta erantzun orduko Esteban datorkio akordura. Ez du ondo behar, bestela hemen zen ikustera nola nagoen, zer behar duzu maiteka, sukarrak eraitsi du dagoeneko, kondenatu du erabat ohera, ezertarako indarrik gabe.

– Zure izena agertu da.

– Zer ote dakizue zuek?

Jakingo ez dute bada. Maite dute Arriolaren milizianoek kontzeju-etxetik Txaraibarko kortarakoa. Arin heltzen dira albisteak zaindarien aho-mingainez. Ez da herra, dibertimendu gaiztoa baizik presoak etorkizunari zer tankera hartzen dioten imajinatzen jartzea.

– Jakingo bazenu nork eman duen...

Eta isiltasunak susmo zaharrei ematen die bidea. Amua jarri eta ezinegona nabariagoa izan arau, beleek emango ez dioten benetako datua, edo okerrekoa soltatu dute bestela, beste izen bat, senide bat

izan dela salatu duena, jolas gaiztoak estuago har dezan presoa, bere buru-nekeetan ito dadin.

Deklarazioek segitu egingo baitute. Baita maiatzaren aurrenean Arriolak Azkoitia igarota, Katuin errekan gora, erlekutza luze eta pago sendoen gerizpetan Elgoibarko bidea hartu duenean ere. Barreda korrejidorea utzi du buru, eta Bartolome Telleria jarri du Garmendiari laguntzen izkribau lanetan.

Frantzisko Enparan Gipuzkoako diputatu nagusia da epaimahaiak deitu duen lehenbizikoa. Altuna legez, itzultzailerik gabe mintzo da. Ezinbestean, larritasunez bizitakoaren aitorpena luzeagoa da, eta xehetasunez josia. Izenak erraz datozkio ezpain artera. Herria defenditzeko pronto agertu diren heroienak aurrena. Hala esan du, heroienak. Kapitulazioetan egon zirenenak gero. Matxinatuenak azkenik. Hauek, aukeratu hitz bakoitzarekin lehiatu da gaizkile gisa ematen: narras, mozkor, mehatxu, eraso. Tartean, Barreda korrejidorea eta bera etxera zihoazela gertatutakoa kontatu du, txarro lohi batetik edanarazi zietenekoa, nola eskatu zieten dirua ordainetan, eta garrote batez buruan jo.

– Jo? Gogor?

– Ez gogorregi ere...

– Badakizu gizon horren izena?

– Gerora jakin dut, galdetuta: Nikolas Izagirre, Patxikatxuriren semea. Errebalean bizi da.

Altuna sindikoaren saioak aurrena, eta Enparan diputatuarena gero, leihoak ireki dituzte, leiarrak estaltzen dituzten oihal beltzak erori dira, beste bat da orain lekukoen aldartea.

Aho-loreen garaia da. Matxinadaren buruan ibili direnen izenak agertzen hasi direlarik, izenek izenei dei egiten diete. Ez dago zertan zuzenean mintzatu korrejidoreari. Garmendiak eta Telleriak itzultzen dutenean ere, hor datoz, berez, euri langar tantak bezala, apirilaren 14ko goiz hartan Azkoitian hasita ia probintzia guztia asaldatu duen suaren eragileak.

Izenak dira mundua bitan banatzen ari direnak. Eta batzuk bakarrik gelditukо dira okerreko aldean, gero eta garbiago. Azkoitian sakristau den Inazio Larrañagak Inazio Basterretxe, Zankaluze, salatu du, eta Joakin Sarobe. Haren seme Frantzisko Larrañagak, berriz, Oronoz aita-semeak, Mateo Garate, Bizarraren seme biak, Juan Bautista Urreta, Juan Inazio Beretarbide eta Manuel eta Antonio Irigoien. Manuel Ugartek Bizente Larralde erantsi die, eta Tolosan deklaratuko duen Josepha Juaristik, gaitzizenez Joseph Katarro dei-

tzen duten bat eta Herdabide botikariaren morroia, Bihurria deituriko gizon gaztea.

– Erori da beldurraren oihala –esan du Barreda korrejidoreak mahaitik.

Iragana unez une berregiteko baliagarri den argialdia da.

Maria Josepha Otegik matxinada bezperan ikusi du gertatu denaren hazia: koipe-argia zegoen Manuel Irigoienen etxean, eta jendea hizketan barruan. Eta hala doaz izen batzuk hitzez hitz zikintzen, astuntzen, zamatzen, izenaren jabeari zepoa ezartzen zaion arte. Sutea itzali delarik hasierako ilintiraino doa ikerketa, eta horrek Manuel Irigoien du izena Azkoitian. Maria Magdalena Ostolazak inaute garaira darama epaimahaia. Hala entzun omen zion horrexeri, Manuel Irigoieni, hitz horiexek, ezin zehatzago esan, baina matxinada entzun nion, eta aleak pisatzeko neurrien gaineko zeozer, ardoak berdinduta zebilen, eta denbora ere pasatu da, eta ez naiz ondo akordatzen.

– Sinatuko duzu hemen, Magdalena?

– Ez dakit eskribitzen.

Izpi batean egin dute hegan beleek Txaraibarrera, pozoi bihia dutela mokoan.

– Lagun ustekoek saldu zaituztete, Manuel.

Gaiztoz eransteko agurrean:

– Hotzik bai lepoan?

Txaraibarren sartu dituztenetik, preso bakarra atera dute. Ez libre ere, gaitzak erkindua baino. Manuel Antonio del Val medikua ekarrarazi dute Azkoititik, berak ezagutzen duelako ondoen gaixoa, Mateo Cavallero. Aztertu du, ikusi du berehala zerk eragina dion makalaldia. Idazteko ausardia izan du: “Kartzelako aire ustelak arbintzen dio arnasa, igotzen sukarra”. Eta sinatu egin du, sendagilearen ikuspegitik bete beharreko aholkuarekin: “Mesede egingo diozue gizonari handik ateratzen baduzue, arriskuan dago bestela”.

Hala atera dute Mateo Cavallero espetxetik, Azkoitira sei urte lehenago Jazinta Aranbarrirekin ezkontzera etorria, sendatu orduko itzularazteko epai-aginduarekin.

Irtetera doala, medikuak ezustean harrapatu ditu Arriolaren gizonak.

– Ireki ate hori, mesedez.

Emakumeen atea zabaldu diotelarik, ilunpetara hots egin du Del Valek:

– Teresa, Esteban ez dago ondo.

Hogeita hamar

Gaztelako Kontseiluak Arandako kondearen bidez Diputazioari jakinarazita bezala, Arriola alkateak badu aukera, nahi izatera, berak gogoko duen ordezkoa uzteko deklarazioak hartzen.

Eta halaxe egin du, mahaiko kideei aitortua dienez, gorputza ortoztu egiten baitzaio, eta begiak ixten, ia iluntze arte luzatzen diren saio aspergarrietan. Han esango direnak esanda daudelako ordurako, eta berak behar, beste zerbait behar duelako: begibelarriak zoli, ehiztariaren kilima beso zainetan, eta Belle bezalako behor bat zango artean beldurrak hartutako herrietan zamalka gozoan garaile sartzeko.

– Justizia goseak pizten du gizona.

– Eta larderiak.

Ez du hau entzun, ordea. Arriolak bestela hitz egiten du. Dena ez da papar erakustea. Epai-aretoan dauden gehienek ez bezala, alderdi asko du zaindu beharra. Epaiketakoa nola azkartu. Eta pentsatu behar da nola sartu atxilotu guztiak Donostian.

Harako bidean jarri ditu presoetako batzuk, ardura Frantzisko Agirreri utzita. Emakume gehienak aurretik igorriak ditu Errenteriako kartzelara.

– Nork egingo du hau nik egin ezean?

Maiatzak sei ditu, asteartea, Manuel Antonio Arriola Tolosara iritsi denean. Batere zailtasunik ez duten deklarazio hartzeak utzi dizkio Barreda korrejidoreari Azpeitiko kontzeju-etxean: Joseph Joaquin Hurtadorena, Narrosko markesarena eta Azkoitiko alkate den Joseph Olanorena. Badaki zer esango duen bakoitzak, nola lotuko zaion bataren deklarazioa bestearenari, gertakarien halako kronika behin betikoa osatu arte. Bezperan adostu zuen dena guztiekin, Peñafloridako kondeak deituta Intsausti jauregian.

Gau hartan ibai ondoko etxe batean prestatu diote logela. Mahai gainean bermatuta idazten duen artean, Donostiara laster helduko dela eta presoak Urgullen sartzeko baimena eskatu dio Fleigniesi azken bider. Ardoa izan duen edontziak lumera garren argia biltzen du, eta itzalak gelan jolasean hasi dira, gau osoan ohe inguruan hormetan gora loa zainduko dioten orban lohikarak.

Hurrengo egunean harrapatu du Frantzisko Agirre Andoainen.

Sorabillan direla, muino urratu baten ostetik agertu dira, goiz-alba dela, bezperan partitu zirenak. Agirre zaldi gainean aurretik, biderako anoaz zamatutako mandoak eta gurdia ostean, lokatz zipriztinak tuka. Eta presoen soka atzetik, oinezko miliziano armatuak dituela inguruan.

Eguzki herbalak zeru argiaren kontra mozten ditu gatibuen siluetak.

Narrosko markesak iragarrita bezala gertatzen ari da dena, dantzan behartuta erabili zituztenean:

– Zaudete. Laster beste soka batean ibiliko zarete.

Begiak zorroztu ditu. Astiro doa. Nabarmena da oinen herrenak moteltzen duela gatibuen ibilia. Kezkatuta, ezproika ekin dio. Altzairuzko eztena guri sartzen da Belleren saihets urratugabean.

Agurrari erantzun aurretik eskatu ditu nobedadeak Arriolak, estadilloa prest du Agirrek. Hirurogeita hamarrak daude, jauna, esan dio. Azpeititik atera dituzten guztiak. Dena ez doa nahi bezain ondo, baina. Tolosan, sabela arbola atze batean hustu behar zuen aitzakiarekin, ihes egin die batek. Askatu dituzte txakurrak, kargatu dituzte fusilak, estutu dira arnasak maldan gora. San Estebango baselizan aurkitu dute, aldarepean konkortua. Tatarrez atera dute gizona,

bertaratutako auzokoak dituztela oihuka. Toki sakratuan hartu duela babesa gizonak, ezin atera dezaketela indarrez, ez behintzat Erregeren legea erakutsita Jainkoaren babesaren aurrez.

– Ez zegoen horretarako beharrik.

Sua eman dio iheslaria gurdian etzanda ikusteak, barrika minduen artean. Odol beltzak bustita ditu zauriak estutzen dizkioten benda zikinak. Gizon gaztea da, beltzarana, zer ote ditu, hogei, hogeita bi urte. Astindu dutenean agondu da. Gauza Arriola alkateari erantzuteko.

– Zergatik egin duzu ihes?

– Ez al zenuke zeuk egingo aukera izan bazenu?

– Ni ez naiz, ordea, sekula zu izango.

Abiatzeko keinua egin dio gurdizainari. Ezagun du, Arriolak presa du Donostiara heltzeko. Etxea du zain, gela erosoa, egur ederrez egindako ohe gozoa eta beso artean aurrena eta mokorka gero azpiratua agertzen zaion emaztea. Azken egunetan, haren hasperen hotsek bildu dute inoren oheetan etzan izan den aldiro. Olerkiak idazten dituen milizianoetako bati entzun dionetik, gogotik erauzi ezin duen irudia da labana. Hala sentitzen du berak ere, denborak eta distantziak umotutako sagar gorrian laster behin eta berriz sartu-

ko duen burdina-ahoa. Edo ezproia behorraren mamitan, etorri zaio. Kontuak aterata, atxiloketak eta epaiketaren prozedurak azkar erabaki arren, bi aste pasa baitaramatza probintzia mendebaldea baretzeko espedizio hartan. Eta ezkondu zenean aldean indarrak mendre izanagatik, irritsak bere legeak ditu, justizia nahiak ase ezin ditzakeenak.

Gau hartan, Hernanin lo egin dute, milizianoetako batek utzitako baratze oste batean. Etxea eskaini diote Arriolari, maindire garbien gozoa, kanpamendutik urruti egiten ez den jauretxe batean. Uko egin dio, lehenbizikoz kanpaina osoan. Gaugiro dago. Bere gizonekin igaro nahi du azken gaua. Fleignies kapitainaren soldaduak utzita Azkoiti-Azpeitietan, han amaitu da askorentzat espedizioa. Esker oneko afaria eskatua du Arriolak, Donostiako Kontsulatuaren kontu ordaindu duena. Loretan diren akazia batzuen azpian pararazi ditu mahaiak.

Kantuekin nazkatu denean erretiratu da ortua belazetik bereizten duen itxitura zapalaren babesera. Gogoan darabilenak ez dio gauaz eta konpainiaz gozatzen uzten. Orain berandu da. Eta amorratu egiten da bere buruari kontra egitera datorrelako heriotza hura. Bere buruari kontra egitera datorrelako, zergatik eta

matxinatu nagusientzat heriotza zigorra eskatzen ari zaizkion Peñafloridak eta Narrosek lortu dutelako lehenbiziko pieza, urkamendian ez bada ere.

– Nik kanpaina garbia nuen buruan.

Zintzoaldian harrapatu du ondoantsu paratu zaion Agirrek.

Arriolaren buruan beste zerbait ibili da aurreneko matxinoari eskumuturrak estutu dizkionetik. Barreda korrejidorearekin entzun dituen deklarazioek sendotu baino ez diote egin hasierako uste hura: galera zigorra Ceutan eta Oranen matxinadako buru nagusientzat; Zaragozako kartzelara emakume gehienak; eta urteetako soldadutzara erru arinagoak dituztenak. Horra zigor garbiak falta garbientzat. Horra nola ulertzen duen justizia berak. Mendekurik gabe.

Agindua ere emana dio Donostiako Udalari eta eskaera Enparan diputatuari, Alamedako markesak Gasteiztik bidali duen borreroari dietarik ez ordaintzeko inondik ere.

Zertara datoz ohore zikinduan oinarri hartutako heriotza zigor eskaerok.

Burutik egin zaie Narrosi eta Peñafloridari.

– Eta zer egin behar dugu hildakoarekin?

Aparte batean utzita dute gizona, zamarientzako kapota batez estalia. Oiartzungo bi milizianoek zaintzen dute gorpua. Sua isiotu dute, gaueko piztiek hilotzari eraso ez diezaioten. Pentsatu beharra du, arin pentsatu beharra du zer egin gogoan usteltzen ari zaion gorpuarekin, zer egin, han bertan lurperatu, Donostiara eraman ala Azkoitira bidali, baina zer aitzakiarekin gizona baioneta zauriz itsustua badago.

Zauritu bat, hildako bat. Honen guztiaren premia al zegoen?

Ezer erabaki gabe lokartu da harresiaren kontra. Begiak bilduta, hurrengo egunean arratsaldeko postan bidaliko du Donostiatik gogoan idazten hasi den gutuna:

“Gatibuen garraioa nahi aldean katramilatsua izan da. Juan Bautista Urreta, Azkoitikoa, 66 urteko zapataria, istripuz hil da Hernani sarreran”.

Loak hartu aurretik, emazteaz gogoratu da. Galtza barnean sartu du eskua. Epel dago. Txepetxa dirudi oskarbipean lo.

Hogeita hamaika

Eguna zabaltzerako zaunka eroan dabilzkie zakurrak Kindelanen soldaduei.

Teresaren itzalarekin esnatzera ohitu beharra, horixe zaio zailena Estebani, egunsentiak berekin dakartzan ohiko hotsekin. Ezin egin ausentziara. Aldaka aldera etzan denean igarri du, beroaldi arina, ilar ale baten adinako kozkorra, itxuraz lehertu gabe dagoena. Kolpetik lotu du izuak. Besoa behartuta erpuruaz laztandu du bular aldetik galtzarberako tartea, eta nabarmen agertu zaio oilaurra. Teresa zuzen zegoen, badatorkio.

– Esna zaude, Esteban?

Teresaren ahizpa da, Maria, ate-orpotik ari zaiona.

Hitzen beharrik gabe ohartarazi du Estebanek, gaitzak gorritzen hasitako begiez errepikatu, ez sartu Maria, ez sartu kutsatzerik nahi ez baduzu. Arnasa mineralaren hotsa paparrean gora. Hatsak harri-txintxorrak dakartzala dirudi, legarra, harribilen halako eman lehor bat, hauspoari eragin aldiro berritzen zaiona.

– Ez ba...

Negarrari eman dio Mariak. Musualdea esku ahur zabalduan gordetzekoa egin du, mamiekin estutu ditu begi biak. Bristada arin batez bustitzen ikusi dizkio. Umea da oraindik, pentsatu du Estebanek.

Maiatzeko euriak zoratzen jartzen ditu zakurrak. Joanak dira Arriola alkatearen milizianoak. Neskengatik galdez dabiltzan soldaduak gelditu dira soilik herrian, zer gerta ere. Langarra ari du soroen gainean. Eguna nabarmen luzatu da, laster gorrituko dira gari sailak eta biltegiak berriz beteko, berotzen badu behintzat.

– Esadan, zer dun?

Estebanek ikusi egiten du zer datorren:

– Teresa dun, ezta?

Eta aurrerantz egin du Mariaren malko artean, estropezu egiten du, erori egiten da, jaiki, sukarrak ozta uzten dio hitzen arteko kontakizunari jarraitzen. Zeharka dakite dakitena, Teresarekin Errenteriako kartzelan egon den Brigidak kontatutakoagatik. Bezperatik dago etxean berriz ere.

– Libre laga al dute Brigida?

– Umea izateko dago.

Leiho aldera jiratu da Esteban, argi bila. Garbi datorkio Mariaren ahotsa dagoen tokitik. Brigidak esan-

da dakiela zer egin dioten Teresari, emakumeak zeuzkaten kartzelatik aparteko batera eramanda.

– Jende mihiluze gaiztoa! Bazekiten...

– Zer zekiten?

– Ezin duzuela familiarik izan.

Eta hala jarri omen zuten gorririk, eta oihu artean ohol heze batzuen gainean etzanarazi, eta eskuekin zangoak zabaldu. Umea nahi dun? Nahi dun? esaten omen zioten deiadar batean belarri ertzera. Brigida bezala, tripaundi? Atorra azpikoz gora igota estali zizkioten begiak, eta hiru, lau, bost gizon entzuten omen zituen inguruan Teresak. Hire gizon horrek ez din balio, hori dun, ezta? Eta hankarte bat jarri omen zioten esku behartuan. Lirdinga lepoa bustitzen. Buruhandi bat nahi dun? Atzaparrak bularrak estutzen, izter barrenak marruskatzen, amorruz kakotuak. Orroek horma zulatzen zuten. Teresaren deiadarrak daramatzala oraindik barruan dio Brigidak, ezin dituela burutik kendu.

– Nola dakin hori guztia?

– Brigidak esanda.

Atertu gabe ari du eta orain Esteban da zotinka ari dena.

Haurdun nahi dun? eta hankak bortxaz zabaltzen omen zizkioten. Atzaparrek ubeldurak utzi zizkioten belaun atzean, hainbesteko indarrez teinkatu zuten.

Ez haiz horrela ibili senarrarekin ez beste matxino guztiekin?

Esazan orain, nola zen? Sua! Sua! Denok akabatuko zaituztegu!

Gizonen algarek estaltzen omen zituzten oihuak. Belarri izkinan egiten zioten zaunka. Ukitzera behartu zuten, mutur hotz bat zen, metalezkoa. Umetokiraino sartuko ziotela esan eta zakar eragin omen zioten; ikusiko dun, ikusiko dun orain nola bai, orain bai, eztarriraino sentituko dun.

Sua nahi dun, Teresa?

Halako min izenik gabea, fusil baten muturra sartu baliote bezala.

Aurpegia estaltzen zion zapia kendu ahal izan zuenean, bakarrik zegoen biltegi hezean. Inor ez. Odola lehortua zuen izter-barrenetan. Botaka egin zuen txoko batean, txirbil artean.

Estebanek ere ez du inor topatu gelan begiak zabaldu dituenean. Hazka egin du azal zanbrotuan. Maria joana da, eta bururik eta hankarik gabeko amesgaiztoa iruditzen zaio dena. Ezin esan dezake lu-

zaroan egon den lo, ez zenbat egun daraman ohean, ezta zenbat igaro diren Teresa atxilo hartu dutenetik. Mariak kontatutakoaz akordatu da, eta zalantza egin du benetan izan duen elkarrizketa ala sukarrak asmarazi dion guztia eta ez den ezer gertatu, ez behintzat Mariak esanda bezala. Hala izango da, seguru dago ia. Lasaitu egin da.

Lehor du eztarria. Legarra ahoan. Zalantzak badoaz. Paparra haztatu eta oilaur gehiago datorkiola igarri. Mina burualdera zabaldua da, dardara txiki bat nabaritu du eskuan Mariak ohe ondoan utzi dion katilukada ura hartu duenean.

Izainak behar ditu. Zergatik etsi du hain erraz, madarikatzen eskatu dizkio Mariari ekartzeko. Ez dagoela izainik potoetan erantzun diola iruditu zaio. Lantzeta bat eskatu dio orduan. Labana bat. Sangratzeko balio lezakeen edozer. Eta terreina.

Ilun-instantziak jan du leiho zabalduaren bestaldea. Ezin dio eutsi. Badoa, badoa berriro ere ur ilunetan barrena, gero eta hondoago. Karrajoan barrena datorkion norbaiten pausoak entzutea iruditu zaio ur azaletik behera erortzen hasi denean.

Amets batean esnatu da. Ulertzen ez duen denbora batean.

Nola ez dakiela, inoiz entzun gabeko izen bat datorkio: Nikos Kokkinias. Nondik eta zertara gau osoan bakerik eman ez dion izen arrotz hori. Ilunpetan, kalerako jantzi da, ebaska bilatu ditu oinetakoak kamapean. Kontuz zarratu du kanpoko atea, ez luke nahi inor esnatzerik. Estropezu egin du azken mailetan. Inoren zapatetan balitu bezala sentitu ditu oinak.

Kaleak galdua zuen garai bateko itzala. Denbora behar izan zuen zeru zati hartara egiteko, ibai bazterrak mugarritzen zituzten etxeetara ohitzeko.

Herio batean ekin zion gero eta urrats azkarragoz.

Ez zebilen inor. Zer ordu zen? Eliza parera heldu-ta, Idiakez etxearen itzal beltzak hartu zizkion begiak. Parrokia, han zegoen. Ia dena, oso bestela zegoen, ordea. Harresiaren arrastorik ez zegoen, eta Narrosko markesaren jauregia zegoen tokian beste etxe bat zuten egina, ilaran jarritako arbola batzuk aurrean eta aulki luzeak zituela traban zalgurdien sartu-irtena egiteko. Banco Bilbao Vizcaya zioen kartel bat irakurri zuen, argi urdin biziko. Hortz ikaragarri zuriak zituzten haur batzuen irudi erraldoiak zituzten jarriak leiarrean ulertu ez zituen zenbaki batzuen ondoan. Paper urratu bat zegoen paratua alderik alde, artean irakurtzeko moduan zer zioten letra gorri larriek:

Lapurrak!

Begiak zabaltzea lortu zuen. Ezin esan izainena zen ziztada ala beharbada Mariak ekarri zion labanaren baten irekia. Ilobetako bat sentitu zuen aldamenean, aditu ez zuen zeozer esaten.

Eginahalak egin zituen amets arrotzera itzultzeko. Joan-etorrian ibili zen atxikitzea lortu zuen arte. Hutsik zeuden kaleak, hagitzez zabal eta garbiagoak. Espaloi ondoan ilaran ziren zalgurdi bitxiak laztantzen eman zuen denbora, zilar kolorekoak, ilunak gehienak, grisak, beltzak, gorriren bat tarteka. Arrotza zen dena.

Ezagunak behar luketen tokiak mudatuak agertzen zitzaizkion. Idiakezeneko txingei heldu zien benetakoak zirela egiaztatzeko. Hamaika aldiz ikusia zuen dukearen zaldia atarian hariei lotuta. Burua, suak hartua zuen. Itzalak pilatzen zihoazkion, bera baino lehenago bertan bizitakoen itzalak itzalen gainean. Jende asko zen, baina inor ez zebilen kalean. Beherantz segitu zuen. Etxe batean, argi ahul bat ikusi zuen emendatzen. Altzibarren jauregian burdinazko aldamio batzuk zituzten jarriak. Konpontzen ari zirela zirudien.

– Hobeto zaude, Esteban?

Ez zuen begirik zabaldu nahi. Izainak imajinatu zituen azal gainean, moretuta ordurako, odolez enpo

gero eta lodiago. Laster erauziko ziren berez. Ostean, Mariak ikasia zuen nola egin behar zen, nahikoa zuen ozpin pixka bat igurztea, edo ur gazia. Itzuli egin nahi izan zuen. Beheko harresia zegoenekotik igaro eta poztu zen Balda dorrea bere tokian ikusi zuelako. Seguruago sentitu zen. Han zeuden hiru iturriak, tokiz aldatuak harrizko zabalgune berri batean.

– Esteban...

Ibaia zeharkatu zuenean sumatu zuen. Gelditu egin zen. Gizon baten itzala zen, kale arte batean sartu zena. Atzetik jarraitu zion. Ezagutzen zuen ibilera hura. Nor zen Nikos Kokkinias? Izainak ikusten zituen buruan lanean, zurrupatua zioten odol guztia, zer zen bestela eldarnio hura.

Gelditzeko egin zion oihu.

Gizonak itxaron egin zion Esteban parera iritsi zitzaion arte.

– Ezagutzen nauk, ezta?

– Nola ez haut ezagutuko, Esteban.

Eta eskola sasoia ekarri zuen solasera, biak elkarrekin ibili zirenekoa. Zertan zebilen galdetu zion gizonak. Sentitzen zuela. Izan zituzten maisuez eta gelakideez mintzatu ziren.

– Oraintxe nator harekin afaltzetik.

– Aste barruan soziedadean? Gaizkitxo bizi haiz, Esteban!

– Eta hi, nondik hator ba?

– Lanetik gizona, lanetik.

Berehala aldatu zuen gaia, ikaskide hilak aipatu zituen:

– Akordatzen harekin?

Uzteko bakean eransteko ondoren. Joateko etxera, ordua zela.

Urteak ziren Estebanek ikusten ez zuela. Aldatuta zegoen, hala iruditu zitzaion. Puztua zuen aurpegia, bakandua ilea. Kilo batzuk hartua zen.

– Akordatzen nola egin genituen pintada haiek?

– Beste garai batzuk zituan... Hoa etxera, Esteban.

– Zergatik?

– Zergatik zer?

– Zergatik egin dituk zerrenda horiek?

Atzea emanda bizkortu zuen pausoa gizonak. Ez zituen hamar metro egin Estebanen eskua sentitu zuenean alkandoratik eusten.

– Esteban, segiok etxera. Edanda hago.

– Ez zabilek besterik jendearen ahotan. Eskirola izatea nahikoa ez, eta kaleratze zerrendak zeuek egin behar?

Lehertu beharrean zituen begiak. Paparretik eutsi zion gizonak. Atzeratua zuen beste besoa, eskumuturra itxita, erasorako gertu.

– Jo egin behar al nauk? Jendea kaleratu eta eskola-lagunak jo. Horretarako joan al hintzen unibertsitatera?

Langile buzoz jantzitako panpina ikusi zuen grua muturrean zintzilika. Errukia, etorri zitzaion. Errukiak jan dik beste guztia.

Begien parean zuen bestearen ukabila.

– Emadak! Emadak gizajo horrek, horrela lasaiago sentitzen bahaiz...

– Segiok etxera, Esteban... segiok, bestela...

– Nire emaztea ere zerrendaren batean sartuta izango duzue, noski...

– Hire emaztea? Alde egizak hemendik. Hark ere agoantatzen ez hauelako alde egin zian-eta ondotik...

Barre algara exajeratua atera zitzaion Estebani. Berak besoa luzatzerako sentitu zuen atzaparra. Kakotutako eskua paparrean eta kokotsetik indarrez atzeraka saka egin zion ahurra. Erori egin zen, aparkatutako autoetako baten kontra etzaten saiatu arren ukondoekin jo zuen zorua. Ez zen nahikoa izan. Muineraino sartu zitzaion beroa sentitu zuen espaloi ertza

buruaz jo zuenean. Berehala zabaldu zen, belarri atzetik sortu zen odol xirripa epelak masailean behera, ezaguna zitzaion zapore gozoa utzi zion ezpainetan.

Zoru gainean zegoela, jaikitzeko ahalegin oro alferrikakoa zuela pentsatu zuen. Ezin zuen ez zangorik ez besorik ez atzamarrik mugitu. Gauarekin bat egin zuten urratsak entzun zituen, gero eta urrunago. Hantxe utziko zuen. Epel zeuden harlauzak, baina deserosoa zen. Auto artean erorita zegoen, burua espaloi gainera doi bat igota. Agontzen saiatu zen. Gurpilen goma usaina heldu zitzaion orduan. Gasoil tanta batzuk galipot gainean. Nola ez dakiela, Nikos Kokkiniasekin akordatu zen. Gizajoa. Begiak itxi eta lo egin. Halaxe egin zuen. Nekerik gabe etorri zen erabateko ilunpea, eta isiltasuna gero. Kasik gau osoan iraun zuen isiltasun bakeosoa apirileko goiz-alba freskoak sirena baten hotsa hurreratu zion arte. Eta aldamenean murmurioaren begian hizketan ari zitzaion ahots bat, edo bi beharbada, adore ematen, eusteko, laster zetorrela laguntza esaka, eusteko.